ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-02-13
ASTELEHENA
353. ZENBAKIA
8. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET

TOKIKOM

IÑIGO IBAÑEZ

"Hizkuntza, ahots eta multimedia arloetan ezin gara lokartu"

Igor Leturia | BerbaTek-eko kide | 7

Etorkizuneko eguzki-plakak Arrasaten ikertzen dituzte | 2

Alokairua ordaindu ahal izateko laguntza eskaerek gora egin dute | 14

Argentinara bidaltzen diren arropa edukiontziak arriskuan daude | 11

Dorletako Amako ziklistak, pedalei eragitera

Zapatuan aurkeztu zituzten Eskoriatzan klubak izango dituen talde guztiak, tartean, afizionatu mailakoa | 24

Dorletako Amako txirrindulariak, zapatu goizean Dorletako santutegian amabirginari lore eskaintza egin ostean, Eskoriatzako plazan, talde argazkian. | XABIER URTZELAI

Katakume kantariek Oñati hartu zuten atzo 'Mirrix katua' lanaz

Ganbara Txiki abesbatzako musikala ikusteko goraino bete zen Santa Ana aretoa | 30

Emanaldiko une bat. | JULIO CALLEJA

Goikobaluren DVD-CDa kantuan eginez aurkeztu zuten

'20 urtez kantuan' hainbat tabernatan dago salgai | 29

Txapel Txinek aratusteetarako deia egin du Aretxabaletan

Datorren domekarako motorrak berotu zituzten herritarrek

"Merkatua garrantzitsua da merkataritza bultzatzeko"

Arrasateko azoka biziberritzeko plana aurkeztu zuten | 4

Gaztelekuaren eta ludotekaren etorkizuna aztergai Elgetan

Udalak gurasoekin batera aztertu nahi du gaia | 20

Bizikletaren erabilera lehenesteko eta sustatzeko foroa abian jarri dute Oñatin | 18

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

BERRIA
Atera etekina zure txartelari

Gutiz Geder
EDERTZE ZENTROA

HEMEN ERE BAI!

► Zoaz 21. orrialdera. *Goiena klubeko txartela, beti aldean*

Etorkizuneko eguzki-plakak Arrasaten ikertzen dituzte

▸ Ikerlan-IK4 Europako proiektu baten dago

▸ Material berriak, eragingarriagoak ikertzen dituzte



Dispositiboa sortzeko lehen pausoa: beirazko euskarria. | LEIRE KORTABARRIA



Material berrien berezitasun bat: kolore askotakoak dira. | LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Eguzki-plakak denok ezagutzen ditugu: zurrunak, azalera handikoak eta beltz-beltzak. Bada, irudi hori aldatzeko moduan izan daiteke, eta aldaketa Debagoienetik etor daiteke, Arrasateko Ikerlan-IK4 ikerkuntza zentrotik, hain zuzen ere.

Izan ere, eguzki-plakak egiteko material berriak ikertzen dihardu Mondragon Korporazioko ikerkuntza zentro horrek. Hain zuzen ere, Ikerlan-IK4, Europako Batasunaren laguntzarekin, eguzki-energia erabiltzeko material berriak aztertzen dabil. Proiektuak X10D (*Extend*, ingelesez) du izena, eta gaur egungo eguzki-zelulei alternatiba ematea da helburua. Ekoizteko merkeagoak eta erabiltzeko aukera gehiago ematen dituzten materialak lortu gura dituzte, hain zuzen.

Proiektuak 11,9 milioi euroko aurrekontua du, eta horietatik 8,5 Europako Batasunak ipini ditu. Belgikako IMEC zentroak koordinatzen du proiektua. Arrasateko zentroak 524.000 euroko aurrekontua du, eta horietatik 394.000 datoz Europatik.

Oraindik hasten dago, baina garatzen denean, diru gutxiago gastatzeko, ingurumena zaintzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko, eguzki-energia hobeto aprobetxatzeko aukera emango dute material berri horiek.

Onenak aukeratu

Garaia berrikuntza gunean Ikerlanek daukan egoitzan dihardute buru-belarri bost lagunek, material berri horiek ikertzen. Talde horretan dago Roberto Pacios ikertzailea, eta lantalde horren eginbeharra azaltzen digu: material berriek eguzki-energia xurgatzeko ze gaitasun duten ikertzea eta antzematea, eta onenak erabiltzea laborategi-eskalako zelulak egiteko. Gero, modulu fotovoltaikoak eraikiko dira, baina hori "epe luzeagoan" izango dela esaten dute arduradunek.

Paciosek gaur egun erabiltzen den materialarekin, silizioarekin, alderatuta material berriek dituzten abantailak kontatzen dizkigu: "Material berriekin egindako plakak malguak dira, eta ehunetan, arropatan... ipini daitezke. Gainera, siliziozko plakak beti beltzak dira, eta material berriak kolore askotakoak izan daitezke. Horrek aukera asko ematen ditu, adibidez, eraikuntza sektorean". Gaineratzen duenez, siliziozko plakak zurrunak dira beti.

Abantaila gehiago daude: "Argiaren zati bati pasatzen uzten diote; isolatu egiten dute, baina, era berean, energia produzitzen dute. Horregatik, material horrekin, eguzkitik babesten duten eta, aldi berean, energia sortzen duten gortinak". Hori arlo askotan aplika daiteke: "AEBetan ikerkuntza-lerro hori garatuagoa dago eta hango Defentsa Departamentuak material horrekin estalitako kanpin-dendak ditu".

Eguneroko bizitzan ere aplikatu ahal izango da. Adibidez, orain zientzia-fikziozkoak irudituko litzaizkigukeen autobusmarkesinak egin ahal izango dira: markesina eguzki-plakekin hornituta egongo da, eta argia, informazio-panel inteligenteak, klimatizazioa, telefono mugikorra kargatzeko aukera eta beste zerbitzu batzuk eman ahal izango ditu. Eta jantziak eta osagarriak ere praktikoagoak izango dira: hala, gailu teknologikoak kargatzeko balio duten motxilak, edo eguzkiaz babesten duten aldi berean, elektrizitatea emateko gai diren gortinak.

Argia emateko ere erabili ahal izango da. Hala ere, zelula bakarra ezin izango da bi gauzetarako erabili.

Koloretako kristalak

Zelula berriekin egindako materiala askoz merkeagoa izango da ekoizteko, laborategian egingo delako, silizioa ez bezala. Silizioa ustiatu egin behar da, eta kantitate mugatua dago, gainera.

Hain zuzen, laborategian dihardu Ikerlanek, materialak probatzen eta zelulak egiteko material eragingarrienak antzematen. Garbitasun neurri zorrotzekin lan egiten dute.

Roberto Paciosek honela azaltzen du euren lana, pausoz pauso kazetariak ikusten dituen bitartean: "Dispositibo txikien gainean probatzen ditugu askotariko material horiek. Prozesua hauxe da: kristal bat daukagu eta, beste aldetik, disoluzio bat prestatzen dugu. Kristala elementu eroale batekin estalita erosten dugu. Disoluzioaren tanta batzuk substratu edo azalera horren gainean ipintzen ditugu, eta kolorea hartzen du. Gero, kontaktu metalikoak ipintzen dizkiogu". Paciosek zehazten duenez, "koloretako geruza da gehien interesatzen zaiguna"; hori da, hain zuzen, probatu beharreko materiala.

Asko, eta askotarikoak –eta baita kolore askotakoak ere–, probatzen dituzte, eta eragingarrienak aukeratzen dituzte; hau da, eguzki-energia gehien hartu eta aprobetxatzen dutenak.

Ia ez dago industriarik

Alemanian, AEBetan, dagoeneko teknologia berriarekin egindako produktuak merkaturatzen hasiak direla esaten digu Roberto Paciosek. Euskal Herrian, ordea, "horrelako industriarik ia ez dago", eta Espainian, "bat ere ez". Industria Sailak %11,8 gehiago inbertituko du aurten I+G+i arloan, sailaren aurrekontuaren %60; denetara, 230.000.000 euro.

DATUAK

8,5
MILIOI EURO

Europako Batasunak proiektuaren %71 finantzatzen du.

5
IKERTZAILE

Ikerlan-IK4 zentroan, bakarrik ikerkuntza proiektu horretan dihardute bost lagunek.

ESANAK

"Arropak, eguzki-energia aprobetxatzeko gortinak... egin ahal izango dira"

"Laborategian sortuko denez, material merkeagoa izango da"

ROBERTO PACIOS
IKERLAN-IK4-KO IKERTZAILEA

Diruaren %60 enpresek ipintzen dute

IK4 teknologia-aliantzak administrazio publikoek aurten gehiago inbertitzea espero du. Zehazki, Europako Batasunaren eta Eusko Jaurlaritzaren inbertsio-politika aurten hobetuko dela espero dute IK4-ko bederatzi kideek, tartean Ikerlanek. Halaxe jakinarazi zuten IK4-ko arduradunek Donostian, 2011ko balorazioa egin zutenean.

Dena dela, gero eta gehiago, enpresak dira IK4 aliantzaren diru-iturri nagusia: iaz, diru-sarreren %60 (96.000.000 euro) enpresa pribatuek zuzenean egindako kontratuetatik etorri ziren. Aliantzak 800 enpresa-bezero ditu, eta 1.500 proiektutan lan egiten dabil.

Iaz, 103.000.000 euroko sarrerak izan zituzten IK4 aliantzak, eta Europako 10 teknologia-korporazio pribatu nagusien artean dago. Aurten, iaz adina inbertitzeko asmoa dute: 21.000.000 euro, hain zuzen ere, 2010ean baino %30 gehiago.



Xaflari kolorea aplikatzen dabil ikertzailea. | LEIRE KORTABARRIA

Kanadan ikertzaileek garatutako autobus-markesina; eguzki-plaka berriak ditu. | MCMASTER UNIVERSITY



Dispositiboa gertu dago; orain zenbateraino den eragingarria neurtu behar da. | LEIRE KORTABARRIA

Bizikletaren motorra eguzki-energiaz elikatzen da, xafla tolesgarri horien bidez. | BIKEFORTH.ORG

Azoka biziberritzeko plana aurkeztu zuten, baserriko produktu artean

Aurkezpenaz gain, azokako produktuetan hainbat nobedade egon ziren

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Ohi baino biziago egon zen zapatu goizean Seber Altuben egindako Arrasateko Baserritarren Zapatuko Azoka. Baserriko sasoiko produktuak eskaintzen zituzten ohiko 15 postuei, bestelako produktuak saldu zituztenak gehitu zitzaizkien. Besteak beste, Nafarroako olio, Errioxako ardo eta ogi ekologiko zein askotariko landareak eta arbolak erosi ahal izan zituzten arrasatearrek.

Baina berrikuntzak ez ziren salgai zeuden produktuetan amaitu. Azokarekin batera, Bagara Herrigintzak Arrasateko Azoka Plaza Biziberritzeko Plana aurkeztu zuen, eta etorkizunean azokak izan ditzakeen esparruak irudikatzeko hainbat eragile gonbidatu zituen. Han aurkitu genituen, besteak beste, herriko gazte diseinatzaileen poltsak, amantalak, kamisetak eta ilerako apaingarriak, Harremanen bidezko merkataritzaren produktuak eta Emausen bigarren eskuko gunea.

Bestalde, Arrasateko Gaztetxe eta La Jodedera musika taldearen eskutik azoka kultura gune bilakatu zen; eta Txatxilipurdikoek, bitartean, umeendako jolas gune aproposa bihurtu zuten esandako plaza. Hala, etxeko txikienak primeran ibili ziren.

Bagarako kide Igor Ortega, Txatxilipurdiko, Ibai Arteko eta baserritarren ordezkariekin, aurkezpenean. | JULIO CALLEJA

Eskaintza berriekin pozik

Azokak erakutsitako aurpegi berriaz pozik ikusi genuen jendea. Rakel Perez Arenaza baserritarrak, esaterako, honakoa esan zigun: "Plaza beteta ikusten da eta beste giro bat dago; herrian beste hainbat gauza egiten dira eta inportantea da horiek erakustea, ez bakarrik baserritarren aldetik; salmentek, gainera, gora egin dute. Ona da denondako". Ibai-Arte elkarteko Jesus Mari Elkorok gogorarazi zuen merkatuarekin kezka dutela, eta honakoa gehitu zuen: "Merkatua gune garrantzitsua da herriko merkataritzari bultzada emateko. Beti gaude merkatu eraginkorraren alde".

Txatxilipurditik Itsaso Pagoagak honakoa esan zigun: "Azokari beste itxura nahi genion ematea, baserritarrez aparte, bestelako eragileok zelako lekua izan dezakegun irudikatuz. Harrera ona izan du, talo beroa gustura dabiltza jaten umeak eta ez hain ume direnak ere. Bagara Herrigintzaren izenean, Igor Ortegak aipatu zuen Arrasaten aukera "oso interesgarria" dagoela azoka biziberrituz arrasatearron ongizatean urratsak emateko, bereziki prozesu parte-hartzailearen bidez egin nahi delako.

ESANAK

"Herrian beste hainbat gauza egiten dira eta inportantea da erakustea"

RAKEL PEREZ ARENAZA | BASERRITARRA

"Merkatua garrantzitsua da herriko merkataritza bultzatzeko"

JESUS MARI ELKORO | IBAI-ARTE

"Talo beroa gustura dabiltza jaten umeak eta ez hain ume ez direnak ere"

ITSASO PAGOAGA | TXATXILIPURDI

Antzuolako AHTko tuneleko lanak geldi, gas zantzuak agertu direlako

T.M./M.B. | ANTZUOLA

Antzuolako AHTren tuneleko lanak geldi daude eguenaz geroztik, lanak egiten dabiltzan galerietako batean metano gas poltsen zantzuak aurkitu dituztelako. Euskal Trenbide Saretik adierazi dutenez, langileen segurtasuna bermatze aldera hartu dute esandako erabakia.

Horren harira, gogorarazi behar da joan den otsailaren 3an 27 eta 33 urteko bi langile larri zauritu zirela tuneleko galerietako batean emandako leherketaren ondorioz. Istripua gertatu zen galeria horretako lanak aurretik geldi zeuden, Osalanek leherketaren arrazoiak ikertu bitartean.

ELA sindikatuaren arabera, metatutako gas poltsa batek eragin zuen leherketa hori. Euskal Trenbide Sarearen esanetan, tunelek eta horietan lan egiten duten langileek metanoa antzematen duten sentsoreak dituzte, eta zerk egin zuen huts ikertzen dabiltza orain.

UNED BERGARA

IKASTAROAK

- **MINTZAPRAKTIKA INGELESEZ**
  Erdi/Goi mailako ezagupena dutenentzako.
  Hasiera: Otsailak 29.
  Klase eguna: asteazkena
  Ordutegia: 18:15 - 20:45
  Matrikula epea: Otsailaren 25era arte.

Informazio gehiagorako:
Tel.: 943 76 90 33
info@bergara.uned.es

Gorka Azpitarte preso eskoriatzarrak elkartasuna jaso zuen zapatuan, Poitiers-en

M.B. | ESKORIATZA

Ezusterik gabe joan zen Gorka Azpitarte preso eskoriatzarraren eta harekin batera Frantziako Poitiers-Vivonne espetxean dauden Eneko Zarrabeitia, Saioa Sanchez eta Maite Aranalderen alde egindako martxa. Haren aita Txomin Azpitartek azaldu digu, denera, 80 lagun inguru batu zirela kanpoaldean; Berango, Elorrio, Abadiño, Elorrio eta Hendaiatik iritsitakoak. Bisiten ostean (Gorkak lagunak ikusi zituen), euskal presoen eskubideen urratzea salatzeko eta Euskal Herrira ekartzeko elkarretaratzea egin zuten; txalaparta, musika eta etxafleroen ondotik, elur artean espetxeari buelta eman zioten han batutakoek presoen aldeko oihuak eginez.

Horrekin batera, Txomin Azpitartek jakinarazi du Vivonen dauden presoak *mittard* deituriko isolatze-gelan daudela epe mugagabean.

Zapatuan egindako agerraldia. | ESKORIATZAKO PRESOEN ALDEKO TALDEA

Zero azpitik egon dira aste bukaeran Arantzazun

M.B. | ARRASATE

Hotza izan da nagusi azken egunotan gurean; termometroak dira horren erakusle. Bailara zero azpiko tenperaturekin esnatu zen zapatuan eta baita domekan ere. Euskalmetek eskainitako datuen arabera, Arrasaten, esaterako, -3,7 gradu izan zituzten zapatutik domekara bitartean; Arantzazun, -4 eta -5 gradu artean ibili ziren minimoak, eta Leintz Gatzagako Gaztainuzketa etxeetan ere -3 graduren bueltan ibili ziren.

Egunez tenperaturak ez ziren larregi igo, eta Arantzazun, esaterako, zero azpitik egon dira asteburu guztian. Horretaz gain, elur malutaren bat edo beste ere ikusi genuen zapatu eguerdian Arrasaten, eta iluntzean, Aretxabaletan.

Euria eta elurra

Aste barrurako, ostera, euria iragarri du Euskalmetek; euria eta baita elurra ere leku altuenetan.

Mundukide: zailtasunei aurre egin eta lanean jarraitzeko gertu

Fundazioak iazko erronken eta aurtengo helburuen berri eman du

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Mundukide Fundazioak lanean jarraitzen du. "2011ko erronkak beteta, lanean jarraitzeko asmoa daukagu 2012an. Gure lanari eutsi egin behar diogu eta planeta honetako pertsona behartsuenei laguntzen jarraitzea espero dugu. Horretarako, denon konpromisoa behar dugu.", esan dute.

Mundukidek "positiboki" baloratzen du iazko lana. "Aurreko urteetatik lantzen ari garen proiektuetan garapen eta jarduera maila onak izan ditugu. Hain justu ere, Mozambikeko Marrupa, Montepuez eta Majuneko Programek; Brasilgo Paranako Programak; eta, Azukrearen Ministerioarekin batera Kubako Holguingo proiektuak", esan digu Mikel Gantxegik, Mundukideko zuzendariak.

Mozambiken hiru proiektu

Mozambiken hiru proiektu ditu Mundukidez, eta guztira 2.500 pertsonak dihardute lanean han. 2012 hasieran, beste proiektu batekin hasi dira. Oraingoz, azpiegitura muntatu eta antolatu dute.

Bestalde, iaz beste proiektu bat abiarazi zuten Brasilgo ipar-ekialdeko eskualde baten. "Sergipeko estatuan lanean hasi ginen. Dirulaguntza gutxitu izanagatik hango proiektua atzeratuta ibili da, baina badirudi arazoa konpontzeko bidean dela. Urte bukaeran lanak erritmo onean zebiltzan berriro", esan digu.

Arazoak izan dituzte baita Kubako proiektuarekin ere. "Arazoa normalizatu barik dago, baina aurten, arazorik ez izatea espero dugu", esan digute.

Azkenik, analisi eta identifikazio lanak egitea aurreikusten dute 2012an, Afrikako beste herrialde batean proiektu berri bati ekiteko.

Boluntario gehiago

Mundukide Fundazioaren egoitzan diharduen pertsona taldeaz aparte, 2011n langileen talde osoa aldatu da ordezkapenen eta lanean hasi berrien ondorioz. Aldaketa horiekin baina, langile horietako batzuk proiektu batetik bestera aldatu dituzte, eta, aurretik, Mundukiderekin beste proiektu batzuetan lan egindako pertsona batzuk berreskuratu dituzte. "Hainbat aldaketa egin ditugu, eta konturatu gara, bai lankidetzan bai gure proiektuetan, eskarmentu handia daukan pertsona talde bat dugula gurean; pertsona horiek, gainera, inplikazio eta konpromiso maila handia daukate eta gurekin hainbat urte egoteko prest daude. Gure misioan sinesten dute", azpimarratu digu Gantxegik.

Hori horrela, euren hurrengo erronka boluntarioetan zentratuko dute. " Mundukiden 30 boluntario ditugu eta bakoitzak bere bete beharrak eta zereginak ditu. 2012rako helburuetako bat boluntarioen parte-hartzea hobetu eta handitzea da. Euren laguntza ere ezinbestekoa da aurrera egiteko. Euren konpromisoa asko eskertuko dugu", esan digu.

Konpromisoa

Krisian egonda ere, Mundukide Fundazioak egoera ekonomiko "positiboarekin" bukatu du urtea. " Kooperatiben laguntzari, GKE laguntzaileei, norbanakoei eta lortu dugun dirulaguntzen gestioari esker, urtea jarduera guztiei eutsiz eta egoera ekonomiko positibo batekin bukatzea lortu dugu. Kooperatibek 400.000 eurotik gora jarri zuten iaz. Eskerrak eman beharrean gaude. Gure laguntzaile eta kolaboratzaileek gure proiektuan sinesten dute, eta erabateko konpromisoa dute gurekin".

Mundukidek Lugendan duen proiektuan, hango bizilagunekin. | MUNDUKIDE

MIKEL GANTXEGI | MUNDUKIDE FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

"Krisia ikusita, indarrak eta dirua neurtu egin ditugu azken urteetan"

GOIENA

2012a urte gogorra izango dela esan duzue?

Bai, proiektuak finantzatzeko laguntza gutxiago eta txikiagoak izango dira. Guk dirulaguntza jasotzen dugu Madrilgo Gobernutik, enpresa pribatuetatik, Eusko Jaurlaritzatik... Gehienek murrizketak egin dituzte, batez ere Madrilgo partidan. EAEn nahiko ondo mantentzen dira: Gipuzkoan apur bat jaitsi da, Bizkaian eta Eusko Jaurlaritzan azken hiru urteotan laguntza izoztuta dago eta Araban desagertu egin dira laguntzak.

Proiektuak garatzeko laguntzak falta direnean, zer egin daiteke? Zer egingo duzue?

Gure kasuan, daukagun diruarekin egin beharko dugu aurrera. Azken urteetako egoera ikusita, indarrak eta dirua neurtu egin ditugu. Dena den, beste laguntza batzuk topatzekotan gabiltzak. Gure proiektuak garatzen gabiltzan herrialdeek beste herrialde batzuetako dirulaguntzak jasotzen dituzte. Gure asmoa da horiengana heltzea. Adibidez, Mozambikek Frantzia, Suedia eta Alemaniatik jasotzen du laguntza. Bada, guk herrialde horiei eskatuko diegu laguntza.

Orain duzuen diruarekin aurtengo lanak estaliko dituzue?

Mundukideren gestio plana zentzu horretan antolatu dugu. Daukagun diruarekin martxan ditugun proiektuak garatuko ditugu. Gainera, beste dirulaguntza iturri batzuk topatzen ahaleginduko gara, datozen urtetan beste hainbat proiektu martxan ipini ahal izateko.

Gazte lokaletako suaren prebentzio kanpaina ipini du abian Aldundiak

Azken bost urteetan sua itzaltzeko 21 interbentzio egin dituzte, eta horri aurre egiteko Ordiziako Sueskolarekin elkarlana egingo du Diputazioak

M.B. | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak Ordiziako Sueskola Fundazioarekin elkarlanean, gazte lokaletan suaren prebentzio kanpaina ipini du martxan. "Kanpaina honen helburua, lokal hauetan bildu ohi diren gazteei istripuak ekiditeko kontuan hartu beharreko irizpideen berri ematea da. Izan ere, negua da urteko garai arriskutsuena, hotza dela eta erabiltzen diren berogailu sistemek sor ditzaketen arriskuen ondorioz", esan zuen aurkezpenean Zerbitzuetako foru zuzendari Maider Zigandak.

Informazioa zabaltzeko 2.500 liburuxka ale banatuko dituzte Gipuzkoako udaletara, hauek gazteen lokaletara bidera ditzaten. Bergarako Udaleko gaztedia teknikari Nagore Narbaizarekin berba egin dugu, eta esan digu "oraingoz" ez dutela liburuxkarik jaso.

Suteak murriztu

Azken bost urtetan 21 sute izan dira gazteek erabilitako egoitza, lonja edo txabolatan, gehienak neguan. Zigandak emandako datuen arabera koltxoi edo sofak erre izan dira halakoetan; bestetan hautsontzia zakarrontzian husteagatik edo bestelako zenbait prebentzio neurri ez hartzeagatik. Sute hauek gehienetan txikiak izan diren arren, zenbaitetan kalte larriak eragin dituzte etxeetan. "Kopuru hori murriztu nahi da oso eraginkorrak izan daitezkeen prebentzio neurriak ezagutaraziz", adierazi zuen foru zuzendariak.

DATUA

2.500

LIBURUXKA

Horiek dira Gipuzkoako udaletan banatuko dituzten infomazio-liburuxkak.

Sueskola 2009tik

Prebentzio kanpaina Sueskolarekin lankidetzan ipiniko dute. 2009an sortu zuen Aldundiak Sueskola Fundazioa, suteen prebentzio eta itzalketa alorreko prestakuntzan lan egiteko. Ordutik 4.000 pertsona baino gehiago trebatu ditu suteen prebentzio eta itzalketa alorrean.

Torturaren Kontrako Egunaren aitzakian, ikus-entzunezkoa

Gaur, otsailak 13, Torturaren Kontrako Eguna da. Hala, gai horren harira egindako dokumental baten emanaldia eta hitzaldia izango dira hilaren 15ean, Arrasateko Jokin Zaitegi aretoan, 19:00etan. *Tortura Euskal Herrian* du izena eta torturatuak izan direnen testigantzak batzen ditu.

Dirua lapurtu zuten Arantzazuko Sindika ostatuan egubakoitzean

Arantzazuko Sindika ostatuan lapurrak sartu ziren egubakoitzean. Tabernaren atzeko leiho txiki bat apurtu, eta barruan zeudela kutxa erregistratzaileko dirua hartu zuten, 1.000 euro inguru. Etxeko ordenagailua ere eroan zuten. Era berean, tabakoaren makinan ibili ziren.

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
Jardineta, 3
20600 Eibar

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
2011/2012
MATRIKULA LIBREA
Otsailaren 10etik martxoaren 1era
(15:00ak arte)

HIZKUNTZAK:
ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA

Matrikula egin nahi dutenek **Internetez bakarrik** egin ahal izango dute ***www.eoieuskadi.net*** webgunean.
Argibide gehiago: ***www.eoieibarheo.net*** webgunean edo **943 20 06 18** telefonoan.

Foru fondoari diru guztia aurten itzultzea iradoki dute

Aldundiak erabakita zuen zorra bueltatzeko modua, baina beste proposamen bat egin dute lau udalek, eta hura "aztertu" egingo dute orain arduradunek

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Udal Finantzaketa Foru Fondoari udal bakoitzak zor diona noiz eta nola bueltatuko dion ez da oraindik lotu. Izan ere, joan den egubakoitzean Foru Aldundiak jakinarazi zuen proposamen berri bat zegoela eta hura "aztertuko" zuela. Proposamen hori Donostiako, Errenteriako, Irungo eta Hondarribiko udalek egin dute, eta honakoa da: udalek Foru Fondoari bueltatu behar diotena aurten bueltatzea, lau epetan eta epe bakoitzean bueltatzen denari %25 deskontatzea.

Ogasun Departamentuak egubakoitzean argitaratutako prentsa-ohar baten gogorarazten duenez, bi bilera izan ditu alkate guztiekin, bata irailean eta bestea otsailean. "Bi aldietan zerga-bilketaren bilakaeraren berri eman zien Aldundiak: 2011ko aurrekontuetan aurreikusitako kopuruekiko desbideratze esanguratsua nabarmendu zuen, eta horrek Foru Funtsaren itzulketan izango zuen eraginaz ohartarazi zien", esaten du. Ogasunak gogora ekartzen du irailean aurreratu ziela "ziurrenik desbideratze horren %50 otsailean bertan deskontatuko zela".

"Orain mahai gainean jarri den proposamena inork ez du aurkeztu aurreko bi bileretan", dio Foru Aldundiak. Halaber, uste du egubakoitzeko planteamendua "egokia dela kontrolik gabeko zorpetzearen arazoari behingoz aurre egiteko. Hala ere, jakin badaki udal planteamendu exijentea dela, eta batzuentzat zailtasunak izango direla".

DATUA

4,5

MILIOI EURO

Behin-behineko datua da, baina gutxi aldatuko da: bailarako zortzi udalek 4,5 milioi bueltatu beharko dizkiote Foru Fondoari.

Erdia, hilaren 25ean

Formula bat edo beste bat aplikatu, udalendako exijentea izango dela argi dago.

Egubakoitzeko proposamen horren aurretik, Foru Fondoak gutun bidez jakinarazi zien Gipuzkoako udal guztiei zein zen bakoitzak Foru Fondoari 2011ko likidazioarengatik itzuli beharko gutxi gorabeherako kopurua –datua behin-behinekoa da, eta bihar, martitzena, Finantzen Euskal Kontseilua batzartu eta gero jakingo da behin betikoa– eta zelan itzuli beharko zen: zor osoaren erdia inguru, otsailaren 25ean. Egun horretan zenbat itzuli beharko zuen –hori bai, behin betiko datua– ere jakinarazten zion bakoitzari: Debagoieneko zortzi udalen artean, 2.136.100,43 euro.

Nondik ordaindu baduten udalek gainerako erdia ere aurten ordaintzeko eskatzen zien Foru Aldundiak gutun horretan, beste hiru epetan: maiatzaren 25ean, abuztuaren 25ean eta azaroaren 25ean. Horren premia duten udalek, bestalde, mailegua eskatzeko aukera izango lukete, Foru Aldundiak finantza-erakundeekin egindako hitzarmen marko baten barruan. Mailegu hori 2013an eta 2014an itzuli beharko dute, eta bermea Finantzaketa Fondoa bera izango da. Mailegua lortzeko, udalek saneamendu plan bat eta "laster zehaztuko diren baldintzak" bete beharko dituzte.

Azkenik, larrien dauden udalendako "neurri bereziak" iragartzen ditu Aldundiak.

Ikusteko dago, orain, egubakoitzean jakinarazitako proposamenak aurrera egiten duen eta, horrela baldin bada, zelan eragingo duen plangintza horretan.

Gutxi gorabeherako datua

Debagoieneko zortzi udalek, denetara, 4,5 milioi pasatxo inguruko zorra dute. Herriz herri, hauxe da, gutxi gorabehera, ordaindu beharko dutena (kopuru guztiak eurotan daude): Antzuolak, 153.190,22; Aretxabaletak, 475.229,25; Elgetak, 79.357,77; Eskoriatzak, 289.900,71; Arrasatek, 1.573.716,48; Oñatik, 777.308,18; Leintz Gatzagak, 27.858,08; eta Bergarak, 1.048.112,29. Eudeli dagokion zatia (77.288,49 euro) gehituta, denetara, 4.501.961,47 euro dira.

Alkateak 'Magazinea'-n

Gaur, astelehena, Oñatiko eta Eskoriatzako alkateak Goiena *Magazinea*-n izango dira, Ekonomia tartean, gai horretaz berbetan.

Gipuzkoan 46 lan elkartuko kooperatiba sortu ziren iaz

L.K. | ARRASATE

Hego Euskal Herrian 111 lan elkartuko kooperatiba sortu ziren iazko urtarrilaren 1etik irailaren 30era arte. Gehienak Gipuzkoan sortu ziren: 46. Gipuzkoaren atzetik, Bizkaian sortu ziren lan elkartuko kooperatiba gehien: 39 izan ziren. Gero, Araban (17) eta Nafarroan (9). Espainiako Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak batutako datuak dira.

Lan elkartuko kooperatibak industria, zerbitzu eta eraikuntza sektoreetakoak dira.

"Eredu erakargarria da"

Erkidek, Euskadiko Lan Elkarteen, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioak jakinarazi ditu datu horiek. Espainiako erkidego guztietakoak eman ditu, eta nabarmendu du "Euskadi, 102 lan elkartuko kooperatiba berrirekin, liderra" dela, "Andaluzia, 86 kooperatibarekin, eta Murtzia, 68rekin, jarraian datozela", esan du Erkidek. Urte gehienetan, EAEn eratzen dira kooperatiba gehien; azken urteotan, inoiz Murtziako erkidegoan bakarrik sortu izan dira gehiago.

Erkide pozik agertu da iazko kopuruarekin: "Enpresa kooperatiboaren ereduak euskal ekintzaile berriendako zein erakargarria den erakusten du", baloratu du.

Gipuzkoako enpresaburuen presidentea, GOIENAn

Etzi, eguaztena, Goiena *Magazinea*-n, Gipuzkoako enpresaburuen elkarteko (Adegi) presidentea, Eduardo Zubiaurre, elkarrizketatuko dute. Espainiako Gobernuaren lan -erreformaren, Adegik egoera ekonomikoaren gainean egin berri dituen iragarpenen eta beste gai batzuen gaineko galderak erantzungo ditu Zubiaurrek.

Internazionalizatzeko 19 proiektuk 35 milioi euro jaso dituzte

Adegik eta Banco Sabadell Guipuzcoanok irailean berritu zuten iaz Gipuzkoako enpresei nazioartera irteten laguntzeko hitzarmena. Horren bidez, bankuak 120 milioiko laguntza fondoa sortu zuen. Orain, lau hilabete eta gero, Adegik jakinarazi du dagoeneko fondo horretako 35 milioi erabili direla, Gipuzkoako enpresen 19 proiekturako.

Leire Solozabal eta Estiñe Astorkia | Artez kooperatibakoak

"Kooperatiba izatea ez da bermea, baina bai oso oinarri ona"

Forokoop-en eskutik, 'Kooperatiben azala eta mamia' jardunaldia egin zuen Artez-ek

Estiñe Astorkia eta Leire Solozabal. | LEIRE KORTABARRIA

L.K. | ARRASATE

Artez Euskara Zerbitzuko Leire Solozabal eta Estiñe Astorkiak *Kooperatiben azala eta mamia* jardunaldia egin zuten Bizkaiko Foru Aldundian, Forokoop-en eskutik. Euren iritziz, kooperatiba "egitura aproposa" da norbera eta ondokoa "hazteko".

Kooperatiba izatea erabaki zenuten Artez-en, ezta?

Leire Solozabal: Bai. Artez 90ean sortu zen ondasun erkidego moduan. 1999an , kooperatiba bihurtzeko aukera izan genuen, eta ondo ikusi genuen. 14 urte bete berri ditugu eta 20 bazkide langile gara.

Zergatik erabaki hori?

L.S.: Interesgarri ikusi genituen kooperatibak eskaintzen zituen baldintzak: autogestioa, lana, jabetza... 14 urte hauetan gure lan egiteko modua aldatu egin da; baina, batzar nagusia organo gorena izanda, erabakietan parte hartzeko aukera dugu, eta emaitzak, positibo zein negatiboak, bazkideen artean banatzeko aukera. Formula eta egitura interesgarria da kooperatiba.

Jardunaldian esan zenutenez, kooperatibaren azala bere egitura da; eta pertsonak, mamia. Zergatik?

Estiñe Astorkia: Kooperatibak, egitura juridikoak, aukera ematen du proiektu konpartituak garatzeko, baina pertsonok egiten dugu azalarekin bat edo ez. Pertsonei protagonismoa ematea erabaki genuen guk.

Diozue, aldaketa posible izateko, kooperatiba dela egitura onena.

L.S.: Oinarri ona ematen du, gure ustez. Hiru kontzeptutan laburtu dezakegu oinarri hori: inplikazioa –jabetzak norbera inplikatzera lagun dezake–; erabakiak hartzeko ahalmena ematen du; eta emaitzetan ere parte hartzeko aukera.

Kooperatibaren barruan norbera nola hazi daitekeen ere azaldu zenuten. Zeintzuk dira gakoak?

E.A.: Gu, aldaketa prozesu horretan, eredu klasikoan lan egitetik –organigrama finko bat, bakoitzak bere zereginak oso mugatuta izatea–, norbere autonomiara bidea egin genuen. Eta bi gako daude: jokatzeko kantxa jaso eta eman, norbere garapen profesionala eta pertsonala lantzeko aukera izatea, eta aukera hori albokoari ere hazten laguntzeko erabiltzea. Norbere erakundean, nahiz eta erabakiak hartzeko ahalmena izan, norbere gotorlekurako erabiltzen bada ahalmen hori, norbera beharbada haziko da, baina albokoari ere kantxa emanez gero, biak gehiago haziko dira.

"Bi gako daude: kantxa jaso eta eman, norbera eta ondokoa hazteko"

Kooperatiba sortu edo kooperatiba eredura pasatu nahi duenari ze gomendatzen diozue?

L.S.: Kooperatibak gauza asko eskaintzen ditu: autogestioaren bidetik, lana eta jabetza. Hori bakarrik bermea da? Ezetz esango genuke. Baina horri beste gauza batzuk eransten badizkiogu, pertsonengan oinarritutako aldaketa eta lidergo–autonomia lantzen bada, kooperatibaren oinarria oso ona eta aproposa izan daiteke.

Igor Leturia | BerbaTek ikerketa-proiektuaren koordinatzailea

"Hizkuntza, ahots eta multimedia arloetan ezin gara lokartu, teknologiak azkar aldatzen dira-eta"

- Azken hiru urteotan, euskararendako hizkuntza-teknologiak ikertu eta garatu dituzte
- Ikerketa horren emaitzak ezagutarazi dituzte egunotan; pozik daude egindako lanarekin

MIRIAN BITERI | ARRASATE

BerbaTek ikerketa-proiektuaren emaitzak aurkeztu zituzten joan den astean Elhuyar Fundazioaren egoitzan. Egitasmo horren koordinatzaile Igor Leturia arrasatearrak hizkuntza, ahots eta multimedia teknologian euskara "atzera geratu ez dadin" egindako lanaz egin digu berba.

Zer da BerbaTek?

Hizkuntza, ahots eta multimedia teknologien inguruko ikerketa proiektua da; teknologia horiek bereziki euskararako landu dira. Bost kideko kontsortzioak eroan du aurrera proiektua (Elhuyar Fundazioko I+G taldea, Euskal Herriko Unibertsitateko IXA eta Aholab ikerketa-taldeak, Vicomtech zentro teknologikoa eta Tecnalia fundazioa) eta hiru urte iraun du, 2009tik 2011ra.

Zein da helburu nagusia?

Euskararendako hizkuntza, ahots eta multimedia-teknologiak ikertzea eta garatzea, etorkizuneko mundu mugikor, beti konektatu eta informazioz betean gure hizkuntzak presentzia izan dezan. Interneteko bilatzaileak, ahotsez emandako aginduei kasu egiten dieten telefono mugikorrak, itzulpen automatikoa, web semantikoa... Horiek guztiak dira teknologia horien adibide. Baina, orokorrean, horrelakoak ingelesa eta beste hizkuntza handietarako soilik egoten dira garatuta. Euskarak etorkizunean bizirik irautea nahi badugu, derrigorrezkoa da horrelakoetan ere egotea, baina konpainia handiek ez dute interesik euskara horietan txertatzeko, edo, izango balute, ez dute euskara horietara egokitzeko kostua euren gain hartu nahi.

Hiru urte hauetan zeintzuk izan dira ikerketa-lerroak?

Hiru urte iraun badu ere, ez da lehen aldia kontsortzioko bost kideok elkarrekin ikertzen duguna. Lehenago AnHitz proiektuan aritu ginen 2006-2008 artean, eta aurretik Hizking XXI proiektuan 2002-2004 artean. Erakunde asko dira, nor bere espezialitatearekin, eta ikerketa-lerroak ugariak izan dira: testu-analizatzaileak, corpusak, ahotsaren sintesia, ingurune birtualak, hiztegiak automatikoki eraikitzea, itzulpen automatikoa, web semantikoa, galderak erantzuteko sistemak, avatarrak, ontologiak, ahotsaren ezagutza, bilatzaile eleanitzak, elkarrizketa sistemak, ahotsen transformazioa, laburpen automatikoa, corpusak webetik automatikoki eraikitzea, ariketa eta adibideak testuetatik automatikoki sortzea, testuen subjektibotasuna eta polaritatea aztertzea, dokumentu eleanitzak semantikoki erlazionatzea... Denak aipatzea ezinezkoa da, zehaztasun gehiago BerbaTek proiektuaren webguneko ikerketa-lerroen atalean ikus daiteke, baita *www.zientzia.net/artikuluak/berbatek-euskarazko-hizkuntza-teknologiak-martxan/* orrian ere.



Igor Leturia arrasatearra. | IÑIGO IBAÑEZ

"Konpainia handiek ez dute interesik euskara horietan txertatzeko"

"Egindako lanari esker, euskarak asko aurreratu du teknologia horietan"

Joan den astean horren gaineko emaitzak aurkeztu dituzue. Gustura egindako lanarekin?

Bai, pozik egoteko moduan gaudela uste dut. Egindako lanari esker, euskarak asko aurreratu du teknologia hauei dagokienez. Arlo batzuetan aurrerapauso handiak eman dira ikerketa mailan; beste arlo batzuk, berriz, erabiltzeko moduan daude, eta aplikazioak egin ere egin ditugu. Aplikazio horietako batzuk webgunearen aplikazioen atalean ikus daitezke.

Hiru demo ere garatu dituzue. Zertan datza bakoitza?

BerbaTek ikerketa-proiektua bada ere, gure nahia ez da ikerketa horiek kaxoi batean ahaztuta gelditzea, landutako teknologia horiek aplikazioa izatea baizik. Horregatik, hiru demo muntatu ditugu hainbat teknologia konbinatuta, zein gauza erabilgarriak egin daitezkeen erakusteko. Eta demoak hizkuntzen industriaren hiru azpisektoreetako bakoitzerako egin ditugu: bat itzulpenen arlorako (itzulpena, interpretazioa, bikoizketa...), beste bat edukien alorrerako (argitaletxeak, komunikabideak...) eta beste bat irakaskuntzaren alorrerako (hizkuntzen irakaskuntza, irakaskuntza arautua, akademiak...).

Itzulpenen arlorako egin dugun demoa dokumentalen bikoizketa automatikoarena da. Filmak automatikoki bikoiztea erronka zaila da, oraingoz (ahots asko, lagunarteko hizkera, abiadura ezberdinak...), baina dokumentalak (edo dokumental mota bat, hizlari bakarrekoa eta *off*-eko ahotsarekin, non ezpainekin koordinazioa ez den beharrezkoa edo garrantzitsua...) automatikoki bikoizten dituen demo aplikazio bat egin dugu. Gaztelaniaz dagoen dokumental bat eta han esaten denaren transkripzio bat emanik, azpititulu-fitxategi bat sortzen da (transkripzioa, baina esaldi bakoitzaren hasierako eta bukaerako uneekin) eta itzulpen automatiko bidez euskarara itzultzen dira azpitituluk, gero ahots-sintesi bidez euskarazko audioa sortzeko.

Edukien arlorako, zientzia eta teknologiako bilatzaile semantiko multimedia bat egin dugu. Bilatzaile horrek zientzia eta teknologiako WNTerm ontologia espezializatua du oinarri (zientzia eta teknologiaren alorreko kontzeptuak semantikoki erlazionatuta ageri diren sare bat, azpiklaseekin, sinonimoekin eta abar), eta Elhuyarren zientzia eta teknologiazko eduki audiobisualaren gainean bilatzen du. Termino bat bilatzen denean, ontologiaren bidez termino horren sinonimoak, azpiklaseak edo superklaseak dituzten edukiak ere bila daitezke. Gainera, emaitza irudi bat denean, antzeko irudiak ere ematen ditu.

Azkenik, irakaskuntzaren alorrerako, hizkuntzen irakaskuntzako tutore pertsonal baten demoa egin dugu. Tutore hori emozioak adieraz ditzakeen 3Dko pertsonaia bat da, euskaraz mintzatzen dena eta euskaraz ahoz esaten zaiona ulertzen duena. Eta tutoreak hainbat gauzatan lagun gaitzake: automatikoki sortutako gramatika-ariketak (aditzak, deklinabidea...) edo ulermen-ariketak (testu batean hutsuneak betetzea, hainbat aukera emanda) egin ditzakegu, ahoskera ebaluatzen digu, edo idazketarako laguntzak ematen ditu (aditzen jokabidea, zenbakien idazketa, hiztegi-kontsultak...).

Demoak gure webguneko demoen atalean ikus daitezke.



Irakaskuntza tutorearen demoa. | ELHUYAR ALDIZKARIA

Hizkuntza-teknologietan zer nolako eragina izango du ikerketak?

Ikusi beharko... Gu ikerketara dedikatzen garen erakundeak gara, eta teknologia hauek merkaturatzea gure esparrutik kanpo dago. Hala ere, kasu askotan, teknologia batzuk online jarri ditugu jendeak baliatzeko, eta demoak ere egin eta ezagutarazi ditugu jendeak eta enpresek jakin dezaten zer egin daitekeen teknologia horiekin. Baina horraino irits gaitezke... Orain, enpresek edo erakundeek eman behar dute hurrengo pausua eta apustua egin teknologia hauek erabili eta merkaturatzeko. Guk gustura asko hartuko dugu horretarako edozein proposamen.

Hemendik aurrera zer?

Euskarak hizkuntza, ahots eta multimedia teknologien arloan asko aurreratu badu ere, asko dago oraindik egiteko: hainbat arlotan oraindik agian ez dago beste hizkuntzen mailan, badagoenetan ere ezin gara lo gelditu teknologiok oso azkar eboluzionatzen dutelako, eta arlo berriak sortzen joaten dira, gainera. Lanean jarraituko dugu horren garrantzitsua den alor hauetan euskara atzean geldi ez dadin.

ZABALIK

JUAN MARTIN ELEXPURU
http://goiena.net/iritzia/

Aratostiak eta hartza

Aurreko belaunaldixak *Aratostiak* berbia erabiltzen zeban, baiña guk *Karnabalak* entzun izan dogu gehixago. Ba Aratostietan hartza izaten da protagonista nagusixa leku askotan. Zergatik ete?

Garbi dago hartzari errespetua jakola, miresmena be bai; animalixa totemikoa da, adiskidia, babeslia, zeozergatik lotaratzen dira umiak hartz panpiñekin. Beste gauza bat da zela tratau daben gizakixak: gaizki, ixa esterminau egin dittu eta. Roslyn Frank irakasle estatubatuarrak diño (Bergaran hitzaldi interesgarrixa emon zeban igaz beste gai baten gaiñian) Europako kultura zaharrian hartza gizakiaren gurasotzat hartzen zala. Ez gara jangoikuak egindakuak edo Adan eta Ebaren ondorenguak; hartzagandikuak gara. Bada Euskal Herrixan Hamalau-ren ipuiña: behin hartzak emakume bat sekuestrau ei zeban, harekin ume bat euki zeban erdi hartz erdi gizaki zana: Hamalau. Oso indartsua eta argixa ei zan. Hainbat bersiño dago, eta esaerak be geratu dira Hamalauren inguruan: Hori Hamalau baiño indartsuagua da, edo argixaua, edo Hamalau be ez gu baiño hobeto, eta holakuak.

"Europa zaharreko Karnabalak alkarren antz haundixa dauke"

Europa osuan agertzen dira antzerako leiendak; eta hartzak be bai Karnabaletan. Sardiniako islan, esate baterako, ez ei da sekula hartzik bizi izan, baiña hala eta be hartza agertzen da. Diñuenez, Europa zaharreko Karnabalak alkarren antz haundixa dauke.

Hain urrin joan barik, Eibarren egiten dan Aratostietako koko-dantzan be ibiltzen da hartza, eta zer esanik ez Ermuan, nun Hartza Eguna egitten dan Eguen Zuri bixamonez. *Txindurri* bertsolari ermuarrak asmautako bertsuak kantatzen dira. Hola da hasieria: *Patxi Urkoko etorri jakun/ lehengo egunian esaten/ animali bat han ebillela/ bazter guztiak apurtutzen/ eskopetekin hara joateko/ prizti hori harrapatzen...* Osua entzun nahi dabenak: *http://www.ahotsak.com/ermua/pasarteak/erm-002-012/*

USTEAK USTE

JULEN IRIONDO | 'jiriondo@goiena.com'

Hezkuntza konstituzionala

Ogia besapean etortzen ziren orain arte umeak. Raxoiren gobernuak kendu egin du Hiritartasunerako Hezkuntza ikasgaia, eta jarri Hezkuntza Zibikoa eta Konstitucionala. Ohiko galdera-erantzunak izaten dira, bat ume zain dagoenean: "Zer nahi duzu izatea, neska ala mutila? Berdin dio, datorrela ondo!". Galdera berari horrela erantzun beharko diogu aurrerantzean: "Berdin dio, baina datorrela konstituzionala, demokratikoa". Duela gutxira arte, nengoen harategian xerra bat erosteko erosleari "demokrata" izaera frogaraziko zitzaiola laster. Ba ze arraio, hori baino errazagoa izango da aurrerantzean ume guztiak besapean Konstituzioaren ale bat dutela badatoz!

KALE INKESTA

Ikusiko al dugu inoiz Errege-etxekoren bat espetxean?

DANI LARREA
ARRASATE

"Horrela izatea nahi dudan arren, Espainian gauzak asko aldatu beharko dira hori ikusteko. Baina ea denon artean lortzen dugun".

MARI CARMEN ROMERO
ARRASATE

"Ez dut uste, inondik inora ere ez. Uste dut babestuta daudela. Ni neu monarkiaren kontra nago; kenduko balute, askoz hobeto".

MONTSE ROLDAN
ARRASATE

"Ez, nire ustez pribilegioak dituzte. Eurek egindakoa besteok egingo bagenu, joango ginateke. Baliabide gehiago dituzte".



JUAN JOSE ARANBURUZALA
ARRASATE

"Ez, justiziaren aurrean ez gara denok berdinak, ez errege-etxekoak eta ez beste batzuk. Ondo iruditu ez arren, horrela jarraituko du".

HANDIK ETA HEMENDIK

Etorkizuna elektrikoa omen

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatino/

Ibil-en egitasmoak aurrera darrai, apurka-apurka eta isilik-misilik. Honezkero 109 argindar kargaleku ditu han-hemenka sakabanatuak Euskal Autonomia Erkidegoan zehar (14 Araban, 56 Bizkaian eta 39 Gipuzkoan). Aurten beste 300 kargaleku jarriko dituzte abian, baita sei ordezkaritza irekiko ere Espainian barrena. Honen guztiaren azpiegituraren kontrola Barakaldotik egingo da, Ibil-ek BEC-en duen ardatz nagusitik.

Hala ere, hau guztia adierazgarria izan arren, ez da inondik ere garrantzitsuena.

Azpimarragarriena horren nabarmen ikusten ez dena da: estrategia, softwarea, programa, tripak alegia.

Urtebete luze daramate hainbat euskal enpresak (Ingeteam, ZiV, Euskaltel, Tecuni, Elecnor, Eroski eta Thales, tarteko) elkarrekin lanean, Europan behintzat batere erreferentziarik ez duen kontrol-sistema burutzen eta lantzen.

Oraingo honetan erronka ez da merkatuan dagoen zerbait hobetzea, inon ezaguna ez dena asmatzea baino.

Erabat garrantzitsua da honelako egitasmoa estreinako abian jartzeko herri-erakundeen babesa eta ezinbestekoa, berriz, Repsol bezalako nazioarteko konpainiaren sustapena, muga hurbilen gainetik munduan zehar barreiatzeko.

Egia esan, merkatua izugarri txikia da oraindik.

Esaterako, iazkoan 70 ibilgailu elektriko baino ez dira erosi Euskal Autonomia Erkidego osoan: 6 moto, 9 furgoneta eta 55 beribil.

Eta horietarik %74 Ibil-en bezeroak dira.

Hala ere, etorkizuna elektrikoa omen da.

Omen.

Segizioa

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Hildakoaren atzetik doan lagun taldeari deitzen zaio segizioa < (seizia, gurean).

Eta, hedaduraz, baita hiletara urrutitik etorritako lagunei ehorzketaren ondoren ematen zaizkien mokadutxoari eta tragoari ere.

Axentxio Ondarzabal hil da, bere organo oparoenak —bihotzak— *honaino iritsi gaituk, amigo!* esanda.

Aktibitate kulturala izan zuen garaiko ikasketa laburrek eman ez zioten jakin-min kulturala berdintzeko modua.

Sortzaile jendea estimatzen zuen, beti zeukan eskua zabalik, eta lagun asko egin zuen, bai idazleen artean, bai artista plastikoen edo musikarien artean ere. Axentxio eta lagunak.

Lagunen batek edo bestek huts egingo zion Axentxiori.

Axentxiok nekez lagunari.

Eta halaxe hil da: lagun batzuekin bazkaltzera joateko prestaketan eman zion ondoezak.

Atzoko azken agurraren ondoren, berak benetan estimatuko zukeen moduko segizioa egingo diogu hainbat lagunek gaur eguerdian. Mahai baten bueltan.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Xabier Urtzelai
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FARMAZIA

AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL
Oñati / Kale zaharra,1 / 943 78 01 22
amaiaigartua1@gmail.com

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Gremioen gida



Jatetxeen gida

NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

Osasun zerbitzuen gida

Profesional liberalen gida

Iragarkia jartzeko, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

HERRIAK

OÑATI

Argentinako edukiontziak, arriskuan

- Hango gobernuak debekatu egin du erabilitako arropa eta oinetakoak hara bidaltzea
- Hermansoloña GKEk lanean dihardu eurek egiten duten lana "beharrezkoa" dela erakusteko

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Hermansoloña GKEko kideak arduratuta daude. Azken hamar urteotan, materialez betetako 31 edukiontzi bidali dituzte Argentinara. Bada, bidalketa horiek arriskuan daude, hango Gobernuak hartutako erabaki baten erruz: ezin dira erabilitako arropa eta oinetakoak Argentinara inportatu. "Hango Gobernuak esan du ezin daitezkeela erabilitako arropa eta oinetakoak bidali. Guk uste genuen debekua elkartasunezko inportazioetarako bakarrik zela, baina esan digute debekua orokorra dela. Argentinara inportatzen diren arropa eta oinetakoak merkatuetan saltzen dituzte gero, eta hori ekiditeko hartu dute erabakia", esan digu Hermansoloña taldeko Jose Antonio Urteagak.

Hori horrela, otsailean ez dute materialik jasoko, ez edukiontzi zurian ezta lokalean ere."Argentinara bidaltzen dugun edukiontziaren %70 erabilitako arropa eta oinetakoak dira. Hori horrela, debeku honek bilketa etetera baldintzatzen gaitu. Lokala beteta daukagu, eta kaxak nora bidali behar ditugun jakin arte, ezin dugu gehiagorik jaso. Lanean segituko dugu daukagun materiala antolatzen", esan digu.

Jose Antonio Urteaga, elkartasun taldeak zuen lokalean, arropa mordoarekin. | MIREIA BIKUÑA

Beharra dutenendako

Hermansoloña GKEko kideek, lagunek, bazkideek eta boluntarioek badakite zein den egoera, eta kezkatuta daude. "31 edukiontzi bidali ditugu, eta debekuak ezustean harrapatu gaitu. Gogorra izan da, eta han ditugun kontaktuek esan digute egoera konpontzea zaila izango dela. Eurek ere ez digute edukiontziak bidali ahal izateko bermerik ematen", dio Urteagak.

Zer gertatu da Argentinan halako erabakia hartzeko?: "Gobernuko kideak aldatu egin dira, baina presidentea bera da: Cristina Fernandez de Kirchner. Eta jakin badakigu Jose C. Paz ezagutzen duela zortzi bisita egin dituelako. Proiektu asko ipini dituela abian han. Hori horrela, badaki zein den hango egoera eta zeintzuk diren dituzten beharrak. Dena den, Argentina hazi egin da ekonomikoki eta indarra hartu du. Baina, era berean, pobrezia handia dauka; batez ere, Buenos Aires inguruan eta kanpoaldeko probintzietan: Jujuy, Chaco, Misiones, Salta... eta komunitate indigenetan", dio.

Aurrerantzean zer?

Hermansoloña GKEk 10 urte bete zituen 2011ko urrian. Hasieratik, Argentinara bidaltzeko materiala bildu dute. Oraingo debekuak bere horretan jarraitzen badu, Bidebarrietako lokalean duten materialarekin zer egin erabaki beharko dute. "Argentinakoa bertan behera geratzen bada, beste elkartasun proiektu batzuekin egingo dugu lan. Haitiko proiektuan egiten dugu lan Beasaingo Elkarlanean erakundearekin; Maliko proiektuan Joxan Larrañaga parrokoarekin; Kongokoan Beasaingo taldearekin... Gainera, Oñatiko Caritasekin lan egiten dugu, baina, hemen dugun material karga ikusita, akaso, Gipuzkoako Caritasekin elkarlanean hasi beharko dugu", dio.

Batera edo bestera, baina orain arte jasotakoa pobreendako edo beharra dutenendako izango dela argi utzi gura dute: "Herritarrak lasai egon daitezela. Lokalean jaso dugun materiala behar den lekura bidaliko dugu. Ez da alferrik galduko, eta beharra duten pertsonengana helaraziko dugu. Nora bidaltzen dugun esango dugu", esan digu Urteagak.

DATUA

31

EDUKIONTZI

Horiek dira orain arte Argentinara bidalitako edukiontziak.

ARGENTINAKO PROIEKTUAK

NON ETA ZER*	BIDALTZEN DEN MATERIALA
JOSE C. PAZ	
Rallito de Luz (150 gazte baino gehiagoko zentroa)	Jostailuak, eskolako materia, umeendako eta helduendako arropa.
Estrella Roja (irakaskuntza zentroa)	Jostailuak, Ulmako kamisetak eta umeendako arropa.
Juan XXII (haurtzaindegia)	Artilezko jantziak.
Bichito de Luz (jantoki komunitarioa eta eskola laguntza)	Jostailuak eta eskolako materiala.
JUJUY ESKUALDEA	
Lurralde Indigenak	Haurrendako arropa eta oinetakoak, helduendako neguko arropa eta eskolako materiala.
Luis Arregi (Probintziako hiru espetxe)	Helduendako arropa eta oinetakoak eta gazteendako kirol oinetakoak.
SALTA PROBINTZIA	
Obra Social, Antonio Mallea (agustindarrak)	Helduendako arropa.

* Negritan eta letra larriz lekua. Letra txikiz proiektua eta azalpena.

ITURRIA: HERMANSOLOÑA

ESANAK

"Erabilitako arropa eta oinetakoak ezin ditugu bidali"

"Argentinara ez bada, beste lekuren batera bidaliko dugu"

JOSE A. URTEAGA | HERMANSOLOÑA

Hermansoloñako kideak Aprodi erakundeko kideekin, Argentinan. | M.B.

Hamar urte bete dituen elkartasun taldea

Lehen bidalketan 60 bat kaxa bidali zituen Udalak Argentinara. Bide hari heldu zion herritar talde batek eta hamar urteko ibilbidea egin dute. Urtero hiru edukiontzi bidali izan dituzte. "Hainbat urtean elkartasun talde moduan lan egin ondoren, gobernuz kanpoko erakunde bilakatu ginen. Hamar urte beteta, gure asmoa da Eusko Jaurlaritzan erakunde publiko moduan erregistratzea guk egindako proiektuak desgrabatzeko", esan digu Jose Antonio Urteagak.

ARETXABALETA

Arrisku-prima ahaztu barik, Txapel Txinek Aratusteetarako deia egin du

Iker Altunaren torradak dira gozoenak; dagoeneko hiru bider irabazi du torrada lehiaketa

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Aratusteei ongi etorria egin zioten zapatuan Aretxabaletan. Goizean goiz hasi ziren hainbat koadrila motorrak berotzen, hamarretakoarekin eta ondorengo bazkariarekin. Potoloena, baina, arratsaldean iritsi zen: lehenengo Biribil Zirku taldeko kideek malabareak eta bestelakoak airean dantzan jarri zituzten; buruan txapela ikusgarriak zituztela mugimendu guztiak adi jarraitu zituzten umeek.

Horien ondotik, Txapel Txinen txanda heldu zen. Krisian egonda ere, Aratusteez gozatzeko deia egin zuen. Horren harira, "sekula bukatzen ez den kiroldegia" eta Loramendiren 25. urteurrena gogorarazi zituen, besteak beste. Horrekin batera, jakinarazi zuen kirurgia estetikoa egiteko asmoa ere baduela.

Iñaki Barrenetxearen txapela

Torrada leihaketako irabazleei ere saria eman zien: Iker Altuna eta haren seme Urkoren torradak izan dira goxoenak; bigarrenak, Basabe tabernakoenak; eta hirugarrenak, Espe Perezenak. Gainera, aurten, lehen aldiz, txapel onena ere saritu zuten: Iñaki Barrenetxearen txerritxo txapela izan zen irabazlea. Amaitu aurretik, txistorra eta torrada mokadutxoa eta sagardoa dastatzeko aukera izan zuten aretxabaletarrek.

Txapel Txin torrada eta txapel lehiaketako irabazleekin. | MIRIAN BITERI

Sagardoa, txistorra eta torradak ederrak zeuden. | MIRIAN BITERI

IRATI ETA ALAITZ
ARETXABALETARRAK

"Oso gustuko dugu Txapel Txin, urtero irteten gara hura ikustera eta baita kale ikuskizunean parte hartzera ere. Txapela jartzeko ohitura ere badugu".

NEREA ETA DANEL
ARETXABALETARRAK

"Txapela jantzi eta kalera irteten gara ondo pasatzera; egia esan, Txapel Txinen pregoiari kasu larregi ez diogu egiten. Txistorra ere gustura jaten dugu. Mozorroa gertu dugu".

BEÑAT ZAMALLOA
ANTOLATZAILEA

"Giro ona dago, jai herrikoia da eta koadrilak nahastuta ederto ibiltzen gara. Urtez urte gero eta jende gehiago irteten da; dagoeneko egonkortuta dago jaia".

IKER ALTUNA ETA URKO
TORRADA IRABAZLEA

"Pozik gaude, hirugarren aldiz irabazi dugu-eta lehiaketa. Torrada gozoenak egiteko sekretua dugu, baina ezin dugu esan. Giro ederra sortzen du Txapel Txinek".

IÑAKI BARRENETXEA
TXAPEL ONENAREN SARIA

"Ez nuen espero txapel dotoreenaren saria jasotzea; kasualitatez izan da lagun batek utzi egin dit-eta txapela, eta nik jantzi baino ez dut egin. Datorren urtekoa pentsatzen hasiko naiz".

ARRASATE

Aurrezteko, birziklatzeko, laguntzeko eta herria girotzeko azoka egin dute

Portaloira elkarteak euskal preso eta iheslarien aldeko VII. bigarren eskuko arropa azoka egin du

M.B. | ARRASATE

Poltsak hiru eurotan edo neska nahiz mutilendako kamisetak euro baten truke. Horiek dira, beste askoren artean, egunotan Arrasaten euskal preso eta iheslarien alde egin duten bigarren eskuko arropa azokara joan direnek aurkitu dituzten prezioak.

Txalapartaren doinuak atzean zituela, gustura topatu genuen zapatu eguerdian Luna Alvarez arrasatearra; bufanda bat gutxienez erosteko asmoa zuen. Egungo kontsumo gizartearen aurrean, horrelako azoketan erostearen alde azaldu zen, "aurrezteko, birziklatzeko, laguntzeko eta, bide batez, herria girotzeko" aukera eskaintzen dutelako.

Abenduan egitekoa zen Portaloira elkartearen euskal preso eta iheslarien aldeko VII. bigarren eskuko azoka, baina eguraldia zela-eta, oraingo asteburura atzeratzea erabaki zuten. Oraingoan ere ez dute zorte larregi izan, eta hotz handia pasa dute Herriko plazan izan direnek; hori, baina, ez da eragozpenik izan azoka bisitatzeko, eta asko dira zapatuan zein domekan azken hilabeteetan herriko hainbat tabernetan jasotako materiala erostera hurbildu direnak. Betiko moduan, batutako dirua euskal presoei laguntzera bideratuko da.

Osagarriek ere harrera ona izan zuten. | JULIO CALLEJA

ITSASO GALLASTEGI
SALTZAILEA

"Denetarik aurkitu dute azokan, hala nola, kamisetak, poltsak eta oinetakoak. Balorazio ona egiten dugu; salmentak ondo doaz eta eskaintzen ditugun produktuen artean, kamisetak dira ondoen saltzen direnak".

LUNA ALVAREZ
EROSLEA

"Oso ondo ikusten dut horrelako azokak egitea: batetik, dirua aurreztu daitekeelako arropa birziklatuz. Bestetik, lortutako dirua presoei laguntzeko erabiliko da-eta; horren harira, ezin dugu ahaztu gaur egun bizi dugun prozesua".

Ikastaroan parte hartu duten ikasleak, torradak frijitzen. | TXOMIN MADINA

ANTZUOLA

Torradak egiten ikasteko ikastaroa egin dute asteburuan Antzuolako gaztetxokoan

Hainbat neska-mutiko ibili dira ogi, esne, arraultza eta irin artean sasoi honetan hain ohikoa den gozokia nola egiten den ikasten

TXOMIN MADINA | ANTZUOLA

Urteko sasoi honetan gozoki tradizionalik egotekotan, torradak dira horiek. Egiteko errazak, eta jateko errazagoak. Horretan ibili dira asteburuan Antzuolako Gaztetxokoan: torradak nola egiten diren ikasten, eta behin egindakoan, jaten.

Ikasleak trebe

"Ogia esnetan busti behar da; ondoren, irinetatik eta arrautzetatik pasa; frijitu eta bukatzeko, azukrea tamainan bota behar zaio", azaltzen zuten Marta Sanchezek eta Olaia Gastiainek, zapatuan eta domekan egin den ikastaroan begirale lanetan ibili direnek. Bertan parte hartu duten gaztetxoak trebe ibili omen dira gainera begiraleen esanetan: "Iaz ere egin genuen, eta hori nabari da". Trebe bai, eta gogotsu ere esan daiteke baietz: Gaztetxokoko sukaldea, horrelakoetan gertatu ohi den moduan, hankaz gora; baina behin torradak zartaginetik pasa eta azukrea botatakoan, itxura ederra zuen platerean azken emaitzak.

Ikastaroan parte hartu dutenek izango dute aurrerantzean entretenimendua neguko arratsalde hotzetarako; bai entretenimendua eta baita askaria ere.

MIKEL ARREGI
ANTZUOLA

"Ideia ona da ikastaro hau. Gustatzen zaizkit torradak, bai egiteko eta baita jateko ere. Egiteko errezak dira; dena den, nik etxean ez dut torradarik egiten, afariak baizik".

EIDER ARANTZABAL
ANTZUOLA

"Iaz egin zen ikastaroan ere hartu nuen parte, berez, gaur etorri aurretik banekien torradak egiten. Etxean ere egiten ditut eta ez bakarrik sasoi honetan, bestela ere bai".

ANE CABRERA
ANTZUOLA

"Etxean ez dut gozokiak-eta egiteko ohitura handirik, ikastaroa gaztetxokoan antolatu dutelako etorri naiz. Aratuste inguruan egiten diren gozokiak dira eta nik ere, garai hauetan egiten ditut".



JON COTILLAS
ANTZUOLA

"Gehiago gustatzen zait torradak egitea, torradak jatea baino; erreza da, ez du aparteko sekreturik. Etxean ez dut egiten, ikastaroan egindakoak baina, onak irten zaizkigu".

ESKORIATZA

Fimo eta alanbrearekin, bitxi ikusgarriak

Eskoriatzako gaztelekuan egindako tailerrean material horiek nola erabili ikasi zuten

Tailerrean parte hartu zuten gaztetxoak, azalpenei adi. | TXOMIN MADINA

TXOMIN MADINA | ESKORIATZA

Eraztunak, lepokoak, belarritakoak... Koloretako fimo eta alanbreekin eta imajinazio apur batekin, bitxi ikusgarriak egin daitezke. Horixe da, hain zuzen ere, atzo Eskoriatzako gaztelekuan egon zen ikastaroan bertaratu ziren gaztetxoek ikasi ahal izan zutena: nola erabili fimoa eta alanbrea bitxiak egiteko.

Horretarako beharrezko den material guztia izan zuten eskura ikastaroan parte hartu zutenek. Josu Egia izan zen tailerrean bitxiak egiten ibili zenetako bat. "Lehenengo aldia da horrelako zerbait egiten dudana. Erreza den? Tira, egiten jakin behar da" kontatu zigun Egiak. Egindakoak norendako izango ziren galdetuta, gaztelekuan geratuko zirela erantzun zigun eskoriatzarrak: "oraindik ez ditut oparitzeko modukoak egiten".

Ez zen harritzekoa izango atzoko ikastaroan zehar egindako bitxiren bat bihar, San Balentin egunean opari bezala jasotzea norbaitek.

ARETXABALETA

JULIO CALLEJA

Bertso afari jendetsua Uratz-Alden

80 pertsona inguru bildu ziren egubakoitzean Uratz-Alde elkartean Loramendi euskara elkarteak antolatutako bertso afarian. Andoni Egaña eta Igor Elortza izan ziren bertsolari gonbidatuak, eta Degurixa izan zen protagonistetako bat, bertso askotan egin zioten eta aipamena. Goizeko ordu txikiak arte luzatu zen afalostea.

Alokairurako eskaintza iragartzen duen letreroa etxe baten fatxadan. | U.M.

Alokairua ordaindu ahal izateko laguntza eskaera gora doa

Arrasateko Udalak ahalegin guztiak egingo ditu geroago eta handiagoak diren beharrei erantzuteko

UBANE MADERA | ARRASATE

Krisi garaiotan askok eskertuko dituzten berbak esan ditu Amaia Larrañaga Gizarte Ongizate Saileko zinegotziak: "Arrasateko Udalak ez du murrizketarik egin Ongizate Sailean. Garbi dago beharra duten pertsonei erantzuna eman behar zaiela Udaletik, eta batez ere baztertze arriskuan dauden pertsonei arreta berezia eskaini behar zaie". Ildo beretik, gaineratu du handitu egin dituztela partida batzuk, eta pobrezia egoerei aurre egiteko Udalak duen dirua gastatuko balitz, diru gehiago jarriko zuketela.

DATUA

%30

ETORKINAK

Eskatzaileen %70 bertakoak dira. %30 bakarrik dira etorkinak. Familia eskatzaile kopurua ugaritu egin da.

Laguntza eskaera gehiago

Izan ere, Larrañagak aditzera eman du krisiaren ondorioz lehen baino jende gehiago joaten hasita dela Arrasateko Udalera laguntza eske. Eta gainera ezkor agertu da zinegotzia etorkizunarekiko, eskaera kopurua handitu egingo dela espero du-eta, hipotekak ordaintzeko ezintasunak eraginda batez ere.

Horren harira, Larrañagak gogora ekarri du hipotekak ordaintzeko Udalak ematen dituen laguntzak bakarrik urtebeterakoak direla. Beraz, eta hori kontuan hartuta, azpimarratu du Arrasateko Udalak gertu duela diru-funts propioa kasu larrienei laguntzeko, "ahaleginduko gara Arrasaten etxe-utzarazterik gerta ez dadin".

Bertakoak eta familiak

Bestalde, Ongizate Saileko arduradunak ukatu egin du Udalera laguntza eske doazen eskatzaile gehienak etorkinak direnik, oraindik ere askok hala pentsatzen duten arren: "Oso erraz esaten da: dena eramaten dute etorkinek, eta hori ez da egia, %30 dira bakarrik etorkinak, %70 hemengoak dira".

Horien artean, familia kopurua handitu egin dela ere esan du Larrañagak, "alokairu eta udal tasak ordaintzeko laguntza eske" joaten direla kontatu du.

Bi milioi euro pasa

Kopurutan sartuta, berriz, 2.300.000 euro pasako aurrekontua bideratu du Udalak Ongizate Sailera 2012ko jardunerako. Hortik pobreziaren kontrako planetara (larrialdietarako laguntzak, AES) bideratuko dute kopururik handiena (400.000 euro) eta babesgabekoen egoerei, bereziki, adin txikikoei aurre egiteko ere partida esanguratsua gorde dute: 150.000 euro. Beste horrenbeste aurreikusi dute gobernuz kanpoko erakundeendako.

PARTIDA NAGUSIAK

SAILAREN BANAKETA	KOPURUAK
Aurrekontu osoa	2.302.080 euro
Pobreziari aurre egiteko egitasmorako	400.000 euro
Baztertze egoeran daudenendako	150.000 euro
Gobernuz kanpoko erakundeendako	150.000 euro

ITURRIA: Arrasateko Udala

Larrialdietarako laguntzak

- Alokairuak ordaintzen laguntzeko hilero 250 euroko laguntza eskura daiteke.
- Udal tasak ordaintzeko ere eska daiteke laguntza (zaborra, ura...).
- Etxeko konponketak egin edo etxerako tresnak erosteko laguntzak ere baditu Ongizate Sailak.

Hipoteketarako laguntzak

Oraingoz, Udaleko Gizarte Ongizate Sailak ez du jaso hipotekak ordaintzen laguntzeko eskaerarik, baina udal ordezkariek aurreikusi dute herritarrak hasiko direla laguntza eske bertaratzen.

Berez, halako kasuetan Arrasateko Udalak urtebeterako laguntza bakarrik eskaintzen du. Hori dela eta, gertu dauka diru-funts berezia kasu larrienei laguntzeko.

Izan ere, Arrasaten etxe-utzarazterik ez gertatzeko ahalegina egin gura du herriko erakunde nagusiak.

Testu lehiaketa abiarazi du Euskal Herrian Euskarazek

Zer da zuretzat euskaraz bizitzea? galderari erantzungo dioten testuak oinarri, lehiaketa antolatu du EHE elkarteak. Prosa, poesia edo bertsogintza aukera daiteke testuak egiteko, baina, asko jota, bi orrialdeko lanak aurkeztu behar dira. Epea, berriz, martxoaren 19a da.

Lehiaketak hiru maila ditu: 11-14 urte bitartekoendako, 15-17 urtekoendako eta 18 urte edo gehiagokoendako.

Lanak bi lekutan entrega daitezke : ordenagailuz, *arrasate@euskalherrianeuskaraz* edo eskuz idatzita zein ordenagailuz Arizmendi Ikastolan.

Dirulaguntza kontuak eta beste, Gobernuaren batzarrean

Irakaskuntza arautuaren barruko ikastetxe, zentro edo guraso elkarteendako dirulaguntzak eta herriko beste hainbat elkarterendakoak berbagai izango ditu Udal Gobernuak gaurko, astelehena, batzarrean (16:00). Horiekin batera, Hiriber Programak emandako laguntzak txikitzeko ebazpena ere jakinaraziko diete gobernuko kideei.

Bestelako gaien artean, berriz, irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzen aurre-egitaraua aurkeztuko dute, eta Zineuskadi elkartearekin hitzarmena sinatzeko proposamena.

Mozorrotuta kalejiran eta kontzertuan

Bi ekitaldi iragarri ditu Arrasate Musikalek Aratusteei begira: egubakoitzean, otsailaren 17an, kontzertua egingo dute Amaia Udal Antzokian banda txikiak, orkestra gazteak, comboak eta hari-talde txikiak (18:30); eta martitzenean, berriz, kalejiran aterako dira bandako eta balleteko kideak (19:00).

ARRASATE MUSIKAL

Aratusteak zapatuan: herri bazkarirako txartelak bihar arte daude salgai

Monte, Kajoi, Basati eta Iluntz tabernetan eros daitezke txartelak 20 eurotan; gaurtik egubakoitzera arte karrozak egiteko zabalik egongo da gaztetxea

Kalejirako irudiak erakusten duenez, zonbiek hartu zuten Arrasate iaz. | ARTXIBOA

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aratusteak gainean ditugu dagoeneko. Azken egunak dira mozorroak eta karrozak prestatzeko, zapatuan kolorea nagusi izan dadin. Aurten, gainera, nobedadeekin dator egitaraua. Mozorro, karroza, koadrila eta taberna onenak izendatzeko sari banaketa bazkari aurretik egingo da, goizeko kalejiraren ostean. Kalejira baino lehenago, 12:00etan, iazko koadrila onenak eurak idatzitako pregoia irakurriko du.

Txartelak erosteko arazorik ez

Txarangak girotutako kalejira eta poteoaren ostean, 14:30ean Uarkapen herri bazkaria egongo da. Txartelak bihar arte daude salgai 20 eurotan, Monte, Kajoi, Basati eta Iluntz tabernetan; txartelak badaude oraindik. Bestalde, egubakoitzean koadrilendako bilera deitu zuen jai batzordeak gaztetxean, karrozak egiteko baldintzak zehazteko. Ez zen koadriletako ordezkaririk agertu. Egubakoitzera arte zabalik egongo da arratsaldez (18:00-21:00) eta koadrila bakoitzak gune bat izango du markatuta. Gune horren garbitasuna koadrilaren ardura izango da. Gaztetxeko materiala errespetatzeko eta zapatuan karrozak botata ez uzteko eskatu dute.

Vomitok eskarmentu handia erakutsi zuen, lehengo gordintasuna galdu barik

J.B. | ARRASATE

Euskal Herriko punkaren talde erreferenteetako bat izan genuen eguenean gaztetxean, Kooltur Ostegunak ekimenaren eskutik: Vomito. Adinak ez du barkatzen, baina Irungo taldearen egungo formazioak punkaren nostalgia gainditzeko borondatea erakutsi zuen. Kantu mitikoez gain, abesti berriak, eta soinu landua bezain gordina. Publikoaren artean ez zen mugimendu larregi izan eta horregatik ez zuten bisik jo. Egungo abeslari *Klaus* argia izan zen oso emanaldiaren amaieran: "Hiru kantu joko ditugu, ez gehiago. Hotz zaudete". 120 bat sarrera saldu ziren.

Asteon ez da kontzerturik egongo, koadrilek Aratusteetarako karrozak egiteko erabiliko dute-eta gaztetxea.

Vomito taldearen egueneko kontzertuko une bat. | JOKIN BEREZIARTUA

Elkarteetako euskara planak lehen urtean egindakoarekin pozik daude egin

23 elkarte gastronomikok hartu dute euskararen aldeko konpromisoa

J.B. | ARRASATE

Pasa da urtebete elkarte gastronomikoetan euskara plana abian jarri zenetik. Erretiratu talde batek beharra ikusi zuen euskara bultzatzeko ekimen bat abian jartzeko, bazkideak sentsibilizatzeko. Hasieran 12 bat elkartek egin zuten bat planarekin baina urtebete geroago 23 dira euskararen aldeko konpromisoa hartu duten elkarteak. SUDC barruan 27 elkarte daude egun. Plana bi urterako da baina lehen urteko datuak jaso nahi izan ditugu.

Txalaparta elkarteak bat egin zuen planarekin hasieratik. | J.B.

Ahozkoa zein idatzizkoa

Elkarteetan euskara nola bultzatu? Bixente Elortza lan horretan diharduen taldeko kideak azaldu digu ahozko zein idatzizko neurketak egiten dituztela, eta hasierako datuak hobetzeko helburuak zehazten direla. Noski, ezagutza zenbatekoa den jakin beharra dago erabilera neurtzeko. Bada, 23 elkarteotako ezagutza %63koa zen 2010 bukaeran. Era berean, datuen artean nabarmentzekoa da 2010ean ahozko erabilera %30ekoa zela gehienez, eta 2011 amaieran, berriz, %43koa izan zela. Bada zerbait lanean jarraitzeko.

Danborradaren 50. urteurreneko DVDa salgai dago

Iazko San Juan jaietan urteurren berezia ospatu zen; Danborradak mende erdia bete zuen iaz eta, besteak beste, omenaldia egin zieten urte horietan guztietan zuzendari izan direnei.

Orain Danborradaren 50. urteurrena gogora ekartzeko, San Juanetan egindako DVDa salgai jarri du SUDC elkarteak. Hala, *50 urte 50 gau eder* izenburu duen DVDa erosi gura duenak martitzenean edo eguenean eskura dezake elkartearen lokalean, 18:00etatik 20:00ak arte. Zortzi eurotan jarri dute salgai, eta 1961etik 2011ra arteko danborraden irudiak jasotzen dira bertan.

Gitarra jotzen ikasteko aukera aprobetxatzen, gazte txokoan

San Andresko gazte txokoan otsail hasieran hasi ziren gitarra ikastaroarekin. Olatz Urkia hezitzailea dabil irakasle lanetan. Oraingoz sei gaztetxok eman dute izena eta ikasle bakoitzarendako gitarra bana dute. Bi hilabete iraungo du tailerrak eta helburua da, ondo pasatzea eta bide batez gitarrarekin zerbait jotzen ikastea.

TXATXILIPURDI

Aratusteak Eguen Gizenean hasiko dira, aspaldiko ohiturari eutsiz

Xamatzek sorgin-dantza eskainiko du, eta Hartza ere protagonista izango da; 'txarri-belarri' eta 'txarrankak' eguenean herriko hainbat tabernatan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Nobedadeak iragarri dituzte aurtengo Aratusteetan: hain zuzen, Xamatz dantza taldeak eguenean eskainiko duen sorgin-dantza eta Hartzaren ibilaldia izango dira berritasun nagusiak Udaleko Kultura Zerbitzuak prestatutako egitarauan.

Eguen Gizen eguna indartu nahi izan dute Kulturako arduradunek, eta, ohitura zaharrei eutsiz, Xamatzek sorgin-dantza eskainiko du eguenean, 19:00etan. Bergarako Txistulari Bandaren laguntzarekin, Xamatzeko kideek geldialdiak egingo dituzte San Martin plazan, Barrenkalean, Simon Arrietan, Fraiskozurin eta Irala kalean. Esan bezala, Hartza ere izango da protagonista. Bergarako gizon dotoreak sokatik helduta ekarriko du eta Hartza haurren atzetik ibiliko da lasterka herriko kaleetan.

Garai batean Eguen Gizenak zuen garrantzia berreskuratu nahi izan dute. Izan ere, Bergaran Aratusteak Eguen Gizenarekin hasten ziren. Pintxo-pote eguna dela aprobetxatuz, herriko hainbat tabernatan Aratusteetan ohiko diren *txarri-belarri* eta *txarrankak* eskainiko dituzte eguenean.

Aratusteetan mozorrotzeko eskatu die Udalak herritarrei.

Aratusteetako kartela.

Herri afaria azokan

Zapatuan Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek *Zazpikoloroa* ikuskizunaren bi emanaldi egingo dituzte Udal Pilotalekuan, 16:00etan eta 18:30ean. Sarrerak ez dira agortu eta zapatuan bertan salgai egongo dira. Gaztetxoendako DJ mozorro jaialdia izango da Zabalotegin, 18:30ean hasita, eta Sei Gurpil txaranga kaleak girotzen hasiko da 20:30ean. Hain zuzen, mozorro afaria eta ondorengo dantzaldia txaranga horrek alaituko du. Mozorro afaria Oxirondo azokan izango da (berogailuak jarriko dituzte), eta txartelak 15 euroren truke daude salgai, gaur arte, ohiko tokietan.

Banda eta Orkestra

Aratuste-zapatuan, bestalde, Imuntzo eta Beloki taldearekin erromeria izango da San Martin plazan. Bestelako ikuskizunak ere izango dira Aratusteetan: oraingo egubakoitzean, esaterako, Udal Musika Bandak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko dute Udal Pilotalekuan, 22:30ean; aurretik, 19:00etan, Xabi Solano eta Zigor DZren (Esne Beltza) emanaldia iragarri dute gaztetxean eta goizean zehar Zuhaitz Feria egongo da San Martin plazan. Aratuste-domekan haurrendako Maddi Pirata ikuskizuna izango da Udal Pilotalekuan, 17:00etan, eta jaiek jarraipena izango dute Aratuste-martitzenean.

Mozorro onenendako sariak

Udalak mozorrotzeko gonbidapena egin nahi die tabernari, komertzio eta, oro har, herritar guztiei. Zapatuan, egun osoan, mozorrorik onenari eta giro hoberena jartzen duen talde edo banakakoari saria emango dio Bedelkar dendarien elkarteak: 260 euro Bergarako taberna eta jatetxeetan gastatzeko.

Piano-jole gaztetxoak Andoainen

Bergarako Musika Eskolako piano-joleek Andoaingo VII. piano jaialdian hartu zuten parte aurreko aste bukaeran. Amaia Urdangarinen eta Eli Mendiarazen ikasleek pianoarekin maila handia erakutsi dute aurten ere. Sei hilabetean zehar lan handia egin ondoren, domina ugari ekarri zituzten piano-jole gaztetxoek. Gipuzkoa osoko piano-joleak batzen ditu Andoaingo jaialdiak.

MUSIKA ESKOLA

OHARRAK

BERBALDIA: HAURTZAROA ETA ELIKADURA

Gurasoei zuzendutako hitzaldi sorta amaitzeko, eguaztenean, otsailaren 15ean *La importancia de los los hábitos de alimentación en la infancia* izenburuko hitzaldia izango da kultura etxean, 18:00etan.

HIKA IKASTAROA GAURTIK JARDUNEKIN

Jardunek antolatuta, otsailaren 13tik 23ra hika ikastaroa emango du Juan Martin Elexpuruk; bi orduko zortzi saio izango dira astelehenetik eguenera, 18:30etik 20:30era. Argibideak Jardunen edo 943 76 08 19 zenbakian.

ODOL ATERATZEA ANBULATORIOAN

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak jakitera eman duenez, hurrengo odol ateratzea otsailaren 22an egingo dute anbulatorioan, 18:00etatik 20:30era. Herriko Odol Emaileen Elkartearekin harremanetan jartzeko telefono berriak hauek dituzue: Antonio Herzog arduraduna (669 10 89 77) eta Dulce Rodriguez elkarteko idazkaria (628 07 97 72).

ZINE EMANALDIAK GAZTETXEAN

Gaztetxean berriro ekin diote zine emanaldiak antolatzeari. Aurrerantzean, hilean bi emanaldi egingo dituzte, hamabostean behin. Hurrengo emanaldia otsailaren 26an izango da. Gaztetxeko zine emanaldiak antolatzeko egubakoitzero izaten dira bilera irekiak, 19:00etan.

ERRETIRATUEN IRTEERA ETA BAZKARIA

San Joxepe erretiratuen elkarteak sagardotegira irteera iragarri du datorren martxoaren 7rako. Goizeko 11:00etan aterako dira autobus geltokitik Donostiara eta bazkaria, berriz, Aginaga sagardotegian izango da. Prezioa 32 eurokoa da eta izena emateko epea zabalik dago dagoeneko.

Bestalde, azken urteotako ohiturari eutsiz, Aratusteetako martitzenean, hilaren 21ean, bazkaria egingo dute erretiratuen egoitzan. Ohikoa den bezala, sorpresak ez dira faltatuko bazkalostean. Izenematea bertan egin daiteke. Argibideak 943 76 21 40 telefono zenbakian.

NUTRIZIO IKASTAROA GURASOEI ZUZENDUTA

Udalak 2-3 urteko haurren gurasoei zuzendutako nutrizio ikastaroa antolatu du martxorako. Eskolak eguaztenetan izango dira, 18:00tik 19:30era, gaztelekuan. Bergarako Mireia Alberdi dietista-nutrizionista izango da irakaslea. Izen-ematea otsailaren 24ra arte kultura etxean. Ikastaroare gaineko argibideak 943 77 91 60 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

Udal Gobernua osatzen duten Aralar eta Bildu alderdiek bat egin dute alkatearekin. | ARTXIBOA

Elortza alkateari babesa adierazi dio Udal Gobernuak

Alkatearen dimisioa eskatu zuen EAJk, jeltzaleen kontrako pankartak osoko bilkuran baimentzearren

EDU MENDIBIL | BERGARA

Joan den urtarrilaren 30eko osoko bilkuran EAJren kontra herritar batzuek erakutsitako pankartek polemika bizia ekarri dute atzetik. Aintzane Oiarbide EAJko bozeramaileak Jesus Elortza alkatearen dimisioa eskatu zuen, pankartok onartzearren, eta Udal Gobernua osatzen duten Bildu eta Aralar alderdiek babesa adierazi diote orain alkateari. Bidalitako oharrean hauxe diote: "Plenoan herritar batzuek egindako adierazpenak direla-eta, Udal Gobernu taldeak bat egiten du alkateak Udal Pleno ekitaldian egindako adierazpenekin, eta gehigikeria deritzo bere kudeaketa ahalmena zalantzan jartzeari. Udal Gobernu taldeak herritar eta herri ordezkarien Adierazpen Askatasuna eskubidea errespetatu eta babesten du; hala ere, Udal Pleno aretoan horretarako aukerak ematen direnez gero, ahoz eta aurrez aurre, eta tonu eta bolumen egokian egindako adierazpenak lehenesten ditu. Hau guztia kontuan izanda, herritarroi euren iritzia emateko aukera babesten jarraitu behar zaielakoan gaude, betiere irain eta indarrezko jokaeretan jausteke. Azkenik, herritarrei eskatzen diegu adierazpenak edo iritziak errespetuz egin ditzatela".

EAJ, azpiegitura handien alde

Debagoieneko AHT Gelditu Elkarlanaren, Angiozarko Herri Batzarraren eta Bergarako Gazte Asanbladaren izenean aurkeztutako mozioaren eztabaidan etorri zen polemika. Hainbat azpiegituratako lanak geldiaraztea eskatzen zuen testuak, AHT, erraustegia eta autobideak tartean. Udal Gobernuak atera zuen mozioa aurrera.

Gai horren harira, EAJko bozeramaile Aintzane Oiarbidek honakoa azpimarratu du: "EAJk herri hau eraiki du; ezker abertzalea, ordea, dena gelditzen saiatzen ari da. Aurreko asteko udalbatzarrean Gipuzkoako azpiegitura handien aurkako mozioa horren adibide da, azkeneko 30 urteetan eraikitako azpiegitura guztien aurka doalako". Sorpresa azaldu du Oiarbidek: "Azpiegitura handien aurka egoteak zera suposatzen du: ur saneamenduaren zein urtegien aurka egotea, eraikitako ospitaleen aurka, eta baita portuen, industria guneen edo errepideen hobekuntzaren aurka ere; hau da, Euskadi Europako herri aurreratuenen artean egotea posible egin duten azpiegituren aurka". Oiarbideren arabera, "EAJk arduraz lan egingo du erakunde guztietan, gobernuan zein oposizioan". Bilduri zera eskatu dio: "guztia gelditzeari utzi eta Euskal Herria eraikitzen jarraitzeko. Goberna dezala eta ez dezala bere gaitasun eza izkutatu gobernutik oposizioa eginez. Ez gara kuzkurtuko ezker abertzalearen manipulazio eta irainen aurrean. Oposizioa egiten jarraituko dugu guk, udal arduradunen arduragabekeria eta gobernurik eza kontrolatu eta salatzeko".

'Musikoterapia ezagutzen' ikastaroa

Musikoterapia ezagutzen ikastaroa antolatu du Musika Eskolak. Aintzane Arana eta Olaia Ramos izango dira irakasleak. Bizipenak, sentimenduak, harremanak, egoerak, gaitasunak, beldurrak eta abar kanporatu, ulertu eta onartzeko oso tresna baliagarria da musika, eta horixe landuko dute. Otsailaren 25ean, martxoaren 3an, martxoaren 10ean eta martxoaren 17an izango dira, 10:30etik 12:30era. Argibideak eta izen-ematea Bergarako Musika Eskolan, 943 76 57 80 telefono zenbakian. Izena emateko epea otsailaren 16ra arte dago zabalik.

Xaxau konpartsa antolatzeko bilera bihar Irizarren

Bergarako eragile ezberdinek jai herrikoiak eta egutegi propioa izateko lanean dihardute eta, besteak beste, aurtengo jaietarako Xaxau konpartsa osatu eta Bergarako Herri Mugimendua indartu eta berritzea dute helburu.

Bihar, martitzena, horren gaineko bilera izango da Irizar jauregian, 19:30ean. Jendeari bileran parte hartzeko dei egin diete, izan ere ahalik eta parte hartze handiena lortzea baita haien asmoa. Irizarko hirugarren solairuan egingo dute bilera.

Txorimalo lehiaketaren 18. ekitaldia Erramu Zapatuan, martxoaren 31n

Izena emateko epea martxoaren 23ra arte dago zabalik Jardun elkartean

Bi talde izango dira: 12 urtera artekoa eta hortik gorakoa. Edozein material erabili ahal izango da txorimaloak egiteko. | GOIENA

E.M. | BERGARA

Ohikoa den moduan, Jardun euskara elkarteak Txorimalo lehiaketa deitu du Erramu Zapaturako, datorren martxoaren 31rako. Aurtengoa lehiaketaren 18. ekitaldia izango da.

Izena emateko epea martxoaren 23ra arte dago zabalik eta aurreko urteotan moduan, bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango da. Edozelan ere, gehienez zortzi lagun onartuko dira talde bakoitzeko. Bi talde bereiziko dituzte: 12 urtera artekoa eta hortik gorakoa.

Euskararen aldeko esaldiekin

Beti bezala, edozein material erabili daiteke txorimaloak egiteko eta oinarri edo ardatz bat izatea derrigorrezkoa da, txorimaloa lurrean tinko eta zutik egon dadin. Era berean, euskararen aldeko esaldi bat eraman beharko dute txorimaloak eta esaldiak martxoaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dira Jarduneko bulegoan.

Lehiaketaren inguruko argibideak Jardun elkartean, 943 76 36 61 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

'Zorionak ama izango zara': berrargitalpena

Zorionak ama izango zara liburua berrargitaratzeko 1.356 euroko gastua onartu du Bergarako Udalak. 2007an sortutako materiala bada ere, argitalpen berria egitea erabaki dute; Debagoieneko Mankomunitateak bere gain hartu du aurrekontuaren zati bat eta gainontzekoa (6,78 euro aleko) udalek ordainduko dute. Bergararen kasuan, beste 200 ale eskatu dituzte datozen bi urteotarako.

Zorionak ama izango zara ibarreko emaginek haurdun dauden emakumeei banatzeko Debagoieneko Mankomunitateak argitaratutako materiala (liburua eta DVDa) da. Liburuak bost gai jasotzen ditu: haurdunaldiko zainketa, erditze osteko zainketa, edoskitzea, masajea eta haurren zainketa. DVDak, berriz, gai praktikoen azalpenak eskaintzen ditu.

Bizikletaren erabilera lehenetsi eta sustatzeko foroa abian dago

Erdiguneko bidegorri zatiek lehentasuna dutela zehaztu zuten, eta bi hilean behin batuko direla; hurrengo batzarra apirilaren 17an izango da

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Udalak bizikletaren erabilpenari buruz duen politikari eman beharreko norabidea zehazteko, bizikleta foroa abian ipini zuten berriro ere hilaren 7an. Dozena bat lagun elkartu ziren Udalak antolatutako batzarrean: politikariak, udal teknikariak, ikastetxeetako ordezkariak eta erabiltzaileak.

Bi puntu nagusi aztertu zituzten: bizikletendako azpiegituren egungo egoera eta aurrera begira eman beharreko pausoak, eta bizikletaren erabilpena sustatzeko lan daitezkeen neurri osagarrien artean lehentasunak finkatzea. Parte-hartzaileek galderak egiteko aukera izan zuten.

Bizikleta foroan parte hartu zutenak mahaiaren bueltan. | TXOMIN MADINA

Hainbat erabaki hartuta

Sentsibilizazio kanpainak egin, azpiegituretan lehentasunak finkatu, bizikletek eta oinezkoek lehentasuna izateko segurtasun ordenantzak aldatu... Ekarpen horiek guztiak izan zituzten hizpide bi ordu eta laurdeneko batzarrean.

Erabakiak ere hartu zituzten. Bidegorri sarearen atalean, erabaki zuten erdiguneko zatiak lehentasuna duela. "Ugarkaldetik Kurtzekuara doan bidegorri zatiak lehentasuna zuen aurretik, eta gaur berretsi egin dugu. Tarte horretan zati batzuk egin gabe daude, eta horiei helduko diegu lehenengo: erdiguneko bidegorriari. Onartuta dagoen Oñatiko bidegorri sareak 5,2 kilometro ditu eta heren bat bakarrik dago eginda", esan zigun Josu Lizarralde zinegotziak. Lehentasuna duen bidegorri zati horrek Santa Marina, Portu kalea, Bakardadeko Ama kalea eta Aita Madina kalea zeharkatuko ditu.

ESANAK

"Bizikleta foroa bi hilero bilduko da; hurrena, apirilaren 17an"

IOSU LIZARRALDE | ZINEGOTZIA

DATUA

5,2

KILOMETRO

Hori da herriguneko bidegorri sareak izango duen luzera.

Bizikletaren erabilera herritarren artean bultzatzeko egin beharrekoaren gainean ere hartu zituzten erabakiak. "Azpiegitura onak eduki, baina erabiltzen ez badira... Hori horrela, erabilera sustatzeko egin beharrekoak zehaztu ditugu. Azken hilabeteotan ikastetxeekin landu dugu bizikleta plana. Erabaki dugu enpresekin lanean hastea. Zubillagako bidegorria gertu dagoenean, lanera bizikletaz joateko aukerak erakutsi, segurtasuna landu...Hori horrela, sustapena bide horretan landuko dugu", esan zigun Lizarraldek.

Aurrera begira, zer?

Lehen batzarra eginda, jarraipena izango du bizikleta foroak. Bi hilean behin biltzea adostu dute, eta hurrengo batzarra apirilaren 17an egingo dute. "Batzar bakoitzean gai eta lehentasun berriak landuko ditugu. Lehen batzarrean adostutakoa garatzen hasiko gara lehenbailehen", esan ziguten.

Autoestimu ikastaroan lekua dute oraindik

M.B. | OÑATI

Berdintasun Sailak abian ipini gura duen autoestimu ikastaroan lekua dute oraindik. Bost bat lagun falta zaie taldea osatzeko, eta izen-emate deialdia luzatzea erabaki dute, hilaren 15era arte. Interesatuek Ongizarte Zerbitzuetan eman behar dute izena: 943 03 77 00 telefonoan.

Ikastaroa martxoan hasiko dute eta 27 ordukoa izango da. Dagoeneko osatu dute talde bat: azken urteotan autoestimua lantzen ibili diren emakumeena.

Berdintasun Sailak beste talde bat osatu gura du, hasierakoa, autoestimuaren oinarriak lantzeko.

Eguen-gizen afaria egingo dute Antton tabernan

M.B. | OÑATI

Aratusteei aurre hartuta, afari *mundiala* egingo dute Antton tabernan eguenean. Eguen-gizen eguna ospatzeko menu berezia gertatuko dute: arrautzak, txorizoa, txerri-hankak, patata erreak eta pellak.

Oraingoz, deialdia egin dute herritarren artean. "Jangela bete arte izenak hartuko ditugu. Giro onean pasako dugu eguen-gizen eguna, Aratusteei ongietorria egiteko", esan digu Antton Elortzak.

Interesatuek lehenbailehen eman behar dute izena tabernan bertan edo 943 78 21 61 telefonoan. Prezioa 10 euro da.

'Wilt' antzezlanerako sarrerak salgai sarean

Internet bidez eros daitezke, 'www.barrabarra.eu' atarian, hilaren 17ra arte; bestela, leihatilan

Wilt antzezlaneko protagonistak, panpinarekin. | GOIENA

M.B. | OÑATI

Ados taldeak *Wilt, panpina puzgarrien hilketa* antzezlana egingo du hilaren 17an, 22:30ean, Santa Anan. Bada, sarrerak eros daitezke *www.barrabarra.eu*-n hilaren 16ra arte. Norberak gura duen jarlekua aukera dezake.

Internet bidezko sarrerak agortzen badira, emanaldiaren egunean, hasi aurretik, leihatilan salduko dituzte.

Tom Sharperen eleberrian oinarritutako antzezlana Eibarren estreinatu zuten, eta kritika onak izan zituen. Itxaropena galdu zuen Henry Wilten bizipenak kontatzen ditu, eta emaztea hil eta gorpua desagerrarazteko bideak topatuko ditu. Mikel Laskurain, Isidoro Fernandez, Aitziber Garmendia, Miren Goienola, Koldo Losada eta Fernando Ruiz dira protagonistak.

Etorkinak euskarara hurbiltzeko ikastaroa

M.B. | OÑATI

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegiak etorkinendako euskara ikastaroa antolatu du, iaz bezala. *Aisa, etorkinak euskara ikasten* leloarekin, Oñatiko etorkinengana heldu gura dute.

Euskara ikastaroa 60 ordukoa izango da: otsailaren 20tik ekainaren 11ra arte. Oraingoz, izen-emate epea zabalik dago. Interesatuek ikastaroa hasten den egunera arte eman dezakete izena. Hiru bide dituzte: 943 78 24 96 telefonoan; *euskaltegia@oinati.net* helbidean; eta bulegoan bertan 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Ordutegia zehaztu barik

Izena ematerakoan ordainketa egin beharko da. Ikastaroaren prezioa 27,50 euro da: 10 euro matrikularengatik eta 17,50 ikas-materialarengatik. Izen-ematea bukatzen denean, ikasle kopurua ikusi eta taldeak antolatuko dituzte. Ordutegia eta eskola egunak ere zehaztu barik dituzte. Horiek ikasleekin batera adostuko dituzte.

ARETXABALETA

MUko ikasleek Saharan egindako irudiak ikusgai daude gaurtik Arkupen

Kanpalekuetako bizimoduari buruzko erakusketa zabalduko dute kultura etxeko erakusketa aretoan

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Erakusketa dago gaurtik Arkupen: Mondragon Unibertsitateko ikasleek joan den urteko Aste Santuan Saharako kanpalekuetan egindako argazkiz osatuta dagoen erakusketa. Olaia Sagredok azaldu du irudi horietan denetarik ikusten dela: kanpalekuak nolakoak diren, sahararren bizimodua, gauza txikietatik ateratako elementu politak eta gerrako armak.

Ikasle talde horrek Haima Taldean parte hartzen zuen. Bi urtez kooperazio eta elkartasun alorrean formazioa jaso ondoren, unibertsitateko azken urtean ikasitakoa praktikan jartzeko eta zuzenean bizi izateko, kanpalekuetara bidaiatu zuten. Bada, bidaia hartan ateratako argazkiak daude Arkupen.

Mohamed Salem Boumoud sahararra egongo da egubakoitzean. | GOIENA

Ikasleak egubakoitzean

Erakusketa gaur zabaltzen bada ere, egubakoitzean, hilak 17, kanpalekuetan izandako ikasleak eta han egon ziren bitartean gidari lanak egin zituzten saharar bi izango dira Arkupen. 19:00etan egin dute hitzordua.

Loramendik ETB1eko 'Ai, ama!' saio berrira joateko autobusa antolatu du

Ekimen horretan izena emateko azken eguna etzi da, eguaztena

M.B. | ARETXABALETA

Iban Garatek gaurtik aurkeztuko duen *Ai, ama!* gaueko saio berrira joateko autobusa antolatu du Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak. Saioa ikustera joateko eta publiko moduan parte hartzeko autobusa bete nahi du elkarteak; asmoa da martxoan joatea, jende gehien animatzen den egunean.

Interesatuek etzi, eguaztena, baino lehen apuntatu behar dute 943 77 09 70 edo 685 75 67 29 telefono zenbakian, *loramendielkartea@gmail.com* helbide elektronikoan edo udaletxe zaharrean agertuta. Izena ematerakoan, norberari noiz etortzen zaion ondoen jakinarazi beharko da, gero antolatu ahal izateko.

Autobusa 18:45ean irtengo da Aretxabaletatik; saioa zuzenean ikusi ostean, Aretxabaletara buelatuko dira. Loramenditik esan dute luncha emango dietela parte-hartzaileei.

ARETXABALETAKO LANBIDE ESKOLA

Txus Jaio auto gidariaren hitzaldia

Txus Jaio auto gidari ezagunak Aretxabaleta Lanbide Eskolako ikasleei hitzaldia eskaini zien Arkupen. Aretoa lepo bete zen; han batutakoek lehen eskutik ezagutu zituzten bai auto lasterketei buruzko nondik norakoak, eta baita Markinako gidariaren jarduerari buruzkoak ere. Ikasleek euren jakin-mina asetzeko aukera ere izan zuten.

ESKORIATZA

Aratusteei ongietorria egiteko, 300 ume irtengo dira eguenean

M.B. | ESKORIATZA

Eguenean, hilak 16, Urdelardero eguna egingo dute Eskoriatzan; bada, eguraldiak laguntzen badu, Luis Ezeiza herri eskolako eta Arizmendiko Jose Arana guneko 300 neska-mutiko inguru irtengo dira goizean kalejiran. Herriko kaleetan kantuan ibili ostean, txistorra beroa zain izango dute Herriko Plazan.

Arratsaldean, ostera, honezkero ume eskoriatzarrendako ezagunak diren Hipo eta Tomax pailazoen ikuskizuna dago. Herriko kiroldegian izango da emanaldia, 17:00etan. Hori amaitzean, txokolate beroa hartzeko aukera izango dute, Herriko Plazan.

Txartelak, bihar arte

Bestalde, Aratuste-zapatuko herri bazkarira joan gura dutenek bihar, martitzena, arte eros ditzakete horretarako txartelak. Inkernu, Goxotxiki eta Aldatz tabernetan daude salgai, helduenak 15 euroren truke eta 14 urtetik beherakoenak hamar eurotan.

Umeak ziria eskuan dutela. | MIRIAN BITERI

Nafarroa Bizirik taldearen eskutik, Floren Aoiz izango da etzi museoan

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Ibarraundi museoak *1512-2012* hitzaldia hartuko du etzi, eguaztena, Debagoieneko 1512-2012 Nafarroa Bizirik lantaldearen eskutik. Floren Aoiz nafarrak egingo du berbaldia, 19:00etan. Oroimen historikoa landuko dute ekimen horretan; helburua da 500 urte beteko dituen Nafarroako konkistari buruzko eztabaida mahai -gainean jartzea. Bada, Aoizek bere azalpenak amaitzen dituenean, eztabaida izango dute museoan.

2012. urtearen hasierarekin batera, 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimenaren harira lantaldea osatu zen Debagoienean. Aurkezpenaren ondotik, urtarrilaren 14an talde horren lehenengo ekimena egin zuten: Atxorrotz mendiko gazteluaren mugarriaren inaugurazioa. Ekitaldi horrekin batera, mahai -ingurua eta kontzertuak egin zituzten egun berean. Eta asteon, lantaldeak antolatutako bigarren ekimena egingo dute: hain justu ere, Floren Aoizen hitzaldia.

Aurrekontuez jardungo dute biharko osoko bilkuran

Ezohiko osoko bilkura dago bihar, martitzena, Aretxabaletako udaletxean. Udal aurrekontu, lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoaz jardungo dute 18:00etan hasiko den batzarrean.

Hasiera batean, otsailaren 2an zen eztabaidatzekoa 2012ko udal aurrekontua; baina, EAJ eta PSE-EE taldeek hala eskatuta, gai horren eztabaida atzeratzea erabaki zuen Udal Gobernuak. Esan bezala, bihar jardungo dute horren gainean, eta, Bilduk gehiengo osoa duenez, azken orduko ezusterik ez badago, kontuak onartu egingo dira.

Zabalik dago Eskoriatzan ibilgailuen zerga ordaintzeko epea

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga jendaurrean dago, eta dagoeneko zabalik dago hori borondatez ordaintzeko epea. Martxoaren 15a baino lehen egin behar da urteroko ordainketa ohiko aurrezki kutxa edo banketxeen bidez.

Eskoriatzako Udaletik gogorarazi dute aipatutako epean zorrak ordaintzen ez badira, prozedura exekutibotik eskatuko dela zerga horren diru kopurua, eta horri premiamenduzko errekargua, berandutza interesak eta sor daitezkeen kostuak gehituko zaizkiola.

Hilaren 28an egingo duten ardo dastatzean izena eman daiteke

Aurrekoek izandako harrera ona ikusita, ardo dastatzea antolatu dute Eskoriatzan ostera ere. Hastapen ikastaro hori otsailaren 28an, martitzena, izango da herriko kultura etxean, 18:30ean. Izena eman gura dutenek 943 71 46 88 telefono zenbakira dei edo *kultura@eskoriatza.net* helbidera idatz dezakete.

Bi ordu inguru iraungo duen saioa horretan, ardoa modu praktikoan eta atseginean ulertzeko, dastatzearen oinarrizko printzipioak ezagutaraziko dizkiete parte-hartzaileei; hortaz, edozeini dago zuzenduta.

Haurrak sokasaltoan ekainean, Txirikil elkarteak egindako aurkezpen ekitaldian. | L.Z.

ELGETA

Udalak gurasoekin batera aztertu gura du ludotekaren eta gaztelekuaren etorkizuna

Aurrekontua dela eta, zerbitzua, aurten, sei hilabetera murriztea erabaki du Udalak; guraso batzuek, aldiz, apirilean zerbitzua ez eteteko eskatu dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalak erabakita zuen apirilean ludoteka eta gazteleku zerbitzuak urrira arte etetea. Neurri horren arrazoia Foru Aldundiak zerbitzu horretarako emandako dirulaguntzaren jaitsiera dela azaldu dute behin baino gehiagotan Udaletik. Hiru urtean babes hori 18.000 eurotik 3.000 eurora jaitsi dela azaldu du Oxel Erostarbe alkateak. Hala, zerbitzua neguko hilabeteetara murriztea erabaki zuen Udalak.

Guraso talde batek, ordea, zerbitzua ez eteteko eskaera egin du orain, eta Udalak batzar irekia deitzea erabaki du. "Prest gaude erdibideko irtenbideak topatzeko", esan du Oxel Erostarbe alkateak. "Non gauden argi edukitzeko batzar horretan egoera zein den azaldu nahi diegu gurasoei, ea denon artean irtenbide bat topatzen dugun". Batzarra udaletxean egingo dute otsailaren 22an, eguaztena, 19:00etan.

37 erabiltzaile

Une honetan ludotekak 20 erabiltzaile ditu eta gaztelekuak, 17. Ludoteka astelehenetik barikura dago zabalik 16:00etatik 19:00etara, eta, gurasoek horrela eskatuz gero, hezitzaileek eskola irteeran jasotzen dituzte haurrak. Gazteleku zerbitzua, aldiz, gaztetxoei zuzenduta dago eta barikuetan, zapatuetan eta domeketan dago zabalik.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzaren jaitsierari aurre egiteko, azken ikasturteotan Udala erabiltzaileei kuotak igotzen joan da, baina ez da nahikoa, eta 2012an bi zerbitzuak sei hilabetez etetea erabaki du. Irizpidea izan da zerbitzua neguko hilabeteetan ematea; hau da, urtarriletik martxora eta urritik abendura. Hala, apiriletik irailera bitartean, hasiera baten, ez da ludoteka eta gazteleku zerbitzurik egongo. Apirila gerturatzen ari da, eta gurasoek zerbitzuari jarraipena emateko eskaera egin dute orain.

Informazioa eskuragarri

Batzarra ez da guraso erabiltzaileendako bakarrik. Kuotak igo direnez, jaitsi egin da ikasturte honetan erabiltzaile kopurua, eta erabiltzaile ez direnak ere deitu dituzte.

Inork interesa balu aurretik zerbitzuaren egoeraren gaineko informazioa jasotzeko, eskatu besterik ez du. Nahikoa da udaletxera deitzea —943 7 680 22— edo *danonartian@elgeta.net* helbidera eskaera egitea.

LEINTZ GATZAGA

Beiraren birziklapenaren gaineko argibideak egubakoitzean plazan

Mankomunitateak abian jarritako kanpaina da, eta herritarrei argibideak emango dizkiete

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Beira birziklatzeko zein prozesu jarraitzen den, zein onura dakartzan birziklatzeak, edukiontzi berdeetan zer sartu behar den eta beste hainbat kontu erakutsiko dizkiete herritarrei egubakoitzean (18:00-20:00) San Migel plazan jarriko duten karpan. Mankomunitateak abian jarritako ekimena da, eta Debagoieneko gainerako herrietatik pasatu ostean Gatzagan bukatuko dute argibide kanpaina.

Kalitatea hobetzea erronka

Beirazko ontzien birziklapenaren datuak, orokorrean, gaikako bilketaren artean onenak dira; hala ere, "oraindik asko dagoela egiteko" diote Mankomunitateko ordezkariek, eta jasotzen den kantitatea eta materialaren kalitatea hobetzeak "erronka jarraitzen duela izaten".

Debagoienari dagokionez, berreskuratze datuak hobetzeko kaleko edukiontzi gehiago eta ostalaritzako edukiontzi bereziak jarri dituzte urtetik urtera. Baina jasotzen den kopurua handitzeko eta, bide batez, nola birziklatu behar den azaltzeko kontzientziazio kanpaina egiten dabiltza. Hala, edukiontzi berdeetan zer bota erakutsiko dute, eta hori errespetatu ezean arazo larriak sor daitezkeela birziklatze prozesuan argitu.

ARAMAIO

Azken egunak 60 urtetik gorakoendako memoria tailerrean izena emateko

Etzira arte eman daiteke izena udaletxean; 12 pertsona gehienez, baina lekua badago oraindik

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udalak 60 urtetik gorako aramaioarrendako memoria tailerra antolatuko du. Leire Espinosa Zuiako Koadrilako eta Aramaioko gizarte langileak jakinarazi duenez, gehienez 12 pertsonendako lekua egongo da: "Oraingoz, bi pertsonak bakarrik eman dute izena", jakinarazi du Espinosak. Etzira arte, otsailak 15, eman daiteke izena udaletxean.

Lurgorri eguneko zentroan

Lurgorri eguneko zentroan lanean diharduen KL. kooperatibak emango du tailer hori eguneko zentroan bertan, eta oroimena, arreta, oreka eta gorputz jarrera landuko dira, besteak beste. Arlo kognitiboan zentratuko dira, beraz. Oroimenari dagokionez, lau prozesu ezberdinduko dituzte: memorizazioa edo informazio berria grabatzea, mantentzea, berreskuratzea eta ezagutzea. Lau prozesu horiek azalduko dituzte, besteak beste. Horrez gain, arreta landuko dute ariketa zehatzen bidez.

Bestalde, arlo fisikoari ere emango diote garrantzia. Adituen arabera, ariketa fisiko ezak osasunean ondorio txarrak izan ditzake. Bada, hori ekiditeko taldean ariketa berdinak egingo dituzte, besteak beste, luzaketak eta giharrak indartzeko zein koordinazioa hobetzeko ariketak.

60 urtetik gorako aramaioarrei zuzenduta dago memoria tailerra. | J.A.

ANTZUOLA

Aratuste-festarako motorrak berotzen

Barikuan hasiko dituzte herriko gaztetxoenek Aratuste jaien ospakizunak, eskolan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aratusteak ate joka ditugu eta herritarrek asteak daramatzate prestaketa lanetan. Hala, mozorro egokia aukeratu eta kalera irtengo dira asteon.

Barikuan gaztetxoen txanda izango da, eskolara mozorrotuta joango dira. Hala, txokolate eta torrada-janaz gozatuko dute, 16:00etan hasita.

Gazte txokoan, aldiz, Aratuste-merienda eta karaokea prestatu dute zapatu arratsalderako, hilaren 18rako.

Aratusteetako entseguak

Gogoratu behar da bihar egingo dela Aratusteetako dantzen entsegua. Torresoroan, 20:15ean, izango da. Oinarin dantza taldea domekan, hilaren 19an, irtengo da kalera. Besteak beste, sorgin-dantza egingo dute eta herritar talde batek iaz egin zituzten dantza berberak egingo ditu: *Pxit*, *Barañain* eta *Ryam polka's* (txapeloa). Ospakizunen hasiera 10:00etan izango da. Orduan, dantzariak kalera irtengo dira eta eurekin batera kalejira egingo dute hartzak, tximinoak eta domadoreak, Aratusteetako pertsonaia ezagunek. 12:30ean dantza saioa egingo dute Herriko Plazan jendaurrean: umeen saioa, helduena eta sorgin-dantza.

Erretiratuendako festa

Bestalde, Aratuste-martitzena ospatuko dute erretiratuen elkartean. 17:00etan mozorro lehiaketa egongo da, eta ondoren, merienda eta kina.

Elkartetik jendea animatu gura dute mozorrotuta joan dadin martitzenean.

OTSAILEKO SARIAK

KRUPS KAFE-MAKINA
Bidali KLUBA KAFETERA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com

EROSKI

'AITA, ZONBIA NAIZ' FILMAREN KAMISETAK
Deitu
943 25 05 05
telefonora!

ANTZEZLANERAKO SARRERAK

'Wilt: Panpina puzgarriaren hilketa' antzezlanerako bi sarrera

Amaia antzokian, urtarrilaren 19an, 19:30ean.

Deitu
943 25 05 05
telefonora eguenera arte.

Erabili zure Goiena Klubeko txartela, hemen ere bai!

Arantzazu Txintxurreta Madina

Zerk egiten du berezia GUZTIZ EDER edertze zentroa? Nolakoa da?

Gure bereizgarri nagusia da profesionaltasunak eta bezeroekin dugun gertuko harremanak sortu duten guganako konfiantza. Estetikara bideratutako teknika, aparailu, tratamendu eta produktu berri asko merkaturatzen dira. Guztiz Ederren, urtetako eskarmentuak erakutsitakoari, egunez egun hobetzeko ilusioa eta ahalegina gehitzen diogu.

Gure zerbitzuen informazio zehatza eskaintzen dugu, hobeto egokitzen dena aholkatu, edertze-programa neurrira egokitu eta tratamendu bakoitza bere alorreko espezialistak egiten du: laser bidezko depilazioa, harri bolkanikoekin egindako masajea, drainatze linfatikoa, azido hialuronikoa, mesoterapia, botoxa eta peeling kimikoak, despigmentatzea...

Bezeroak gure arreta osoa du: emaitzak, ziur eta segurtasunez!

Non dago?

Oñatiko erdialdean: Kale Barria 29, behea. Herriko Plazatik gertu dago eta sarrera parke aldetik du. Gure telefono zenbakia: 943 78 01 46.

Zer abantaila eskaintzen dio GUZTIZ EDERek Goiena Klubeko kideari?

- Aparailuen alorrean, Termason (zelulitisaren aurkako tratamendua, tinkatzea eta birmoldatzea). 10 saio hartuz gero, %10eko deskontua.
- Aurpegiko azala berritzeko eta orbanak kentzeko, Glycobest inhibitzaile despigmentatzaile programa: %7ko deskontua.
- Argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan %5eko deskontua (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).

2012an atera etekina txartelari

AQUARIUM
Donostia, 943 44 00 99
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da)

ARGIA
Lasarte-Oria, 943 37 15 45 - 943 37 34 03
- %25eko deskontua ARGIAko harpidetzan

AVIA MECA GASOLINDEGIA
Arrasate, 943 79 13 39
- %2 gasolindegian erregaia erosita.
- %2 dendako produktuetan

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta, 943 79 98 21
- -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA
Eskoriatza, 943 71 43 41
- %50 deskontua lehenengo kontsultan.

ESKO SPORT KIROL DENDA
Eskoriatza, 943 71 52 96
- -%10 produktu eta zerbitzu guztietan

GAES ENTZUMEN ZENTROA
Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55
- %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

GUZTIZ EDER EDERTZE ZENTROA
Oñati, 943 78 01 46.
- Termason (zelulitisaren aurkako tratamendua, tinkatzea eta birmoldatzea). Hamar saio hartuz gero, %10eko deskontua.
- Aurpegiko azala berritzeko eta orbanak kentzeko, Glycobest inhibitzaile despigmentatzaile programa: %7ko deskontua.
- Argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan %5eko deskontua (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).

IKER SUKALDEAK
Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48
- Sukalde osoa erosita,mikrouhin-labea opari.

LASTAI
Gasteiz, 945 35 85 59
- Helduentzako atseden arloan, %5eko deskontu gehigarria.
- %5eko deskontua haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehungaietan.
- %10eko deskontua denboraldiko haur-arropan. (Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik)

LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Bergara, 943 76 31 71
- -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
- Bazkidearentzat eta lagunarentzat

JAIXAK
Bergara, 943 76 31 45
- %10eko deskontua 20 eurotik gorako erosketetan.

MULTIOPTICAS
Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75
- %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA
Aretxabaleta, 943 08 21 89
- -%15 zerbitzu guztietan.

RENAULT AUTOBERRI
Arrasate, 943 71 24 72
- -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
- Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.

TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA
Donostia, 943 46 44 00
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia)
- -%20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia)
- -%10 zubi eta oporraldietan.

ZIENTZIEN KUTXAGUNEA
Donostia, 943 01 24 78
- %10 deskontua.

KIROLA

Jokin Baltzategi Agorrosingo erdigunean, aurrelariei pasea eman guran. | X.U.

OHOREZKO ERREGIONALA

Mondrak gol zakukada jaso zuen Bergararen eskutik

- Partidua hasi eta berehala gol ederra egin zuen Cabanillasek, faltaz
- Mondrakoek erraztasun handiak eman zituzten, defentsan batez ere

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Lopez, Urrutia (Retes, 73. min), Arruti, Nafarrate, Elorriaga, Crespo, Diaz (Ugalde, 65.min), Oregi (Beitia 50.min), Iñigo Macho (Valerio, 55.min), Balzategi (Ugarte, 68.min), Cabanillas.

Mondra: Ruiz de Azua, Alain Gomez, Jon del Palacio, Kepa Mercader, Calzon, Julen Moreno (Peio Errarte, 40.min),, Crespo (Mikel, 73.min), Pavon (Urra, 58.min), Andres (Jokin Pavo, 68.min), Aizpurua, Ormaetxea.

Beste: Jende dezente harmailetan Agorrosinen egiten zuen hotza kontuan hartuta.

EMAITZA

BERGARA
5-0
MONDRA

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Agorrosinen Bergararen eta Mondraren arteko derbia amaitu zenean termometroak 2 gradu erakusten zituen. Tenperatura hori eginda ere, zale bergararrak ez ziren damutu derbira joan izanagatik. Arrasatekoak, berriz, izoztuta geratu ziren, arratsalde hotzagatik, eta berdegunean ikusi zutenagatik. Partidu parekatua izan behar zela aurreikusten bazen ere, Bergarak lehenengo minututik apurtu zuen parekotasun hori. Hain zuzen, Imanol Cabanillasek falta jaurtiketa maisuki jaurti eta mahoneroen lehenengo gola egin zuenean. Hasiera baino ez zen.

Berdegunean hobeto

Bergara Mondra baino gehiago izan zen, markagailuan, eta jokoan. Norbaitek esango du Cabanillasen lehenengo gol goiztiarrak –bi egin zituen– goitik behera baldintzatu zuela partidua; zuri-moreei mesede ez zien egingo gol horrek, baina bestela ere Bergarak inork baino etekin handiagoa ateratzen dio zelai naturalean jokatzeari; ez aparteko jokoa egiten dutelako –aurreikusi baino hobeto zegoen berdegunea, nahiz eta labankor– baina bai baloia lapurtu eta pase pare bat eginda kontrarioaren ate aurrera berehala iristen direlako. Gainera, kontrarioak defentsa lanetan Mondrak eman zituen besteko erraztasunak ematen baditu, eginda dago bidea.

Hasieratik Bergarako erdiko zelaia Mondrakoa baino gehiago izan zen; lehenengo zatian Mondra birritan iritsi zen Bergarakoen ate ingurura –eta hala ere gola egiteko aukera garbia izan zuten arrasatearrek. Baina Bergarak Ander Ruiz de Azuaren atera bota zuen guztia barrura sartu zuen –gol asko ederrak izan ziren–, eta halaxe etorri ziren Cabanillasen biak –lehena faltaz, bigarrena penaltiz–, Eloy Cresporen, Aitor Oregiren –burukada ederra– eta Iñigo Machoren golak.

Bergarak gustua hartu die derbiei (Aloña, Aretxabaleta eta Mondra esku hutsik joan dira Agorrosindik) eta etxeko bolada onari eusten dio, urriaren 8an galdu zuten-eta azkenekoz etxean. Akatsak apuntatu ostean Mondrak hobe du zapatukoa lehenbailehen ahaztea. Eskerrak atzealdean dauden kontrarioek ez duten apartekorik egin asteburuan.

ELOY CRESPO
BERGARAKO JOKALARIA

"Lehenengo bi golak egin ostean behera etorri da Mondra, sailkapenean dauden lekuan egoteak ez duelako laguntzen". Baina bigarren zatian guk izan dugu beherakada".

JOKIN PAVO
MONDRAKO JOKALARIA

"Nik ere ez daukat oso garbi zer gertatu den gaur. Egin ditugun akatsak kontutan izan beharko ditugu. Baina galtzen joanda ere taldeak harrotasun handiagoa erakutsi beharko luke, eta ez behera horren erraz etorri".

ERREGIONAL PREFERENTEA

Bigarren postuari eusten dio Antzuolak

Lider dagoen Lagun Onak taldeak ez du Antzuolaren itzala gainetik kenduko, zapatuan Mutrikuri 4-2 irabazi ostean Juanina Garairen mutilek bigarren jarraitzen dutelako, liderrarengatik hiru puntura.

JULIO CALLEJA

OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaletak galdu eta Aloñak berdindu egin dute kanpoan

Aretxabaleta esku hutsik bueltatu zen zapatuan Oiartzunen zelaitik (3-1). Aurrealdeko postuetan finkatzeko kontrario zuzena zen Oiartzun eta Juanan Cruzen mutilek puntuka berdintzeko aukera galdu zuten. Aloña Mendik, berriz, 2-2 egin zuen atzo, Lesakan.

ARETO FUTBOLA

Eskoriatzak gol bateko aldeagatik galdu zuen Uxoaren kontra

Euskadiko Txapelketan lehian dabilen Eskoriatzak 4-3 galdu zuen domeka goizean Uxoaren kontra. Emaitza horrekin talde eskoriatzarrak hamargarren postuan jarraitzen du. Gipuzkoako bigarren mailan, berriz, Aretxabaletak 3-5 hartu zuen mendean Ceramicas Nogales taldea.

EBA

Denbora luzeegian itxarondako garaipena

Ligako hirugarren garaipena Natra Oñatik

EMAITZA

NATRA OÑATI
102-83
MERKAMUEBLE TORRELAVEGA

EDU MENDIBIL | OÑATI

Joan den urriaren 29an, ligako bigarren jardunaldian, Easo Pastas Arruabarrenaren kantxan irabazi zuenetik (64-80) partidurik irabazteke zegoen Natra Oñati. Zapatuan, ligako 15. jardunaldian, etorri zen oñatiarren hirugarren garaipena. Xabier Igartuaren taldeak 102-83 irabazi zion Zubikoan Merkamueble Torrelavegari. Ondo ospatu zuten jokalariek eta Zubikoa betetzen zuten zaleek garaipena.

Imanol Zeziaga baloiarekin. 14 puntu egin zituen zapatuan. | JULIO CALLEJA

Basket-averagea, alde

Partidu ona egin zuten Natra Oñatiko jokalariek. Garaipenak balio bikoitza du gainera: Torrelavegan zortzi puntuko aldearekin galdu zuten (91-83) eta zapatuan alde handiagoaz irabaztean, erabakigarria gerta daiteke liga amaieran jaitsiera saihesteko borrokan.

Lehen zatian 11 puntuko aldearekin aurretik ziren etxekoak (55-44) eta bigarren zatian aldeari eutsi zioten, zenbait momentutan kantabriarrek markagailua estutzea lortu bazuten ere.

Etxekoen partetik zaila da jokalari bat edo beste nabarmentzea atzo. Guztiek egin zuten lan aipagarria. Hala ere, fitxatu berri duten Ander Gartzia bergararrak argi utzi zuen ondo baino hobeto moldatu dela oñatiarren jokora. 30 punturekin, bera izan zen puntu gehien egin zituena. Jagoba Gamarrak 26 puntu egin zituen, De la Iglesiak 17 eta Imanol Zeziagak 14 puntu.

Garaipenaren garrantziaren adierazgarri, partidu bukaeran ondo ospatu zuten zaleek eta jokalariek. Jarraitzaleen laguntza eskertu zuten jokalariek kantxaren erditik. Torrelavega SAB taldeari bisita egingo dio Natrak hurrengo jardunaldian.

LEHEN NAZIONAL MAILA

JULIO CALLEJA

MUk Iturripen irabazi

Nazional mailan Mondragon Unibertsitateak 79-75 irabazi zion Lizuan. ISB taldeari, zapatuan Iturripen. Garaipen garrantzitsua zalantzarik gabe Josu Larreategiren jokalariendako. Ligako seigarren garaipena lortu zuten arrasatearrek eta, ondorioz, sailkapenko zortzigarren tokian jarraitzen dute, Estacion Servicio Velaz (arrasatearren hurrengo aurkaria) eta La Alcoholera taldeen aurretik.

EMAKUMEZKOAK

Eskoriatzako neskek ezin etxean Añorgaren aurka, 36-50

Eskoriatzako senior mailako emakumezkoen taldeak 36-50 galdu zuen zapatuan etxean, Añorgaren aurka. Bi taldeak berdindu ziren sailkapenean eta min egingo zien porrotak etxekoei. Zortzi talde dira lehian eta 4. postuan daude eskoriatzarrak. Haien atzetik dagoen Tecnun taldeari bisita egingo diote zapatuan.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Soraluce Bergarako senior mutilek Donostian galdu

Soraluce Bergarako senior mailako mutilek 11 puntuko aldearekin galdu zuten zapatuan Donostian, Beztinberriren aurka, 81-70. Saikapeneko beheladean jarraitzen dute bergararrek. Jokatutako 18 jardunaldietan bost garaipen erdietsi dituzte. Bosteko liderrraren bisita izango dute hurrengo jardunaldian.

ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

BERMEA 2 URTE

1000 b/min
6 Kg

A+ Sailkapen energetikoa
ALF 1106 GARBIGAILUA
260 € aspes

BERMEA 2 URTE

1200 b/min
6 Kg

A++ Sailkapen energetikoa
F-6012 GARBIGAILUA
315 € FAGOR

BERMEA 2 URTE

1200 b/min
7 Kg

A+++ Sailkapen energetikoa
L-72750 GARBIGAILUA
385 € AEG

BERMEA 2 URTE

1200 b/min
8 Kg

A+++ Sailkapen energetikoa
F-2812 GARBIGAILUA
395 € FAGOR

BERMEA 2 URTE

A+ Sailkapen energetikoa
2LF-013SX ONTZI-GARBIGAILUA
395 € FAGOR

BERMEA 2 URTE

A Sailkapen energetikoa
LABE PIROLITIKOA HOLLY-HP5X
INDUKZIO PLAKA HOLLY-I3S
625 € edesa

BERMEA 2 URTE

A+ Sailkapen energetikoa
STA 1410 B/N LABEA ETA
BITROZERAMIKA
315 € aspes

BERMEA 2 URTE

1440
x
545
x
600

A+ Sailkapen energetikoa
ZEN-F211 HOZKAILUA
310 € edesa

1850
x
600
x
600

A+ Sailkapen energetikoa
AC-185NF HOZKAILUA
420 € aspes

2000
x
600
x
600

NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
FFK-6835X HOZKAILUA
675 € FAGOR

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

TXIRRINDULARITZA

Dorletako Amak talde guztiak aurkeztu ditu, tartean afizionatu mailakoa

- Bailarako talde bakarra izango da kategoria horretan
- Ibarreko ziklistek debuta egingo dute kategorian


Afizionatu mailako taldean: Aitor Umerez, Alex Aranburu, Alvaro Robredo, Asier Roncero,

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Denboraldian zehar hainbatetan igoko duten Arlabango mendatearen ondo-ondoan, Dorletako Amako santutegian hasi zuten klubekoek taldearen aurkezpen ekitaldia. Goizeko lehenengo orduan meza entzun eta amabirginari lore eskaintza egin zioten, eta ondoren Eskoriatzara jaitsi ziren, Manolo Zubillagaren eskutik herritarren aurrean ziklistak banan-banan aurkeztera. Aurten, gainera, nobebade handia dute, klubak afizionatu mailan taldea izango duelako, Debagoienean bakarra.

Apustu sendoa

Iaz gazte mailan lehiatu ziren ziklistek txirrindularitzan jarraipena izan dezaten ahalegin berezia egin dute Dorletako Amako ordezkariek. Izan ere, afizionatu mailan hainbat talde desagertu egin dira, eta zaila da kategoria horretan lekua izatea. Hala, txirrindulari askok bertan behera utzi behar izaten dute kirola aurrera egiteko aukerarik izaten ez dutelako, eta Dorletako Amakoek ez dute euren txirrindulariendako halakorik nahi izan. Taldea atera ahal izateko ez da babesleak animatzeko sasoirik onena, baina Leintz aldeko ziklismo taldeak lortu du helburua, eta Kanpanzar Harrobiak eta Bañu Etxe enpresek babestuko dute afizionatu mailako taldea.

Talde erdia debagoiendarra da, iazko Mugarri-Jay eta Aloña Mendiko gazte mailako ziklistek osatuko dutena, eta beste erdia osatzeko hainbat gipuzkoar, arabar eta errioxar bat gonbidatu dituzte. Aurkezpenean Isaak Kortabarriak –Dorletako Amako presidentea– onartu moduan lasterketetan parte-hartzekoa asmoz sortu dute taldea, ziklistei kategoria horretan lehiatzeko aukera emateko: "Baina lortzen ditugun emaitza on guztiak ongi-etorriak izango dira. Taldea ezagutzera ematea da nahi duguna".

Horretarako, klubeko ordezkariek nahi beste lan izango dute aurtengo denboraldian, afizionatu mailako taldea izanda ere Dorletako Amak harrobiko talde izaten jarraituko duelako, kategoria txikienetatik hasi eta gazte mailara arte. Horrekin batera, aurten ere mendiko bizikletako taldeak izango dituzte, Lizarralde Kirolak batetik –kadete, gazte maila, elite eta 23 urtez azpikoak–, eta CDR taldekoak –master kategoriakoak– bestetik. Errepidean, Mugarri-Jayk jarraituko du gazteekin lanean, Kobate Harrobiak enpresak kadeteekin, eta kategoria txikietan JMA izango da babeslea. Hala, klubeko ordezkariek eskerrak eman nahi izan zizkien babesleei emandako laguntzagatik, eta aurkezpenean oroigarri bana jaso zuten.

Hamarkada baten ostean

Hamarkada batez Debagoienean ez da afizionatu mailako txirrindulari talderik egon. Duela 10-15 urte urte egoera bestelakoa zen gurean. Arrasate Txirrindulari Elkarteak 1996an sortu zuen afi-

Benjamin mailan Aner Uribesalgo, Julen Alcalde eta Udai Pelagio izango dira Iban Gartziaren aginduetara. | X.U.

Alebinetan: Andoni eta Asier Azkarate, Iñigo Rodriguez, Koldo Zubia, Liher Unzueta, Ohian Uroz, Unai Azkarate eta Alaitz Beloki. Entrenatzailea: Iban Gartzia. | X.U.

Nestor Uroz izango da infantiletako ordezkaria Entrenatzailea: I. Gartzia. | X.U.

Aitziber Azaldegirekin izango dira Josu Kortabarria, Ander Navarro, Mikel Oiartzabal eta Ander Zubia, kadetetan. | X.U.

Raul Blazquezek gazteak zuzenduko ditu: Jon Ander Kortabarria, Adrian Ugalde, Danel Sagasta, Asier Uroz, Gaizka Beloki, Mikel Beloki eta Ruben Carmona. | X.U.


Kadeteak mendi bizikletan: Aitor Pagaldai, Danel Beloki eta Iban Olalde. | X.U.


Gazteak: Julen Aperribai, Julen Axpe, Beñat Burgi, Mikel Iribecampos eta Adrian Oruna (hainbat falta dira). X.U.

Mendiko bizikletan, elite mailan, Haritz Kortabarria, 23 urtez azpikoetan Anaitz Alvarez eta Markel Uriarte. | X.U.

Master kategoriako taldea: Jon Altuna, Felix Zugasti, Urain aita-semeak, Iñigo Roldan eta Igor Baz. Urain eta Roldan baita ziklo-krosean ere. | X.U.

Iker Eskibel, Jokin Moratinos, Kepa Otxoa, Rafa Cordero, Sebastian Irizar, Sergio Tejada, Urtzi Bagues eta Mikel Gonzalez. | X.U.

zionatu mailan taldea, eta hurrengo urtean taldeak Born-Jay izena hartu zuen –babesleen izenak ziren horiek. Hala, 1997an ibarreko bederatzi txirrindulari batu zituen talde horrek. 1999-2000 denboraldian, berriz, Oñatin Ulma -Cegasa izeneko taldea sortu zuten, gazte mailatik igotako ziklistaz osatuta, eta aurrekontu politaz, gainera. Bi talde horiek ibarreko ziklistei aukera bat emateko asmoz sortu zituzten, baina profesionaletara iritsi ziren hainbat ziklistendako eskola apartak bilakatu ziren. Bi talde horiek urtebete baino ez zuten egin errepidean elkarrekin, Born-Jay desagertu eta pare bat urtera desagertu zen Oñatikoa. Orain, Kanpanzar Harrobiak Bañu Etxeren ordua da.

ISAAK KORTABARRIA | PRESIDENTEA

"Taldea atera dugu, baina proiektu honi jarraikortasuna eman behar diogu"

Isaak Kortabarria. | X.U.

Isaak Kortabarriak gura beste lan izango du aurten, presidente lanetan jardutearekin batera hainbat talderekin ibili beharko duelako. Baina azken hilabeteotako lana aurkeztu ahal izateaz pozik.

Kosta egin da afizionatu mailako taldea ateratzea?

Bai, egia da kosta egin zaigula, ez delako batere erraza izan. Orain jarraipena eman behar zaio proiektu honi, ez dadila urte bateko kontuan geratu. Talde honekin aurrera egitea da gure asmoa.

Apustu sendoa izan da.

Bai, gure asmoa zelako gazte mailako gazteei txirrindularitzan jarrai zezaten aukera ematea. Horregatik lauzpabost txirrindulariz osatutako taldea atera nahi genuen, baina ondoren esan ziguten taldeak gutxienez hamar txirrindulari izan behar zituela eta horrek dezente aldatzen zituen hasierako asmoak. Bai kirol ikuspegitik, eta baita ekonomikoki suposatzen zuenagatik ere.

Nongo txirrindulariak dituzue?

Egia esan leku guztietako txirrindulariak izango ditugu. Taldeko bost txirrindulari debagoiendarrak izango dira, eta Gasteizko, Errenteriako, Errioxako txirrindulariak ere baditugu. Baita katalan bat ere. Ziklista horiek guztiak iaz hemen ibili ziren korritzen.

Zein izango da taldearen helburua?

Gure asmoa taldeak lasterketetan parte-hartzea da, taldea ezagutzera ematea. Bertako txirrindulariek lehenengo urtea egingo dute afizionatu mailan, eta ezin diegu askorik eskatu, alde handia dagoelako maila batetik bestera. Taldean ditugun beste txirrindulari batzuk ezagutzen dute afizionatuen maila, eta horiek lorpenen bat egiten badute, bada, pozgarria izango da.

Eta akaso, klubeko gaztetxoek ikus dezatela afizionatuetan badutela erreferentziarik.

Hori da guretako garrantzitsua, eta orain arte ez genuena. Izan ere, gazte mailatik aurrera gazteek ez zuten non korritu.

Lana biderkatu egingo zaizue.

Zalantza barik. Iñigo Azkarate, Kepa Otxoa, Kepa Umerez, ni neu... Laurok ibiliko gara lehen taldeaz.

ESKUBALOIA

Askartzari irabazita, Ford Mugarrik sendo jarraitzen du lidergoan

Berdinketa bat izan ezik, arrasatearrek partidu denak irabazi dituzte orain arte Euskadiko Ligan

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Zapatuan Quiron Askartzaren bisita zeukan Ford Mugarrik. Romori irabaztetik eta sailkapeneko hirugarren tokira igota zetorren Askartza. Gauzak horrela, partidu borrokatua espero zitekeen liderraren eta bizkaitarren artean. Ez zen halakorik gertatu. Uste baino errazago nagusitu ziren etxekoak, 29-17. Arrasatearrek ez daukate areriorik aurten Euskadiko Ligan. Berdinketa bat izan ezik, partidu guztiak irabazi dituzte orain arte.

Talde osoak lan bikaian

Ane Herrero Ford Mugarriko entrenatzailea pozik zegoen partidu amaieran. "Ondo hasi dugu hasieratik, serio eta kontzentratuta eta, egia esateko, uste bezain zailtasun gutxiago izan ditugu garaipena eskuratzeko. Hala ere, betiko moduan, lan handia egin behar izan dugu partidua irabazteko. Talde osoak erasoan zein defentsan egindako lana goraipatuko nuke".

ESANAK

"Defentsan zein erasoan lan bikaina egin dugu"

ANE HERRERO | ENTRENATZAILEA

Goian, Asier Larrañaga hegaleko jokalaria erasoko jokaldi bat zuzentzen, zapatuan Iturripen. | JULIO CALLEJA

Atsedenaldirako partidua erabakita zegoen. 16-7 ziren aurretik Ford Mugarrikoak. Etxekoek beste 13 gol egin zituzten bigarren zatian, horietako batzuk ikusgarriak benetan. Defentsan ere bikain jardun zuten arrasatearrek eta Asier Valle atezainak lan aipagarria egin zuen. Geldiketa bikainak egin zituen zapatuan. Askartzakoek nahiko lan izan zuten etxekoen defentsan zirrikituren bat topatzeko. Iturripera joandako zaleek etxekoen jokoarekin gozatu zuten zapatuan.

Hurrengoan, derbia

Esan bezala, Ford Mugarrik sendo jarraitzen du lidergoan. Errekor denak hausteko bidean dira. Golei dagokienez, 599 egin dituzte orain arteko partiduetan eta 450 egin dizkiote. Hurrengo jardunaldian Bergarari egingo diote bisita. Joaneko partiduan, Iturripen, 33-29 nagusitu ziren arrasatearrak.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Gimnasia artista gaztetxoak Uarkapen

JULIO CALLEJA

Gipuzkoako txapelketaren barruan, gimnasia erritmiko jardunaldia jokatu zen zapatuan Uarkapen. Alebin, infantil, kadete, jubenil eta senior mailako 150 gimnasta inguru batu ziren. Lan txukuna egin zuten Debagoieneko ordezkariek. Arrasateko Dragoi Taldeak 3. postua lortu zuen kadete B mailan eta infantil mailan bosgarrenak izan ziren. Bergarako Ariznoari dagokionez, taldeka hirugarrenak izan ziren senior A, jubenil A eta alebin A mailetan; eta laugarrenak infantil A mailan. Banaka, Maitane Hernandez lehena izan zen jubenil A mailan; Jone Olabarria bosgarrena kadete A mailan; eta Ane Miren Muguruza seigarrena jubenil A mailan.

ARETO FUTBOLA

Beti Gorri kopako txapeldun, Alytis taldeari 1-0 nagusitu ostean

E.M. | BERGARA

Areto futboleko partidu baten ez da ohikoa gol bakarra izatea. Horixe gertatu zen zapatuan Bergaran, Beti Gorri eta Alytis taldeen arteko kopako finalean. Emaitzak erakusten duen moduan, partidu borrokatua izan zen Beti Gorri bergararrak eta Alytis arrasatearren artekoa. Epaileek txartel hori ugari erakutsi zituzten, joko gogorraren adierazle. Alvaro Machok egin zuen gol bakarra eta erabakigarria izan zen Jon Urteaga eta Andres Marquez Beti Gorriko atezainen lana.

Liga txapelduna, ekainean

Ekainera bitartean liga txapelduna erabakitzeko lehian jarraituko dute Labegaraietan. 14 talde dihardute aurten.

Final borrokatua izan zen zapatuan Labegaraietan jokatutakoa. | PEDRI ZAFRA

ESKUBALOIA

Bergarak Romoren kantxan galdu zuen zapatuan, 35-29

Soraluce Bergara eskubloi taldeak 35-29 galdu zuen zapatuan Romoren kantxan. Bergararrak 10. tokian dira Euskadiko Ligan. Zazpi partidu galdu eta 11 galdu ditu Josetxo Muniategiren taldeak. Hurrengo jardunaldian Ford Mugarriren aurkako derbia izango dute. Sailkapeneko lehen tokian dira arrasatearrak.

ERRUGBIA

Kanpanzar Arrasatek 57-7 galdu zuen atzo Santanderren

Igor Isasiren mutilek jipoi galanta jaso zuten atzo Santanderren, Construcciones Rivago taldearen aurka. 57-7 galdu zuen Kanpanzar Arrasatek. Aurreko asteburuan Uribealdea Mojategiko partidura aurkeztu ez, eta Kirol Diziplinarako Batzordearen erabakiaren zain dira zurimoreak.

KIROLDEGIA

Unibertsitateen arteko Euskadiko Txapelketa bihar Arrasaten

Euskadiko Unibertsitate Kirol Txapelketa jokatuko da bihar, martitzena, Arrasaten. Mondragon Unibertsitatea, EHU eta Deustu izango dira lehian, goizeko 10:00etatik 14:00etara. Irabazleek estatu mailako unibertsitateen kontra lehiatzeko aukera izango dute.

TRIATLOIA

Alex Altuna | Triatleta

"14 bat urterekin hasi nintzen triatloiak egiten; aitak ere egiten du eta horregatik hasi nintzen"

- Alex Altuna arrasatearrak 2011ko bigarren triatleta onenaren saria jaso du
- Altunaren asmoa Zarauzko triatloia prestatzea da; horretan dabil buru-belarri

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Alex Altuna gaztea buru belarri dabil triatloian. Iaz, gazte mailan, lan ezin hobea egin zuen; ondorioz, federazioak bigarren gazte onenaren saria eman dio 2011n egindako lanagatik. Aurten, 23 urtez azpikoen mailan dabil. Jakan hasi du denboraldia eta emaitza txukuna lortu du: Espainiako Neguko Triatloi Txapelketan hirugarren postua.

Jakan jokatutako lasterketan, urtarrilaren 21ean, hirugarren sailkatu zinen, 23 urtez azpikoen mailan.

Iaz, gazte mailan lehenengo egin nuen. Reinosan jokatu zen orduan Espainiako txapelketa. Aurten Jakan egin dugun lasterketan gutxigatik ez du garaipena errepikatu. Zortzi segundo atera zizkidan lehenak eta bi segundo bigarrenak; azken metroetan gainditu zidan. Mailaz igo naiz eta ondorioz nagusiagoen aurka lehiatu naiz.

Zergatik sartu zinen triatloien munduan?

Nire aitak egiten duelako –Alejandro Altuna. 24 urte daramatza triatloiak egiten. 14 bat urterekin hasi nintzen triatloiak egiten. Hutsetik hasi nintzen, ordura arte ez nuen ia ezer egin, noizean behin aitarekin irteten nintzen baina oso gutxitan.

Neguko triatloiak egiten ondoren hasi zinen?

Bai, negukoak beranduago hasi ditut, baina esan daiteke eskiatu txikitatik egiten dudala.

Nola entrenatzen duzu?

Ia egunero entrenatzen dut. Gertatzen dena da neguko triatloiak prestatzea zaila dela, elurraren menpe egon behar delako. Horregatik udakoak egiten ditut gehiago: antxintxika, igeri eta bizikletan ibili hemen bertan egiten dut.

Eskiekin entrenatzea zailagoa izango da.

Bai, elurra dagen lekura mugitu behar zarelako. Aurten, esaterako, sei bat bider joan naiz entrenatzera elurretara.

Adibidez, Isaban ere egiten da neguko triatloi bat. Martxoaren 4an egingo da eta Euskadiko txapelketarako baliagarria izango da.

Neguko triatloiak nolakoak izaten dira?

Ohikoekin alderatuta, igeri egin beharren eskiatu egiten da. Ohiko lasterketa batean lehenengo igeri egiten da, eta negukoan, hain justu, eskiatu azkeneko lekuan egiten da. Jakan, Candanchuko pistetan egin genuen, iraupen-eskia. 9,5 kilometro antxintxikan, Jakatik Candanchura 30 kilometro bizikletan eta 10 kilometro eskiatzen egin genituen.



Alex Altuna Antxintxika taldeko maillotarekin, kaskoa eta zapatilak eskuetan dituela. | A.E.

Non moldatzen zara ondoen?

Bizikletan moldatzen naiz ondoen. Eskiatu eta igeri ere nahiko ondo egiten dut, eta antxintxika moldatzen naiz okerren. Kostatu egiten zait. Teknika gutxien eskatzen duen modalitatea izan arren, ez naiz ondo moldatzen.

Udako triatloiak zelakoak izaten dira?

Udakoak 750 metro igeri, 20 kilometro bizikletaz eta 5 korrika izaten dira. Distantzia bikoitza da olinpikoa esaten dena eta nik egin gura dudana, Zarautzekoa izango da: 2.500 metro igerian, 80 kilometro bizikletan eta 20 kilometro antxintxika.

Zein da zure hurrengo erronka?

Hurrengo erronka Zarautzeko triatloia izango da, horrako preparatzen ari naiz.

Zapatuan jaso zenuen federazioaren saria. Espero zenuen?

Udako triatloien lasterketen puntuaketaren arabera jaso nuen saria. Ez zen izan sorpresa, gutxi gora behera urtean zehar egindako lanaren arabera banekien ze postutan geratuko nintzen. Pozgarria izan zen.

Zenbat triatloi jokatu zenituen iaz?

Asko egin nituen, 15 bat gutxi gora behera. Baina, federazioaren sarirako, esaterako, Euskal Herrikoek bakarrik balio dute. 10 bat egingo nituen Euskal Herrian. Puntuagarria izateko, sei egin behar dira gutxienez.

Euskal Herriko talde onenaren saria ere jaso duzue.

Nik uste dut nahiko sari polita izan dela hori. Lasterketetan nahiko aurrean ibili gara taldeko asko eta horrek puntuaketa ona eman digu. Gustura geratu gara egindako lanarekin.

Iaz 15 bat triatloi egin nituen, horietatik 10 Euskal Herrian

Duatloiak ere egiten ditut baina ez dira izaten nire espezialitatea

Zer esan gura du taldearendako sari horrek?

Taldearendako lanean gogor jarraitzeko balio du.

Egin dituzun triatloietatik zein gustatu zaizu gehien?

Debakoa, adibidez. Motza da eta aldapa asko ditu: aldapan gora ondo moldatzen naiz.

Duatloiak egiten dituzu?

Bai, ez da nire espezialitatea baina prestatzeko parte hartzen dut. Igerian ondo moldatzen naiz, eta triatloietan igeri egiten da lehenengo; duatloian, ostera, antxintxika asko egin behar da eta horretan ez naiz ondo moldatzen.

Asma eragileak dira klima aldaketa, kutsadura eta guraso erretzaileak

Faktore genetikoak pisu handia du, baina aldagai horiek detektatu dituzte

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Asma garatzen duten pertsonengan faktore genetikoak pisu handia du, baina ez da bakarra. Manuel Praena pediatraren esanetan, berriki egindako ikerketek adierazten dute faktore ez genetikoak ere garrantzi handia hartzen ari direla.

Aldaketa klimatikoa, poluzioa eta guraso erretzaileak aipatzen ditu adituak faktore eragile horien artean, eta aipamen berezia egiten du haurdunaldian tabakoa erretzen jarraitzen duten emakumeen gainean. "Amak erretzea haurrak asma garatzeko faktore erabakigarrienetako bat da", adierazi du. "Eta amak haurdunaldian erretzen badu, umearendako ondorioak bizitza osorako izan daitezke", gaineratu du. "Asma arriskua dakarten haurrengan aukera hori areagotu egiten da ama erretzailea bada, eta arrisku genetikorik ez dakartenen artean sortu egin daiteke", azaldu du.

Babestu haurrak

Praena pediatraren esanetan ingurua zaindu beharko genuke gure seme-alaben eta biloben mesederako. Tabakoaren legeak onurak ekarri dituela dio, baina helduak animatzen ditu eremu pribatuan ere haurren presentzia errespetatzeko. Haurrak erretzaile pasiboak dira gaur oraindik ere etxebizitza askotan, eta horrek ondorioak dituela argi izan behar dugula azpimarratu du. Tabako kutsaduratik garbi dauden eremuak lehenetsi behar ditugu haurren osasuna bermatzeko.

Gidatzeko moduak ere zaindu egin behar ditugula uste du pediatrak; bat-bateko azeleratzeak, bat-bateko gelditzeak, abiadura handia... horrek guztiak partikula kutsatzaile gehiago sortzen ditu eta ahalegina egin beharko genuke gutxitzeko.

Gainera, fruta eta barazkietan aberatsa den dieta mediterraneoa jarraitzeko eta haurrari bularra emateko gomendioak egiten ditu Praenak.

Haurra, zigarroa ahoan. | MERCE-2006

Haur taldea psikomotrizitate ariketa egiten. | PSICOMOTRICIDADULL

Haurrak 'gizarteratzeko' lasaitasuna eta konfiantza

Manex Beristain psikomotrizistak hiru urteko Unaxen egokitzapena kontatu du 'Guraso.com'-en

L.Z. | ARRASATE

"Haurra bederatzi hilabetez egoten da amaren sabelean eta mundua, jendartea, familia eta norbera zain egoten gara, patxadaz, haurra noiz munduratuko. Haurdunaldi unea bizi egiten dugu, ondoan egon, mimatu eta galderak egin, nolakoa izango da, noren begiak edukiko ditu, zenbat pisatuko duen... Datorrena datorrela onartu egingo dugu, maitatu eta bihotz begiekin jan". Manex Beristainen hitzak dira. Haren ustez, haur jaioberri bati lasaitasuna eta konfiantza eskaintzen dizkiogu lehenengo hilabeteetan, baina hori aldatu egiten da haurra *gizarteratzeko* unean. Orduan "presak, konparazioak eta zalantzak" nagusitzen direla uste du. Beristainen esanetan ohikoa da tankera honetako esaldiak entzutea: " Nahia bi egunetan egokitu da eskolara eta gurea hor dago oraindik negarrez, ez dakit noiz egokituko den".

Haurrak egokitzeko beharrezkoa duen ziurtasuna emateko helduok lasaitasuna eta konfiantza eman behar dizkiogula uste du adituak, eta hiru urteko Unaxen kasua azaltzen digu bere azken kolaborazioan. Kontatzen du nola Unaxek hamar saio behar izan zituen psikomotrizitate gelara egokitzeko. "Bere amona egon zen ondoan eta Unaxengan uneoro izan zuen konfiantzak eta horretarako hartu zuen lasaitasunak eman zion haurrari egokitzeko behar izan zuen ziurtasuna", dio Beristainek.

Separazio egokia

Horrelako prozesuetan presak, konparazioak eta zalantzak alde batera utzi behar direla uste du Beristainek. "Garrantzitsua da helduarekin separazioa burutu aurretik, haurra datorren espazioarekin lotura sendoa aurrena eta separazio egokia ondoren burutzea".

Kontzertu didaktikoak Orkestra Sinfonikoarekin

L.Z. | ARRASATE

Euskadiko Orkestrak *Musika Gela* izenpean biltzen ditu bertako Hezkuntza Departamentuak diseinatutako jarduera guztiak. *Musika Familian*, dagoeneko finkatutako zikloa, Gasteizen eta Donostian denboraldi orotan kontzertuak eskainita, eta eskola haurrentzako jarduerak hezkuntzaren arlora bideratutako ekimenak aurrera eramanda. Horien artean daude eskola haurrentzako kontzertuak, bisitak orkestraren egoitzara, tailerrak ikastetxeetan eta entsegu irekiak.

25 musika ekitalditik gora

Gainera, Sinfokids-en bigarren denboraldian ari dira lanean; bitartean, lehenbizikoa DVD bilakaturik Euskadiko Lehen Hezkuntzako ikastetxe, musika eskola eta kontserbatorio guztietan dago tresna pedagogiko gisa erabilgarri.

Denboraldi honetan guztira 25 dira Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin elkar hartuta izango diren musika ekitaldiak. Aipagarria da joan zen denboraldian Orkestraren jarduerek 7.500 haur baino gehiago bildu zituztela.

Antolatutako kontzertuen eta sentsibilizazio tailerren gaineko informazioa Orkestra Sinfonikoaren webgunean duzue.

Larraitz Arandok 'Altxor bat zuretzat' poema idatzi du

Guraso.com atariko sexologia aditua den Larraitz Arandok poema bat idatzi du bere azken kolaborazioan. *Alabatxo, zure sexu plazera aurkeztu nahi dizut* da poema horren lehenengo bertsoa, eta, besteak beste kili-kiliez, plazeraz eta tripetako tximeletez berba egiten du. Poema osoa irakurgai duzue *Guraso.com* atarian.

Martxoan 'Nutrizioa haurtzaroan' ikastaroa egingo dute Bergaran

Mireia Alberdi dietista nutrizionistak gidatuko du ikastaroa 2 urteko haurrak dituzten gurasoendako. Saioak martxoko eguaztenetan egingo dituzte, eta ordu eta erdi iraungo dute. Izena emateko epea zabalik dago hilaren 24ra arte. Prezioa 15 euro da. Interesatuek 943 77 91 60 telefono zenbakira deitu behar dute.

Udako Euskal Unibertsitateak bi ikastaro berri

Udako Euskal Unibertsitateak *Kantuz eta Jolastuz komunikazioa lantzen* –20 ordukoa–, eta *Irakaslea eszenan* –10 ordukoa– ikastaroak antolatu ditu apirilerako eta maiatzerako. Lehenengo ikastaroa Itsaso Arrietak gidatuko du eta bigarrena, Aitor Gabilondok. Zabalik dago izena emateko epea.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com

KULTURA

Maidagan, Ganboa eta Barriocanal, Goikobalu Gaztekoekien inguratuta egubakoitzeko aurkezpenean. | JULIO CALLEJA

Gaztetxoenek jarri zioten ahotsa Goikobaluren DVD-CDaren aurkezpenari

- Egubakoitzean aurkeztu zuten DVD-CDa Kulturaten
- Goikobalu Gazte eta Txikiko neska-mutikoek hainbat abesti kantatu zituzten

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Goikobalu abesbatzak bizirik eta osasuntsu dagoela erakutsi zuen egubakoitzean Kulturaten egindako aurkezpen ekitaldian. Bizirik, ia 23 urteren ostean ekimenak aurrera eramateko gogoz daudelako oraindik, kaleratu berri duten DVD-CDak erakusten duen moduan. Eta osasuntsu, etorkizunerako haziak landatu dituztelako.

Hazi horietako bat, Goikobalu Gazte izan zen, egubakoitzekoari hasiera eman ziona, Rakel Murgiondoren piano doinuek lagunduta eta Murgiondok berak zuzenduta abestu zuten John Lennonen *Imagine* abestia.

Abesbatzakoak segidan

Lehenengo piezaren ostean abesbatzako arduradunek hartu zuten hitza: Iñaki Maidagan zuzendariak, Juan Antonio Barriocanal presidente ohiak eta Joxe Mari Ganboa egungo presidenteak. DVD-CDaren grabaketa egiteko ideiaren jatorria azaldu zuten (Txilera egin gura zuten bidaia kultural baterako abesbatzaren ibilbidea iruditan laburtzeko eskatu zietenean piztu zen ideia), baita ze material jasotzen duen ere. Diskoaren xehetasunak ere azaldu zituzten eta eskerrak eman zizkieten DVD-CDak argia ikusi ahal izateko lagundu duten guztiei.

Aurkezpenaren ostean, Goikobalu Gazteren *Uxo zuria* -rekin eta Goikobalu Txikik abestutako kantu nahasketa batekin amaitu zen, ikusleen txalo artean, ekitaldia. Dena den, Goikobaluren talde nagusiak ere urratu zuen eztarria, ekitaldiaren osteko luntxean *Euskal Herriko* doinua abestu zuten-eta.

Hainbat tokitan erosgai

20 urtez kantuan du izena lanak; CDan, Goikobaluko talde guztiek hartu dute parte eta euskarazko 20 kantu jasotzen dira. DVDan, taldearen 20 urteko historia jasotzen da irudi, argazki eta testigantza bidez. Artemanek egindako DVD-CDa eskuragarri dago dagoeneko, 15 eurotan, herriko hainbat denda eta tabernatan: Kajoi, Itzala, Zuk Nahi, Monte taberna, Landaluze harategia, Hiper Eroski, Goxo-goxua eta Eyan.

IÑAKI MAIDAGAN
GOIKOBALUREN ZUZENDARIA

"Gustura gaude emaitzarekin; bai DVDa baita CDa ere ondo geratu dira, beti faltako den arren norbait. Gure historia erakutsi gura izan dugu: sorrera, izandako arazoak eta gauza onak eta baita gaur egungo egoera ere".

JOSE INAZIO AGIRRE
GOIKOBALUKO KIDEA

"Hasieratik nago Goikobalun. Urte hauetan guztietan denetarik bizi izan dugu: momentu baten jendeak utzi egin zuen eta kili-kolo egon ginen, baina gero berriz ere sartu zen jendea. Nik neuk hasierako ilusioarekin jarraitzen dut".

AIDA ETA ITSASO
GOIKOBALU GAZTEKO KIDEAK

"Ondo joan da kontzertua; ez geunden oso urduri eta oso gustura geratu gara. Guk ere hartu dugu parte diskoa grabatzen eta oso esperientzia polita izan da; gustura geratu gara emaitzarekin".

ARANTXA MADINA
ARRASATE

"Asko gustatu zait emanaldia; aurretik ere entzunda nituen arren, gaurkoan oso maila altua erakutsi dute txikiek. Badut DVD-CDa erosteko asmoa, bazkidea naiz-eta. Nik neuk abesten dudan? Ez, halakorik ez!".

ZELIA JAUREGI
ARRASATE

"Zazpi urteko alabak abestu du, primeran egin dute, oso polita geratu da. Erosi dut DVD-CDa; oso ondo iruditzen zait ekimen hau batetik euren lanaren konstantzia geratzeko, eta baita Arrasate ezagutzera emateko ere".

MERTXE BITORIA
ARRASATE

"Oso ondo egon da kontzertua: oso ondo abestu dute eta formal-formal egon dira. Dagoeneko erosi dut DVD-CDa; asko gustatzen zaizkit eta kontzertua ematen duten bakoitzean ikustera joaten naiz".

Hurrengo geltokiak, Leon eta Astorga

Duela hiru urte erronka berezia hartu zuten euren gain Goikobalukoek: Santiago bidea kantuan egitea. Hainbat etapa eta hainbat emanaldi egin dituzte dagoeneko, besteak beste Aurizberri, Burlata, Iruñea, Naiara, Santo Domingo de la Calzada eta Burgos.

"Oso esperientzia polita ari da izaten", dio Iñaki Maidagan zuzendariak eta jarraitu: "leku erabat ezberdinak ezagutu ditugu, eta askotariko kontzertuak eman, batzuetan mezak, bestetan kontzertu osoak". Burgosen, katedralean abestu zuten: "oso polita da, eta elizako gune nagusian beharrean bertako beste kapera baten abestu genuen arren, bisitak merezi du". Hilaren 26an eta 27an Leon eta Astorgako katedraletan abestuko dute. Noiz helduko dira Santiagora? "Asmoa da gero Ponferradan abestu eta handik Santiagora egitea. Ez dugu amaitzeko datarik: ez dugu presarik, bukatu, bukatuko dugu", dio Maidaganek.

Santiagora abesten heltzea da Goikobaluren erronka. | ISA GALLASTEGI

Ehun bat lagunek hartu zuten parte *Mirrix katua* ikuskizunean. | JULIO CALLEJA

Aratuste atarian, katakume kantariek hartu dute Oñati

Santa Ana aretoa jendez lepo, 'Mirrix katua' musikala eskaini zuten atzo Ganbara Txiki abesbatzako kideek

EDU MENDIBIL | OÑATI

Goizean entsegua eta arratsaldean estreinaldia. Ganbara Txikikoek gogor egin zuten lan atzo *Mirrix katua* musikalaren estreinaldia ondo ateratzeko. Ehun lagun pasatxok hartzen dute parte ikuskizun berrian, lagunen garrantzia azpimarratu nahi duen lanean. Mundu osoko katuak eta ahotsak dira protagonista lehenbiziko zatian; ordu erdiz, bost kontinentetako kantuak ekarri zituzten Oñatira Ganbarako katakumeek, Aitor Biainen zuzendaritzapean eta Miel Guridi narratzaileari jarraituta.

Atseden txiki baten ondorioz, bigarren zatiari ekin zioten kantari txikiek. Ainhoa Urtzelai (Mirrix), Lutxiano barraskiloak (Gorka Aranburu) eta Mikel Freire (artzain txakurra) hartu zuten protagonismoa. Haien alboan Ganbara Txiki eta Ganbara Txikitxoak. Nota bakoitzean jarri dute ilusioa nabarmendu zuen Biainek hasieran eta txalo zaparrada luzea eraman zuten guztiek amaieran.

GOIENA

AITOR BIAIN
ZUZENDARIA

"Makilaje, apainketa eta atrezzo aldetik jauzi bat eman dugu"

Emanaldiaren aurretik lasai zegoen Aitor Biain. Emanaldiaren ondoren, lanean harrapatu genuen, eskenatokia desmuntatzen, pozik.

Dena ondo atera da, ala?
Bai. Azken baten neska-mutilek badute esperientzia dagoeneko aurreko lanetatik eta horrela lan egitea, egia esateko, *gozada* hutsa da.

Zer nabarmenduko zenuke gaurko ikuskizunetik?
Makillaje, apainketa eta atrezzo aldetik jauzi bat eman dugu eta magia puntu hori lortu ahal izateko erabakigarria izan da. Bizpahiru ordu eman ditugu gaur makillatzaileekin eta ile-apaintzaileekin.

Orain, zer?
Ikuskizuna kanpora eraman nahi dugu, baina ikusi egin behar... Eta datorren urtean beste ipuin musikatu bat egitea da asmoa.

Tapoi Fest: hard-core doinuak nagusi Bergaran

M.B./E.M. | ARRASATE

Txapa Irratiko *Jar itzazu tapoiak* irratsaioko kideek antolatuta, Tapoi Fest izeneko jaialdia egin zuten egubakoitzean eta zapatuan Bergarako gaztetxean. Hard-rock doinuak izan ziren protagonista.

Talde ugari

Bi egunetan goizaldera arte luzatu ziren kontzertuak. Egubakoitzean Yaw, Vitesse, Diskoiraa eta Humilitate taldeak igo ziren gaztetxeko agertoki gainera; jarraian, DJ Zaratek hartu zien lekukoa. Zapatuan, ostera, arratsaldean, Zaragozako Necesidad de luchar eta Castelloko Garganboig taldeek jo zuten, eta gauean, JAN, Adrenalized eta Bergarako Fly Shitek. DJ 90segek eman zion amaiera jaialdiari.

Jaialdiko irudi bat. | J. CALLEJA

Governors taldeak kontzertu indartsua egin zuen. | JULIO CALLEJA

Governors: beti bezain indartsu etxean, Arrasaten

'Collage' lana aurkeztu zuten gaztetxean egubakoitzean, Drop! taldearen ondoren

E.M. | ARRASATE

Governors taldeak emanaldia egin zuen egubakoitzean Arrasateko gaztetxean. Haien aurretik Drop! arrasatearrek berotu zuten giroa. *Collage* izenburuko lana aurkeztu zuen Governorsek lagunen eta jarraitzaileen aurrean. Ohiko estilo indartsuarekin ikusleak bereganatu zituzten Juan Sangre abeslariak eta haien taldekideek: Heloy (bateria), Paco (gitarra) eta Jorge baxuak.

Metal doinuak

Metal doinu biziak eta indartsuak dira Governors taldearen marka nagusiak eta atzo estilo horri berretsi zion talde arrasatearrak. Hamar abestik osatzen dute *Collage* diskoa eta eta bat izan ezik euskarazko bertsioak dira denak, tartean Mikel Laboari omenaldia egiten diona: *Mikel Snake*.

Oi! festa zapatuan

Frenetikodrome lana atera zuenetik bi urte igaro ondoren, Usurbilgo Higain estudioetan grabatu zuten arrasatearrek *Collage* diskoa. Horretarako, Haritz Harreguyren laguntza izan zuten. Kritikak zein jarraitzaileek harrera beroa eskaini dio Governorsen hirugarren lanari. *Jostailu hautsiak*, *Galdutako laztanak* edo *Ihesi* dira kantuetako batzuk.

Ohi bezala, sua, kea eta bestelako efektuen laguntza izan zuen Governorsek egubakoitzeko emanaldian. Pasa den urteko Hatortxurock festibalerako egindako K*ristal kolpatuak* abestiarekin eman zioten amaiera gaztetxeko kontzertuari.

Gaztetxe barruko beroaren falta sumatu zuten ikusleek kalera irtendakoan. 120 lagun inguru elkartu ziren Drop! eta Governors taldeen kontzertuan.

Brand New Sinclairs bizkaitarrek emanaldi dotorea egin zuten Antton tabernan

E.M. | OÑATI

Brand New Sinclairs taldeak kontzertu dotorea eskaini zuen egubakoitzean Antton tabernan. Hango musika hitzorduetan batzen diren zaleek gozatu egin zuten emanaldiarekin eta Barakaldokoak ere gustura geratu ziren eskainiko kontzertuarekin eta sortutako giroarekin.

Soul, rhythm-and-blues, funk, surf, eta blues doinuak ekarri zituen Brand New Sinclairs taldeko laukoteak. 2007an ekin zioten euren ibilbideari eta dagoeneko bi disko kaleratu dituzte: *Ten blues pills* eta *Healing souls*. Iaz kaleratutako *Healing souls* diskoko lanak izan ziren emanaldiko ardatza. 1960-ko hamarkadako doinuak izan ziren nagusi Oñatin eta bizkaitarrek dantzan jarri zituzten ikusleak. Martxoaren 9an Donostiako Transistores 50 bikotea izango da Antton tabernan.

Laukote bizkaitarra egubakoitzean, Oñatin. | JULIO CALLEJA

Egoitz Lasa | Aktorea

"Garaiotan, horrelako barre dosia beste pixkat aurrera egiteko modua da"

▸ Ostiralean Elgetan egon zen 'Bodologuak' lanarekin

▸ Bakarrizketek osatzen dute ikuskizuna

Egoitz Lasa, egubakoitzean Elgetan. | JULIO CALLEJA

TXOMIN MADINA | ELGETA

Wazemank edo *Noaoa* bezalako saioei esker, telebistak egin zuen ezagun Egoitz Lasa (Donostia, 1976). *Bodologuak* da bere proiektu berriena, euskarazko bakarrizketa umoretsuekin osatutako antzezlana.

Umorea da nagusi *Bodologuak* antzezlanean. Bizi dugun garaian, inoiz baino beharrezkoagoa da barrea?

Zalantza barik. Zorionez, gure emanaldia ikustera etortzen dena irribarre handi batekin ateratzen da, eta ordubetez barre egin ostean, tripan agujetekin. Jende horrendako gutxienez ordubete algaraka egotea izugarria da, baita guretzat hori lortzea ere. Garai hauetan, horrelako dosi batekin beste pixkat aurrera egiteko modua izaten da.

Eta helburu hori bete guran, ze eskaintzen du antzezlanak?

Bakarrizketa moduan planteatuta dago, *El club de la comedia*-ren tankeran. Hiru aktoreok, bakoitzak bina bakarrizketa egiten ditugu eta tartean, gure arteko elkarrizketatxo batzuk. Bururatzen zaizkigun galderei eta harrikadei jendaurrean erantzuna ematen saiatzen gara; ezkontza batetik irten berritan, gai edo egoera batzuen inguruan egiten ditugun gogoetak dira kontatzen ditugunak. Horixe da ikusleek ikusiko dutena, ez gauza konplikaturik.

Hiru aktore zaudete agertokian, hirurak elkarrekin lan egindakoak. Nola ari zarete moldatzen?

Zoragarri. Oso ondo pasatzen dugu; geuk ere barre egiten dugu elkarri begira eta entzuten. Izaeraz eta itxuraz nahiko ezberdinak gara hirurok ere eta nik uste dut konbinazio orekatua dela: gure artean oso ondo funtzionatzen du eta orain arte esan digutenaren arabera, jendearekin ere bai.

Aktore batendako badago bakarrizketak baino erronka handiagorik?

Agian egongo da beste erronka motarik, baina hau oso gogorra izan zen, batez ere lehenengo emanaldietan. Gidoi bat entseatzean, ez duzu inoren aurrean entseatzen; akaso lankideen aurrean edo aulki baten aurrean, eta aulkiak ez du barrerik egiten... Lankideak badaude ere, entseatu heinean grazia gutxituz doa, *gag*-ak ezagutzen dituzte-eta. Entseatzeko oso gogorra da bakarrizketa. Lehenengo emanaldirako beldur hori bagenuen: jendeak barre egingo du? Ulertuko dute hau? Nola hartuko dute beste hau? Kezka hor egon arren, zorionez ondo joan zen. Ikusleek barrerik ez egiteak izua ematen du; baina, tira, hori zuzenekoaren parte da: lekua, ikusleak, ordua, gu geu, eguna... Funtzionamendua, aldagai askoren araberakoa da.

Telebistan eta antzerkian, bietan lan eginda, alde handia nabaritzen duzu?

Ikaragarria. Telebistan dena tranpa da. Gauzak errepika daitezke, baita asko borobildu ere: jende askok parte hartzen du, esaterako, *sketch* baten sorreran, denboraz landu dezakezu. Antzezlana zuzenekoa da: zu zeu zaude, teknikoaren laguntzarekin. Jendea aurrez aurre egoteak errespetua ematen dizu, baina baita motibatu ere: askoz ederragoa da zentzu horretan, intentsuagoa.

Komedian ikusi izan zaitugu; drama probatzeko joera edo tentaziorik?

Joera ez, baina tentazioa eta gogoa bai. Azkenean ez daukazuna bilatzen duzu: gutxienez ikustea draman ni neu gustura nagoen eta ea funtzionatzen duen. Askotan gertatzen da komedian sartzen bazara, aukera gutxiago daudela draman jarduteko.

"Guk oso ondo pasatzen dugu, barre egiten dugu elkarri begira eta entzuten"

"Telebistan gauzak asko borobildu daitezke; antzerkia intentsoagua da"

Antzezlanaren une bat. | JULIO CALLEJA

Gau hotza umorez berotzeko, 'Bodologuak'

Egubakoitz gauean egin zuen Debagoienean debuta *Bodologuak* antzezlanak, Elgetako Espaloian. Nagore Aranburu, Egoitz Lasa eta Mikel Pagadi hirukoak ezkontza baten osteko umorez jositako gogoetak eroan zituen agertoki gainera, bakarrizketa moduan aurkeztuak. Bai bakarrizketetan, baita hirurek elkarrekin berbetan agertzen zirenean ere ikusleen barre algarak izan ziren nagusi. Errez poltsikoratu zuten publikoa, besteak beste Elgetan egiten zuen hotzari erreferentzia eginaz.



GURE MUSIKA TALDEAK

FIGHT TO LIFE

Fight To Life taldeko kideak. | FIGHT TO LIFE

"Ez dugu etekin ekonomikorik gura, bai ordea diskoak hedapena izatea"

- Arrasateko Fight To Life taldeak bere lehenengo diskoa kaleratu du
- Punk Oi! doinuak egiten ditu taldeak; diskoan 8 abesti jaso dituzte

MIREN ARREGI | ARRASATE

Diskoa kaleratu berri duen Arrasateko talde bateko kideekin izan gara asteon. Fight To Life dira eurak; eta diskoa, *Lo que piensas!*. Duela bi astetik dago salgai Oihan Vitoriak, Mikel Gordejuelak, Igor Urrak eta Julen Rodriguezek sortutako abestiez osatutako diskoa.

Zuen lehenengo diskoa da...

Bergaran grabatu dugu, Elosura bidean dagoen baserri batetan. Lagun batzuen bitartez izan genuen db uhinak soinu grabaketa etxearen berri. Eurek ere han grabatu zuten diskoa eta nola gelditu zen gustatu zitzaigun. Lau egunetan bukatu genuen guk gurea.

Esperientzia polita?

Beldur pixka bat bagenuen. Asko entseatu dugu baina ez du zerikusirik lokalean jotzeak edo estudio baten sartzeak. Urduritasuna askoz handiagoa da, hala ere, oso gustura gelditu gara.

Zuek sortutako 8 abesti jaso dituzue CDan...

Guk idazten ditugu. Letrak idazten ditugu lehenengo, eta gero, musika ipintzen diogu. Punk-Oi! da egiten duguna, Arrasaten asko lantzen da genero hori. Badakigu ez garela ezer berria egiten ari, baina, guri hori gustatzen zaigu eta hori da ateratzen zaiguna.

Zer aurkituko du jarraitzaileak 'Lo que piensas!' diskoan?

Denetik dago. *Una vez mas* eta *Falsa amistad* dira abesti azkarrenak. Gazteleraz abestiak gogorragoak ateratzen zaizkigu, euskaraz, melodikoagoak.

Letrak gordinak, zintzoak eta askotan ilunak iruditu zaizkigu.

Langabeziak sortzen duen egonezinaz, munduko gerrez, laguntasun faltsuaz, bizi garen sistema kapitalista injustuaz, drogez eta abar mintzo gara. Gure iritziak eta pentsamenduak islatzen ditugu letretan eta hori da diskoaren izenburuarekin adierazi gura duguna.

Zuen asmoa da ahalik eta jende gehienarengana heltzea.

Bai, noski. Arrasaten bertan musika estilo hau gustatzen zaion jende asko dago. Baita egiten duten taldea asko ere. Gure asmoa da batetik, gure lana jasotzea eta jendeak gura duenean entzun ahal izatea eta baita, ahalik eta hedapen handiena izatea. Horregatik ipini dugu salgai 3 eurotan. Ez dugu hemendik dirurik atera nahi, bai ordea ahalik eta gehien hedatzea.

Punk-Oi! mugimendua, nola ikusten duzue?

Asko jaitsi da. Oraindik ere jarraitzen dugu hor egoten baina talde askok eta asko estiloak aldatu dituzte urteen joan-etorriaz. Gainera, duela lau bat urte, gu hasi ginenean, askoz kontzertu gehiago egiten ziren. Egubakoitzero zegoen zerbait eta gaur egun asko jaitsi da eskaintza; gainera, kontzertuetara ere jende gutxiago joaten da.

Diskoa kalean, orain kontzertuetan defendatzea tokatzen da.

Bai, hori erronka bat da. Grabatu aurretik ere jotzen genituen abestiok kontzertuetan, baina, orain jendeak badaki abestiak nolakoak diren eta ezin dugu akatsik onartu.

ZERTZELADA



'LO QUE PIENSAS!'

Estiloa: Punk Oi!.

Egilea: Fight to Life (Arrasate).

Argitaletxea: Mondra Underground Sounds, Teletetxo Records.

Iraupena: 21'10''.

Kaleko istorioak

Lau urtetako lanaren ondorioa da *Lo que piensas!* diskoa. Bertan, Fight To Life laukote arrasatearrak zortzi abesti eskaintzen dizkigu, hain famatua den Arrasateko punk eta oi! soinuan oinarritutakoak. Kantu hauetan, besteak beste, laguntasunaz, kaleko giroaz eta bizi dugun egoera latzaz hitz egiten dute. Fight to Life taldearen kantuak, kaleko jendeak bizitako istorioak dira. Doinuari dagokionez, berriz, melodia gutxiko abestiak dira, azkarrak eta zuzenak, apaindurarik gabekoak. Lehenengo lan honetan taldearen esentzia zortzi abesti hauetan batzen jakin izan dute.

ANDER MONEDERO

HAUR LAPURTUAK

GOIENA TELEBISTA | **MAGAZINEA**
Marian Zubia, 'Sos Haurtxo Lapurtuak Euskadi' Elkarteko Bozeramaileari Elkarrizketa
OTSAILAK 14, 19:48, 21:18 ETA 22:48 | OTSAILAK 15, 12:20
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Prezio berria. Aukera paregabea. Eguzki dorrean etxebizitza salgai. Eraberritua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hirulogela, bikomun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. 20 metro koadroko garaje itxia aukeran. 650 01 05 15.

Atxondo. 75 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, balkoia. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du etxe guztiak. Berogailua. Berriztatua eta altzarizhornitua. Deitu konpromiso barik eta ikusi. 180.000 euro. 655 73 74 47.

Atxondo. 200 m2-ko txaleta salgai. Sukaldea, bi egongela, lau logela, hiru bainugela (bata logela baten barruan),trastelekua.Altzariz hornitua. Berogailua,zoru erradiantea eta aspirazio zentrala. Terraza eta 4.000 m2-ko terrenoa. Prezioa: 900.000 euro (negoziagarriak). 615 70 12 23.

Berriz. Pisua salgai herri erdian.71 m2: egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta ganbara. Bihorma-armairu, berriztua eta eguzkitsua. Aurrealde margotu berria, eta komunitateko gasturik gabe. 193.000 euro. 679 86 17 30.

Berriz. Berriz erdian pisu berria salgai. 80 m2. Oso kokapen ona. Guztiz jantzita dago. Sukaldea, egongela, komun handia, 2 logela (bat zurezko ganbaratxoagaz, balkoiagaz, despentsa txiki bategaz). Berogailua, zoru erradiantea da. Oso eguzkitsua da. 607 52 24 26.

Bolibar (Bizkaia). Etxe zaharra salgai. 34 m2 x 3. Teilatu berria eta proiektuagaz. 3 gela eta 40 m2ko terraza. 150.000 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 660 35 80 67.

Durango. Pisua salgai Muruetatorren. 90 m2. Sukaldea eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun (bat logela barruan). Guztiz berriztua (ateak, leihoak, horma-armairuak...) eta jantzia. Eguzkitsua, bista eta kokapen ederrekoa. Ganbara eta garajea. Deitu 686 13 89 09 telefonora.

Durango. 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua; 3 logela, sukaldea-jangela, egongela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m2 eta 8 m2-koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz betea eta guztiz jantzia, berogailuaren galdara jarri berria, hormako lau armairu, aluminiozko leihoak, ateak eta zorua aldatuta. Garaje eta igerilekuarekin. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 655 70 46 84.

Elorrio. Zentrikoa den 90 m2-ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, garaje partzela eta trastelekua. 657 79 39 38.

Elorrio. 76 m2-ko etxe berria. Erdigunean. Sukalde ekipatua, 2 logela, 2 komun eta 10 m2-ko trastelekua. Garajea aukera erosteko aukera. Prezioa: 38 milioi. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 634 45 72 01.

Elorrio. Salgai estreinatzear dagoen 162 m2-ko terraza duen atikoa (73 m2). 2 logela, egongela bat, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua eta trastelekua. Oso kokapen ona, eguzkitsua eta bista zoragarriekin. Aukera paregabea! 615 75 59 85 (goizez) eta 636 22 49 02 (arratsaldez).

Eskoriatza. Duplexa salgai, 120 metrokoa. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. Deitu 679 16 24 96 telefonora.

Gasteiz. 57 m2, egoeraonean, kalefakzioa eta ura elektrikoak dira, hegoaldera begira, 1. solairua, 5 ate pisu bakoitzeko, igogailua, eraikinak 20 eta 30 urte bitartean ditu, 2 logela, 2 komun (biak bainerarekin), sukaldea (garbigailua, mikroondasa, etab.), balkoia, moketa logeletan, parketa egongelan eta baldosak gainontzekoan.Banakako garajea, itxia, eskiak gordetzeko tokia,piszina eta belardia urbanizazioaren barnean,aurrean plaza bat dauka, kolunpioekin etab. orain dela urte bat hormak margotu ziren eta zorua aldatu zen,altzariekin. Telefonoa: 665 75 78 07. Posta: marian.formigal@gmail.com.

Iurreta. Pisu bat salgai Arriaundin, Iurretan. 78.000 euro. 685 72 80 42.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. 60 metro koadro eta bi logela. Prezio negoziagarria. 699 78 47 49.

Ormaiztegi. Etxebizitza salgai. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. Etxe bildua eta argitsua. Bi logela. 150.000 negoziagarriak. 659 75 40 83. Garajerako aukera.

Otxandio. Apartamentu jantzia salgai trastelekuarekin. Igogailua. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 675 71 72 83.

Zaldibia. 2008-an eraikitako etxebizitza herri erdian. 81 m2. 3 logela, 2 komun, 3 armairu enpotratu, sala, sukaldea eta terraza ederra. Garaje itxia bertan. 199.000 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 626 62 37 92.

102. EROSI

Durango. Baserri bifamiliar osoa erreformatzen dizut, baserri erdiaren truke, durangaldean. Beste proposamenen bat badaukazu, kontutan hartuko dut. 618 93 62 14.

103. ERRENTAN EMAN

Atxondo. Atxondon pisua alokatzen da. 3 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. 680 42 77 02.

Bergara. Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, bi komun, sarrera, egongela eta sukaldea. Hornitua eta jantzia. 607 32 74 32.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. 663 77 14 50 / 671 14 99 63.

Donostia. Pisua alokatzen da. Donostian, Egia auzoan, jai alai aldean, pisu txiki eta polit bat alokatzen da prezio onean. Deitu: 605 72 39 55.

Durango. Logela batalokatzen dot 3 logelako pisu batean. Emakumea nahiago. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 600 45 83 16.

Elorrio. Pisua alokagai herrigunean. 3 logela, 2 bainugela. Trastelekua. Amueblatua. 600 euro hilean. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 634 45 72 01.

Elorrio. Banako etxea alokagai Elorrion. 125 m2-ko etxea, 100 m2-ko sotoa eta 100 m2-ko aterpea. 2.500 m2-ko lursaila. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 616 936 351. Manu.

Eskoriatza. Baserria ematen da errentan. Guztiz eraberritua. 605 77 51 65.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

Korosti INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
• Lorentxokon pisuak estrenatzeko. PREZIO BEHERAPEN HAUNDIAREKIN!
• Urteagan pisuak estrenatzeko. 195.000€.
• Bidekurutzetan pisuak estrenatzeko. 1,2,3 eta 4 logela.
• Masterreka 104 m². 3 logela. Estrenatzeko. Trastelekuarekin. 294.495€.
• Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona.
• Justo Garate Plaza. 80 m2. 3 logela. Ia berria. Garajea aukeran.
• Simon Arrieta 90 m². 3 logela. Balkoia, igogailua, berogailu eta trastelekuarekin.
• Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
• Ibargarai 54 m². Garajearekin. Aukera ona. 234.395€.
• Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailua eta berogailuarekin. Prezio ona.
• San Lorenzo 67 m². Garajearekin.
• Zubiaurre 51 m². 102.000€.
• Herri Lagunak 60 m². 2 logela. Oso ondo. 160.771€.
• Zabalotegi 54 m². Balkoiarekin. 96.000€.
• San Pedro 65 m². 2 logela. Erabat berriztuta. Ganbararekin. 122.606€.
• Burdiñate. 104 m². Garajearekin. Oso prezio ona.
• Martoko 70 m². 2 logela. 110.000€.
• Bolu 140 m² duplexa. Terraza eta garajearekin. Aukera ona
• Ibargarai 74 m². Igogailua eta garajearekin.
• Burdiñate 53 m². Apartamentua, oso ondo.
• Masterreka 70 m². 2 logela. Igogailua eta garajearekin.
• Bidekurutzetan 60 m² obra egiteko. Oso prezio ona.
• Zubiaurre 82 m². Igogailua eta berogailuarekin. 150.253€.
• Zubieta 240 m², baratzearekin.

Antzuola:
• Baserria 200 m². 3 logela. Berria. Garajea. Lur sailarekin.
• Buztinzurin apartamentua estrenatzeko. Aukera ona.
• Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa,
• San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak..

Soraluze:
Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Elgeta:
• Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.

Iurreta. Gelak alokatzen dira Maspe kalean, abendutik aurrera. 687 58 66 37.

Oñati. Errekalde 3an etxebizitza ematen da errentan. Igogailua, oso eguzkitsua, guztiz berritua, oso ondo hornitua eta jantzia. Hiru logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Nahiago bertako pertsonak. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 677 07 19 37.

Tolosa. Pisua alokagai Tolosa erdialdean. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Argitsua eta ikuspegi politekin. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 628 16 37 22.

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelakoa. Harremanetan jartzeko deitu zenbakira: 685 42 72 80.

Arrasate. Etxebizitza bila, errentan. Hiru logelakoa. Oso arduratsuak. 630 26 13 28.

Arrasate. Logela bila nabil. Bergaran edo Arrasaten logela edo konpartitzeko pisu baten bila nabil, nahi eta nahi ez kontratoarekin. 648 01 32 39.

Donostia. Donostian umerik gabeko bikote bat alokera pisu bila gabiltza. Gros, Egia, Intxaurrondo zaharra, Ategorrietan. Idatzi mezua belarrak@hotmail.com helbidera.

Durango. Mutil gaztea pisu konpartitu batean logela bila. Durangon edo Iurretan. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 658 42 86 12 edo 658 71 16 42 (Malick/Iñaki).

Elorrio. Alokatzeko pisu bila nabil Elorrion. Altzariekin. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 94 658 21 91.

Oñati. Etxebizitza behar dut errentan. Estudio, logela bat edo bikoa. Venezuelakoa naiz. Harremanetarako deitu 608 49 89 76 telefonora.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Deitu 678 73 66 54 telefonora.

Arrasate. Pertsona bat behar da 4 gela eta 2 bainu gelako pixua osatzeko, etxea oso eguzkitzua da,oso ondo dago eta 3 langile bizi dira bertan. Deitu 653 71 44 57 telefonora.

Arrasate. Logela ematen da errentan pixua osatzeko. Jende langilea bizi da bertan. 653 72 43 19, 699 11 45 14

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. Deitu: 630 71 35 83.

Bergara. Logela ematen da errentan pertsona bakar edo bikotearentzat. Deitu telefono honetara: 699 09 46 26.

Berriz. Logela alokagai baserri batean. Estreinatzeko eta leku paregabean. Aukeran, nahiago emakumea. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 619 66 58 57.

Berriz. Logela alokagai baserri batean. Estreinatzeko eta leku paregabean. Aukeran, nahiago emakumea. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 619 66 58 57.

Eskoriatza. Pertsona bat behar dugu plazan dagoen etxebizitza osatzeko. Guztiz eraberritua. Leire. Interesatuak deitu telefono honetara: 685 73 60 57.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Bergaran, 15 m2ko garaje itxia salgai Ozaetan. Prezio negoziagarria. 655 72 63 13 edo 943 76 50 71.

Berriz. Garaje itxia salgai. 42 m2. Ate automatikoagaz. Ura eta argiaren instalazioak, iaztik. Komuna eta bodega txiki bat. 2-3 kotxe. Txokoa sukaldeagaz. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 615 75 21 36.

Berriz. Berrizen, Learreta-Markina kalean garajea salgai. Eskola aurrean. Sarrerak errepidera ematen du. 30 m2. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 663 39 75 88.

Durango. Garajea salgai. Montorretan, Simply supermerkatuaren ondoan. 2 lerro, autokarabana sartzeko toki aproposa. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 652 76 81 31.

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrio erdialdean, 20.000 euro. Deitu telefono zenbaki honetara:660 45 87 56.

Eskoriatza. 15 metro koadroko garaje itxia salgai intxaurtxueta 23an. Deitu telefono zenbaki honetara: 679 16 24 96.

Otxandio. Garaje itxia salgai Otxandion, pertsianarekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 675 71 72 83.

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Garaje itxia ematen da errentan Araba ibilbidean. Harremanetan jartzeko deitu 678 73 66 54 telefono zenbakira.

Arrasate. Garaje bat alokatzen da Arrasaten. Larreako etxeen atzetik (Usaetxe enparantzan). 60 euro hilabetean. Sergio. Deitu 678 53 82 48 telefonora edo idatz mezu bat soliveira@hotmail.es e-postara.

Berriz. Berrizen, LegaÒo auzoan garajea alokagai. Handia eta toki lasaian. 25 m2. Kotxea zein beste hainbat gauza sartzeko. Harremanetan jartzeko deitu zenbakira: 663 39 75 88.

Durango. Kotxe partzela alokagai Askatasun etorbidea 11n. Interesatuak deitu telefono honetara: 94 681 39 32.

Durango. Garaje itxia alokairuan Sasikoa inguruan. 75 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 80 70 92.

Otxandio. Garaje itxia alokatzen da Otxandion. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara:675 71 72 83.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garaje baten bila nabil, Bergarako edozein zonatan. Harremanetarako deitu 618 90 23 66 telefono zenbakira.

3. LOKALAK

301. SALGAI

Elorrio. Elorrion 170 m2-ko lokala alokagai edo salgai. Oso toki onean, erdialdean. Eskaparate handiekin. Edozein negozio ipintzeko aproposa. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 94 658 21 01 (dendako ordutegian).

Gasteiz. Azken erabilera: Tailer mekanikoa, garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Bulegoko altzariak eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma.2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsonei moldatua. Hiri erdigunekiko komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzea ere posible da: 800 euro/hil. Deitu telefono zenbaki honetara: 665 75 78 07 (Ana).

303. ERRENTAN EMAN

ARRASATE
Taberna ematen da errentan erdigunean. Guztiz berritua.
671 42 54 32

305. BESTELAKOAK

Oñati. Lokala daukat partekatzeko moduan. Guztiz hornituta dago. Erdigunean. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 651 70 17 41

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Euskaraz hitz egiten duen emakume bat behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu 637 77 45 57 edo 678 64 15 18 telefono zenbakietara.

402. ESKAERAK

Abadiño. Persona nagusien zaintzarako, garbiketarako edo umeen zaintzarako lan bila. Orduka, gauez edo asteburuetan. Sukaldatu, plantxa egin,... Ospitaletan, garbiketan eta nagusien zaintzan esperientzia. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 696 75 35 30.

Arrasate. Neska gazte euskalduna etxeak garbitzeko edota umeak zaintzeko prest, esperientzia handikoa. Deitu 618 41 24 79 telefonora.

Arrasate. Emakume euskalduna. Umeak zaindu eta eskolara eramango nituzke. Orduka plantxa egiteko ere prest nago. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 626 29 98 43.

Arrasate. Aretxabaleta edo Eskoriatza. Andre arduratsua lanerako gertu: garbiketak edo nagusiak zaintzen. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Deitu 682 31 97 37 telefono zenbakira..

Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, edo eskolara eramateko. Magisteritzan diplomatua eta hezkuntza berezian espezialista. Deitu 600 39 47 77 telefonora

Arrasate. Neska gertu gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Esperientziakin daukat egoitzatan geriatria laguntzaile gisa. Gauak ospitalean egiteko prest. Etxe garbiketak ere bai. Deitu 693 40 88 86 telefono zenbakira.

Arrasate. 53 urteko bertako emakumea edozein lan egiteko gertu: umeak zaindu, etxekolanak egin, pertsona nagusiak zaindu eta abar. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 943 79 60 89.

Arrasate. Neska gertu etxe zein atariak garbitzeko. Erreferentzia onak ditut. 610 82 02 17.

Arrasate. Gizona gertu edozein lanetarako: garbiketak lokaletan, tabernetan zerbitzari edo bestela. Baita asteburuetan ere. 693 40 88 86.

Bergara. Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 610 34 97 88.

Bergara. Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko goizez zein arratsaldez. 605 51 96 89.

Bergara. Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Erreferentziaduna. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 669 10 13 94

Debagoiena. Denetariko garbiketak egingo nituzke. Maite. 696 88 93 73.

Debagoiena. Mutil gaztea lan desberdinak egiteko gertu. Mekaniko lanak, garbiketa, pertsona nagusiak zaindu... 645 54 43 25.

Debagoiena. Elgeta,Bergara edo Arrasate. Emakume euskalduna gertu lanerako. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 606 50 02 67.

Debagoiena. Esperientziadun automozio mekanikaria lanerako eskaintzen da. Hidraulika-neumatika eta pisudun makinen ezagutza, besteak beste. Antonio. 656 69 80 70.

Debagoiena. Neska euskalduna edozein lanerako gertu. 673 41 99 69.

Debagoiena. Neska euskalduna umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. Informeak ditut. Disponibilitate osoa. 671 35 22 60.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak eta abar. 638 59 04 71.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusi zein umeak zaintzeko orduka edo asteburuetan ere bai. 606 54 89 90.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu umeak zaindu, orduka garbitasun lanak egin edo nagusiak zaindu zein laguntzeko. Deitu zenbaki hauetara: 943 71 53 74 / 695 73 87 95.

Debagoiena. Emakumea etxeko lanak eta persona nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. 680 12 73 16.

Debagoiena. Neska euskalduna gertu umeak eta nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Informeak ditut. Esperientziaduna. 671 35 22 60.

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, garbiketa eta abarrak egingo nituzke. Gozogintzan aditua naiz. Orduka zein egun osoz. 686 66 80 63.

Durangaldea. Interna edo orduka lan bila dabilen neska. Nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketa lanetarako. Pertsona nagusien zaintzan esperientzia. 689 98 72 06.

Debagoiena. Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota klase partikularrak emateko. Magisteritzan diplomatua eta hezkuntza berezian espezialista. 600 39 47 77.

Debagoiena. Etxeko lanak eta garbitasunak egingo nituzke. 646 10 21 66.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak eta abar. 638 59 04 71.

Debagoiena. Emakume euskalduna gertu plantxa edo etxe zein bestelako garbiketak egiteko, orduka. 680 49 11 45.

Debagoiena. Asteburuetan zerbitzari lanak egingo nituzke jatetxe batean. Esperientzia eta ingelesa. 649 57 70 59.

Debagoiena. Neska gertu sukaldari edo garbiketa lanak egiteko. Esperientziaduna. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. 619 78 63 41.

Debagoiena. 40 urteko emakumea gertu nagusi zein umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 620 43 85 40.

Debagoiena. Bertako neska gertu nagusiak zaindu eta etxeko garbiketak egiteko. Eskarmentu handikoa. 696 84 19 51.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Deitu 651 38 85 38 telefonora.

Debagoiena. Nagusiak zaiduko nituzke. Legezko papereak eta gidatzeko baimena dauzkat. Eskarmentu eta erreferentzia onak. 603 14 59 17.

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke asteburutan, jaiegunetan edo etxean bertan. Gauez ere bai. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 638 13 97 28.

Debagoiena. Neska arduratsu eta atsegina garbiketa, ume zein nagusien zaintza edo bestelako lanetarako gertu. Etxean bizi izaten edo orduka. Magaly. 615 06 28 04.

Debagoiena. Sukaldelaguntzaile, garbiketa edo nagusiak zaintzen jardungo nuke. 691 03 25 02 / 943 54 09 41.

Debagoiena. Haur hezkuntza ikasia eta esperientzia duen neska euskalduna goizez zein arratsaldez haurrak zaintzeko prest. 680 34 29 60.

Debagoiena. Emakumea eskeintzen da etxeko garbiketa orokorrak egiteko, esperientziaduna. Lanean hasteko prest. 672 88 01 01.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu zein tabernatan lan egiteko. Egun osoz zein orduka. 605 41 88 20.

Debagoiena. 42 urtetako emakumea lanerako prest, arraindegian lan egiteko eta janariak manipulatzeko karnetak ditut. Pertsona nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko prest. Automobila daukat. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 678 98 30 32.

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke: nagusiak zaintzen edo denetariko garbiketa lanetan. 699 09 46 26.

Debagoiena. Emakume esperientziduna eta arduratsua, etxeko lanak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 680 12 73 16.

Debagoiena. Zaintzailea. Haur hezkuntza ikasi duen 22 urteko neska prest haurrak zaintzeko. Interesatuok zenbaki honetara deitu: 688 88 39 57.

Durangaldea. Asteburuetarako lan bila. Garbiketan, umeen edo nagusien zaintzan. Esperientzia eta erreferentziak. 697 12 64 38.

Durangaldea. Emakume arduratsua nagusien edo umeen zaintzan edo garbiketan lan bila. Interna, externa, orduka edota asteburuetan. Erreferentziak eta esperientzia. 680 29 66 76.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko, lantegietan zama lanak egiateko edota garbiketalanetan jarduteko. 685 42 72 80.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko, baita etxean bertan bizi izaten ere. Umeak ere zainduko nituzke edo garbiketa lanak egin. Baserrietan ere bai. 669 10 13 94.

Durango. Bulegoen, etxeen, portalen... garbiketerako edo nagusien zaintzarako lan bila. Jardunaldi erdian, aukeran goizez, astelehenetik zapatu eguerdira. Esperientzia. 676 54 66 91 (Lola).

Durango. Durangoko emakumea orduka etxeko lanak egiteko prest, informeekin. 94 466 89 26 edo 688 65 90 90.

Durango. Goizetan umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest nago. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezian diplomatua; neure kotxea daukat. 695 75 23 25.

Durangaldea. Interna edo externa modura lan bila. Ume edo nagusien zaintzan edota garbiketa lanetarako. Orduka, asteburuetan edota gauez ere. Erreferentzia eta esperientziarekin. 679 71 64 42.

Durangaldea . Neska euskalduna asteburuetan umeak zaintzeko prest, bai egunez zein gabez. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 628 24 36 02.

Durangaldea. Ipuin kontaketa eta monologo humoretsuak eskaintzen dira. Tabernetan, ezkontzetan, juergetan,... 651 36 97 69. Roman

Durangaldea. Emakume arduratsua lanerako prest, pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Erreferentziaduna. Mugitzeko arazorik ez. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 660 64 20 98.

Durangaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest, externa edo interna. Esperientzia etaerreferentziak. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 638 20 34 50.

Durangaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest, externa edo interna. Esperientzia eta erreferentziak. 689 30 85 82.

Durangaldea. Emakume arduratsua umeen edo nagusien zaintzan edota garbiketa lanetarako prest. Interna, externa edo orduka. Erreferentziak eta esperientzia. 659 73 92 65

Durangaldea. Goizez, arratsaldez zein gauez lan egiteko prest. Garbiketa lanetarako edota gauez pertsona nagusiak zaintzeko. 690 68 73 95

Durangaldea. Interna edo orduka umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeak garbitzeko lan bila. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 646 20 72 71.

Durangaldea. Nagusien zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Esperientzia eta erreferentziekin. Goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:30ak arte. 633 03 86 09.

Durangaldea. Umeen edo nagusien zaintzarako edota garbiketarako lan bila. 14:00etatik 20:00etara. Esperientzia eta erreferentziak. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 638 43 79 01

Durango. Psikologian lizentziatua. Durangoko neska euskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak orduka zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. Klase partikularrak emateko prest ere bai. Interesatuak deitu telefono honetara: 646 53 83 90.

Durango. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna edo externa. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 683 47 28 05.

Durango. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna. 632 11 77 23.

Durango. Garbiketa edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxeen edo portalen garbiketa, ospitaletako edo etxeko zaintzak,... Jardunaldi osoa edo erdia, gauez, orduka,... Esperientzia. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 690 68 73 95.

Durango. Garbiketa edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxeen edo portalen garbiketa, ospitaletako edo etxeko zaintzak,... 16:00etatik 20:00etara. Esperientzia. Deitu 646 92 52 15 telefono zenbakira.

Durango. Nagusien, umeen zaintzarako edo garbiketarako lan bila.Jardunaldi osorako, asteburuetan,... Erreferentziak eta esperientzia. 681 21 82 30.

Durango. Nagusien zein umeen zaintzan edo garbiketarako lan bila. Interna, externa, orduka edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 619 15 58 04.

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Durango. Umeak zaintzeko edo partikularrak emateko prest. Magisteritzan diplomatua. Ingeleseko eta euskerazko titulazioekin. Esperientzia. 657 77 61 71.

Durango. Ingeniaritzako ikaslea LH, DBH eta batxilergoko ikasleei eskola partikularrak emoteko prest. 666 20 78 45.

Durango. Erizaintzako ikasle euskalduna LH eta DBH ko ikasleei klase partikularrak emateko prest. Esperientziaduna. Interesatuak: 685 73 70 15 (Ane).

Gitarra eta baxu klaseak. Gitarra eta baxu klaseak ematen ditut, Durangon. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 616 31 02 49 edo94 620 05 98. karsaso4@hotmail.com

6. MOTORRA

601. SALDU

125eko motorra salgai. Yamaha ybr 125 salgai. Kotxeko karnetagaz eraman ahal da, 10.000 km eta egoera ezin hobean dago. Deitu eta probatu. 676 90 01 05.

Autokarabana salgai. Autokarabana salgai. 2009 urtekoa. 6 plazakoa. Egoera onean. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 652 76 81 31.

Autokarabana salgai. Autokarabana Benimar sport 310 salgai.50.000 km. Hiru urtekoa eta 6 pertsonentzako lekua. Ekipamendu osoa eta oso ondo zaindua. 31.000 euro. 676 61 71 54 edo 676 98 33 06.

Autokarabana salgai. Autokarabana salgai. 2002. urtekoa. 100.000 km. 21.000 euro. 607 86 32 24.

BMW f 650 gs 2004 33.000km. Gutxi erabiltzen dudalako, BMW f650gs saltzen dot, oso ondo zainduta. Abs, kalefakzioa eskuetan, pantalila altua, warning, Givi maletategia (bi kasko gordetzeko), 3.000 km dituzten erruberak. IAT-a 2013ko uztailera arte. 44-45eko botak eta XLneurriko kaskoa opari. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 665 71 29 31.

Fiat punto salgai. Fiat punto salgai. 2007. urtekoa. 48.425 km. 8.000 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 665 74 56 03.

Opel Kadett. Opel Kadett autoa salgai. Deitu 679 68 92 07 telefono zenbakira.

Smart kotxea salgai. Smart fortwo coupe passion salgai. 62 zp. 48.000 km. la berria eta oso egoera onean. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 676 61 71 54 edo 676 98 33 06

Suzuki sj 410 salgai. Suzuki sj 410 hard top (Samurai) salgai. Gasolina. 1000 cc. 45 zaldi. IAT-a urtero. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 667 48 51 66 edo 667 48 54 36

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Ahuntzak. Salgai, bakoitza bi antxumerekin. 180 euro. 678 25 52 35.

Ahuntzumeak salgai. Ahuntzume bi saltzen dira mallabiko Elgetzu baserrian. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 606 70 91 18.

Artzai txakurra salgai. 3-4 urteko euskal artzai txakur mantsoa salgai. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 692 81 90 35. Amaia

Asto arra. 3 urteko asto arra salgai debagoienan. Beltza da eta mantsoa da. Prezio negoziagarria. 655 71 39 27.

Behorrak salgai Debagoienean. Bi behor salgai, prezio onean. 695 73 67 61.

Ahuntzumak salgai. Ahuntzumak haurdun. Azpizuri eta azpigorria. Mugikorra: 688 60 95 60. Deitu telefono zenbakira: 94 466 81 37.

Txakurkumeak. Malinois belgiar artzai txakur kumeak salgai. 667 74 65 27.

Txakurrak salgai. Urtarrilaren 17an jaiotako pitbull kumeak saltzen dira. Arrak eta emeak ditut. Beltzak batzuk eta besteak atigrauak. Gurasoak ondo hezitakoak, jatorrak eta mantxoak. Deitu konpromizo barik. Telf.: 688 69 87 56.

703. EMAN

Artzai txakurra opari. Bi hileko artzai txakurra oparitzen dugu. Nahi duenak deitu 94 681 43 24 telefonora

Txakurkumeak opari. Azaroan jaiotako txakurkumak oparitu nahi ditut. Ama labradora da. Txakur bat, marroia, arra da. Eta bestea,beltza, emea. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 638 98 59 30

Txakurra erdi opari. Mastin arrazako txakurra erdi oparitzen da. 4 urte, arra. Oso esanekoa, ona. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 616 91 90 61.

8. DENETARIK

801. SALDU

Abadiño. Lursaila salgai Matienan (AbadiÒo), arzubia kalean, 2.000 m2, erreka ondoan eta bide ertzean. Aproposa ortua hartzeko. Hainbat fruitu arbolaz hornitua. Matienatik hiru minitutara oinez. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 658 75 65 12.

Beheko sua, kristalduna, salgai. Beheko sua, kristalduna, salgai. Erdi berria. Haize beroabotatzeko zuloekin. 66x80x50zm. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 619 48 50 58.

Bergara. 16.000 metro koadroko lursaila salgai, 30 urteko pinuekin. Automobilez bertara iristeko modukoa. Deitu 653 71 66 87 telefonora.

Bergara. Lursaila eta borda txikia salgai. Gorla inguruan. Arbolartea. 655 91 87 17

Bernedo. Lursail eraikigarria Urturin salgai dago, Bernedon. Gasteizetik 40km-tara dago, eta Izkiko golfetik 3minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. 665 75 78 07 (Ana).

Bikiendako Firstwheels karro urdina. Bikiendako Firstwheels karro urdina. Oso gutxi erabilia. Bijesarleku, bi kapazo, plastikoak, bi zakutxo zuri (pikezkoak)eta moskitoendako sareak. Ia berria. Begiratu web-eko argazkiak.390 euro. Deitu konpromiso barik. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 659 34 72 81 .

Compaq ordenagailua salgai. Debagoienan. Oso egoera onean eta prezio interesgarria. Deitu 662 58 52 29 edo 943 20 81 17 zenbakietara.

DVDa. LG DVD berria salgai. Prezio interesgarria.Deitu 943 77 00 26 telefonora.

Egongelarako aulkiak salgai. Zure egongelarako zoragarriak diren 5 aulki saltzen dira. Oso egoera onean eta prezio ezin hobean: 60 euro bostak. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 615 72 62 52.

Eskiatzeko materiala. 10-12 urteko umearendako praka, 36 neurrikoa, eta snow taula salgai, 1,25 neurrikoa, lokailuekin. 656 78 64 64

Esnea ateratzeko gailua salgai. Esnea ateratzeko gailua salgai, Medela Swing markakoa, merkatuko onena. Egoera onenean. Automatikoa. Honekin batera avent markako esnea ateratzeko gailu manuala oparitzen da. 60 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 607 86 32 24.

Gitarra elektroakustiko. berria salgai. Tanglewood model premier Twissas. 1012929 seriekoa. 620 64 96 37

Gitarra elektroakustiko berria salgai. Gitarra elektroakustiko berria salgai debagoienan. Tanglewood model premier twissas. 1012929 seriekoa. 620 64 96 37.

Lasterka egiteko zinta salgai. Pro-form 360 pultsazio. 400 euro (negoziagarriak). Deitu telefono zenbakira: 688 64 05 05.

Mahaiak eta aulkiak salgai. Egurrezko lau mahai eta aulkiak salgai. Txoko baterako egokiak. 695 76 84 21.

Mendi eskiko botak. Mendi eskiko botak debagoienan. Scarpa Avant mendi eskiko botak saltzen ditut egoera onean. 75 euro. 43 zenbakia. Kontaktatzeko deitu zenbaki honetara: 652 72 66 97.

Mountain bike-a salgai. Mountain bike horia salgai. 3 plato eta 8 pinoi. 6tik 10era urteko ume batentzat. 75 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 94 682 07 67 (Igor).

Paratxokea. Wolkswagen Golf 3 autoaren aurreko paratxokea salgai. 50 euro. 665 74 51 80

Piano elektrikoa salgai. Yamaha Clavinova CLP 150 piano elektrikoa salgai. Kontaktua: 650 17 22 85 edo stratokaster@gmail.com

PSP Go-a salgai . Debagoienan. Berria. Prezio interesgarria. 943 77 00 26.

Taxi lizentzia. salgai Arrasaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 76 36 85

Umeak eramateko. Jane etxeko kapazoa, Maxi Cosia eta aulkitxoa salgai. Oso ondo zainduta. 199 euro. 653 722 254 edo marysea15@hotmail.com

Umea eramateko motxila. Vaude Jolly Light, umeaeramateko mendiko motxila salgai. Estreinatzeko, etiketa eta guzti. 100 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 94 603 25 02.

Xurgagailua salgai. Bigarren eskukoa, ia erabili gabekoa. Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. 659 62 02 49

802. EROSI

Akordeoi kromatikoa. Bigarren eskuko akordeoi kromatikoa erosiko nuke. 120 bajukoa (botoiduna). 639 15 40 48

Bizikleta. 4 urteko mutikoarentzat bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. 649 00 53 42

Bizikleta. Esekidura bikoitzako bizikleta erosiko nuke. Egoera onean dagoen bizikleta baldin badaukazu eta saldu nahi baduzu, email bat bidali mesedez. laguntzen@gmail.com.

Lursaila. Lursaila erosiko nuke Bergara edo inguruko herrietan. 5.000 euro inguru ordaintzeko prest. 669 17 09 51

803. EMAN

Bidali zure ordenagailua Boliviara. Bidali zure ordenagailua Boliviako eskoletara. Ordenagailua hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu Boliviako bigarren mailako eskoletara. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 655 71 76 66.

806. GALDU

Eraztuna Bergaran. Ezkontza eraztuna galdu dut. Bi eraztun dira batean, soldatuta. 646 05 62 62

Telefono mugikor berria galdu dut. Errege bezperan, urtarrilaren 5ean, telefono mugikor berria galdu nuen 01:00etatik 02:30era bitartean, Bergaran. Sony Ericsson markakoa da, berri-berria. Norbaitek aurkitu badu eskertuko nuke deitzea. Txetxu. 656 79 60 93 edo 943 76 05 47

807. AURKITU

Eraztuna . Antzuolako plazan urrezko eraztun bat aukittu genuen abenduan. Norbaitek galdu badu deitu telefono honetara: 656 76 78 90

Lepokoa Bergaran. Lepokoa aurkitu nuen urtarrilaren 19an, eguenez, Bergarako Irala kalean. Zurea bada deitu zenbaki honetara: 630 12 39 08

808. BESTELAKOAK

Arrasatetik Donostiara autoan. Egunero Arrasatetik Donostiara joateko autoa partekatzeko jende bila nabil. Arrasatetik 8:30ean irtetzen naiz eta Donostiatik 17:30etan. Imanol. Interesatuok deitu 669 13 20 08 telefono zenbakira.

Durangotik Tolosara autoa konpartitzeko. Durangon bizi naiz eta Tolosan egiten dut lan. Kotxea konpartitzeko pertsona bila nabil. durangotolosa@gmail.com. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakira: 680 58 41 25.

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Hernanitik autobusa. Otsailaren 25ean, sagardotegi ostean Hernanitik bueltatzeko autobusa bete nahian gabiltzan Onatiko lagun taldea gara. Harremanetarako deitu 645 73 25 65 telefono zenbakira.

www.inmosalbide.com
Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak

Aia. Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m2ko terraza. Oso prezio onean 39.000.046 pezeta!

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.

Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldea, berokuntza sistema gasarekin. Aparta. 31.946.112 pezeta.

Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. 39.000.000 pezeta.

Getaria. Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Oso prezio onean. 39.000.000 pezeta.

Zarautz. Vista Alegre. 2 logela, bainugela, sala, sukaldea. Bista zoragarriak itsasoaldera. Oso prezio onean. 38.000.000 pezeta.

Zestoa. Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

ACTAren aurka egiteko, manifestazio jendetsuak

- Europako 200 hiritan egin ziren akordioaren aurkako protestak, zapatuan
- Alemaniak hitzarmena ez duela sinatuko iragarri zuen egubakoitzean

IRATI GOITIA | ARRASATE

ACTA datuen faltsutzearen aurkako akordioa da. Nazioarteko hitzarmena da eta, besteak beste, Australia, Kanada, Japonia, Zeelanda Berria eta Amerikako Estatu Batuek sinatu dute. Urtarrilean Europar Batasunak ere bat egitea erabaki zuen.

Hitzarmen multilateral boluntarioa da eta bere helburua da jabetza intelektuala babestea. Lan horretan, Interneteko pirateriari mugak jartzea zehazten du, besteak beste. Ondorioz, akordio honek kontrolerako neurri gogorragoak ekarriko lituzke eta herrialdeen arteko mugez haratagoko zaintza areagotzea ahalbidetuko luke. Izan ere, datuak babesteko, herrialde ezberdinek indarrak batzea eta araudi komuna erabiltzea da lortu nahi dena.

Akordioak ezarriko lituzkeen prebentzio neurrien artean daude: isunak eta kartzela zigorra. Herrialdeek era boluntarioan egin dezakete bat hitzarmenarekin. Jada, Europar Batasuneko 22 herrialdek sinatu dute, baina oraindik Europar Parlamentuan berretsi behar da. Ekainean izango dute gaia mahai gainean.

ACTA akordioaren aurkako maifestazioa Munichen. | TERRA.COM

Baina, badirudi indarra galtzen dabilela. Izan ere, ez sinatzea erabaki duten herrialdeen zerrenda gero eta luzeagoa da eta protestak ere izan dira.

Alemaniak ez du sinatuko

Alemaniako Atzerri Arazoetako Ministroak akordioa ez sinatzeko agindua eman zuen egubakoitzean, Europar Batasunak bere aldeko botoa ematen ez duen bitartean. Mexiko izan zen akordioarekin bat ez egitea erabaki zuen lehen herrialdea. Ostean etorri ziren, besteak beste: Polonia, Txekiar Errepublika, Eslovakia eta Letonia. Herritarren artean piztutako aurkako iritziak eta izan diren protestek eragin zuzena izan dute agintariek erabaki hori hartzerako orduan. Hain zuzen, zapatuan, jendez bete ziren Europako hainbat hiritako kaleak.

ACTAren aurkako eguna

Zapatuan, otsailak 11, ACTAren aurkako nazioarteko eguna ospatu zen Europan. Milaka pertsonak hartu zuten parte protesta ekintza koordinatuetan; kontinente osoan 200 protesta izan ziren. Manifestaziorik jendetsuenak Alemania, Polonia eta Holandakoak izan ziren. Londresen, adibidez, 200 lagun elkartu ziren hiriburuaren erdigunean, autore eskubideen babeserako eragile garrantzitsuenen bulegoen aurrealdean.

Manifestatzaileek argudiatzen dute ACTA akordioak adierazpen askatasuna mugatuko duela Interneten.

Hitzarmena babesten dutenek, bestalde, adierazi dute hitzarmenak ez duela egun datuen babeserako eremuan dauden legeen aldaketa ekarriko; baizik, autoreei babesa eskainiko diela, Interneteko pirateriari aurre egiterako orduan.

Orain dela hiru urteko argazkiak kendu gabe Facebooken

I.G. | ARRASATE

Azken hiru urteotan Facebookeko erabiltzaileek euren profiletik ezabatu dituzten argazkiak oraindik ez dira ezabatu. Sare sozialaren zerbitzarietan jarraitzen dute, eta, link zuzena jakinez gero, posible da ikustea.

"Hutsegitea izan da"

Facebookeko ordezkariek adierazi dute hutsegitea izan dela, eta gaineratu Palo Alton dituzten bulegoetan hura zuzentzeko buru-belarri dabiltzala lanean. Onartu dute baina: "Gure zerbitzariek ez dituzte beti erabiltzaileek euren profiletatik ezabatzen zituzten edukiak kentzen".

Argazkiak ez ezabatzearen arrazoiak honakoak direla esan dute: zerbitzari zaharrak eta erabiltzen zuten ezabatze sistema. Konpainiak zehaztu du oso gutxi direla zerbitzari zaharrarekin funtzionamenduan dauden profilak. Eta aurreratu dute orain, optimizatutako beste sistema bat garatzeko lanetan dabiltzala. Hura askoz azkarragoa izango da eta ahalbidetuko du erabiltzaileek euren profiletatik kendutako argazkiak hilabete eta erdiko epean behin betiko ezabatuta geratzea. Konpainiak adierazi du bi hilabeteko epean martxan izango dela behin betiko ezabatzea sare sozialeko erabiltzaile guztiendako.

Google-en pribatutasun politikaz kezkatuta datu babeserako agenteak

I.G. | ARRASATE

Europako Batasuneko datuen babeserako adituak kezkatuta daude Google-en politikekin.

Pribatutasun politika berria

Google-ek adierazi zuen bere zerbitzu guztien datu eta pribatutasun politikak baterako zituela. Hala, Interneteko erraldoiak edozein plataformatan jarraitu ahal izango ditu erabiltzaileek emaniko urratsak; hau da, Youtube, Android edo Google+ zerbitzuek datuak elkar-trukatuko dituzte. Politika berria martxoko lehen egunean da abian jartzekoa.

Bada, aldaketa horrek kezkatuta du datuen babeserako Europako Batasuneko taldea. Horregatik, gutun bat bidali diote Larry Page konpainiako fundatzaileorde eta presidente exekutiboari. Bertan eskatzen diote "politika berria eteteko, ez dadin gaizki-ulerturik egon Google-ek Europako Batasuneko erabiltzaileen informazio eskubidean hartuta dituen konpromisoekiko".

Irterneteko handiak adierazi du hartu duen erabakia publiko egin aurretik hainbat erregulatzaile europar jakinaren gainean ipini zituztela eta inork ez zuela "kezka zantzurik" adierazi orduan. Gaineratu dute hilabeteko epea izan dutela autoritateek euren kezkak adierazteko. Horregatik, konpainiako arduradunek adierazi dute ustekabean jaso dutela gutuna.

Google-ek errealitate areagotuko betaurrekoak aterako dituen zurrumurrua egia omen da

Abenduan argitaratu zen Google-ek errealitate hobetuko betaurrekoak kaleratuko zituen albistea, eta, orduan, inork gutxik eman zion sinesgarritasunik horri. Bada, orain, datu berriak ezagutu ditugu, eta, antza, laster aterako luke beta modeloa merkatura. Betaurrekoek aurrealdeko kamera izango dute, eta horrek informazioa eta argazkiak jasoko ditu; ondoren, errealitate areagotuko aplikazioetan erabiltzeko. Ahotsa errekonozitzeko gailua eta *display*-a ere izango ditu.



Path mugikorretarako aplikazioa. | PATH.COM

Path 'mugadun' sare soziala izugarrizko arrakasta izaten ari da

I.G. | ARRASATE

Ez da zerbitzu berria; izan ere, dagoeneko urtebete baino gehiago du. Baina 2.0 bertsioarekin egin duen eraldaketari esker, mugikorretako aplikazio bilakatu da Path; zehazki, sare sozial. Eta, egia esan, berregituraketak izugarrizko onurak ekarri dizkio. Horren adierazle da honako zifra hau: birdiseinatu duenetik, bi milioi erabiltzaile berri lortu ditu. Izugarrizko marka; modan jarri dela ezin ukatu.

Mugadun sare soziala

Sare sozialen ikuspegi berria dakar Pathek; izaera mugatua du. Izan ere, gehienez, 150 lagun gehi daitezke kontaktuetara. Hala, lagun minenekin harremanetan egoteko aplikazioa da. Ez du ahalbidetzen milaka eta milaka lagun gehitzea, Facebookekin gertatzen den moduan. Beraz, sare soziala baino gehiago, sare antisoziala dela diote hainbat adituk. Azken batean, Pathen helburua da lagunik gertukoenak gehitzea, nork bere intimitatea horiekin bakarrik konpartitzeko.

Hala ere, badago sarera igotako datuak konpartitzeko modua ere, Twitterren, Facebooken eta Forsquaren publikatzeko aukera dago-eta.

iOS eta Android aplikazioetarako dago eskuragarri, oraingoz.

Arazoei aurre egiteko 'think tank' propioa Googlek

I.G. | ARRASATE

Egungo gizarteko arazoei aurre egiteko helburuarekin eta irtenbideak topatzeko nahiaz, arlo askotariko jakintsuak batu, eta aholkularitza taldea sortu du Googlek.

Interneteko enpresa handiak ideia berritzaileak eta ausartak bilatzen ditu berotze globala, ur eskasia eta halako arazoei konponbidea topatzeko, adibidez. Hala, "zientzia fikziozkoak" diruditen ideiak ematera animatzen ditu adituak Googlek; betiere, aurrerapen teknologiko errealistetan oinarrituta badaude, noski.

Sortu duten foroaren helburua da adituen elkarlana bultzatzea, horrek teknologia alorrean garapena bultzatuko duela uste dute-eta.

TELE-BEGI

AMAIA PAVON

'Ai, ama!'

Aurreko baten aurreratu genuenez, aldaketa garaiak datoz ETB1en. Gaur estreinatuko den *Ai , ama!* saioaren grabazioan egon ginen pasa den astean (Iban Garate aurkezlariaren hitzetan, zuzenean emitituko dute ondo bidean).

Astelehentik ostiralera 21:00etan emitituko da *Ai, ama!*, ordu erdiko atal laburretan. Iban Garatek egingo ditu aurkezle eta elkarrizketatzaile lanak eta berarekin batera egongo dira kolaborazioan Mikel Pagadi, Itziar Atientza eta Xabier San Sebastian pertsonaiak, umorearen alarderik onenean.

Pertsonaia famatu bat elkarrizketatuko dute saio bakoitzeko (Gorka Otxoarekin egon ginen gu, bihar emituko duten saioan), eta, kolaboratzaileekin batera, elkarrizketa fresko, dinamiko eta dibertigarria ikusteko aukera izango dugu.

Konparazioak ez omen dira izaten gustukoak, baina programako lankide batek *El Hormiguero* aipatu zigun *Ai, ama!* aurkeztu ahala. Izan, bada formatu beretsua duen saioa. Behintzat, Euskal Herriko ekoizpen kulturala promozionatzeko balio badu, gaitz erdi. Imitazioetan jausiz gero, ordea, zaila izango da bizi iraupena...

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 13

Bergara-Mondra derbia ikusgai

20:45

Agorrosinen zapatuan jokatutako Bergara–Mondra derbian gertatutakoa ikusi ahal izango duzue *Harmailatik* saioan.

12:25 Magazinea
13:25 Onein
13:55 Kantari
14:28 Beranduegi.tv
14:45 Berriak
15:15 Berbetan
15:45 Ur eta lur
16:15 Hamaika.bit
16:48 Berriak
17:18 Bizitegia
17:48 28.Klip
18:12 Altxor Txokoa
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Harmailatik
21:30 Beranduegi.tv
21:50 Magazinea
22:50 Harmailatik
23:35 Gipuzkoa kultura

MARTITZENA, 14

SOS Haurtxo Lapurtuak

19:48

SOS Haurtxo Lapurtuak Euskadi elkarteko Marian Zubia bozeramailea izango da gurean, eta elkarrizketa egingo diogu.

12:30 Magazinea
13:30 Harmailatik
14:15 Kantari
14:45 Berriak
15:15 Beranduegi.tv
15:36 Harmailatik
16:19 Onein
16:45 Berriak
17:15 Bizitegia
17:45 Harmailatik
18:30 28.Klip
18:54 Berriak
19:21 Kantari
19:48 Magazinea
20:48 Erreportajea: Kirolak
21:18 Magazinea
22:18 Bizitegia
22:48 Magazinea
23:48 Gipuzkoa kultura

EGUAZTENA, 15

Eduardo Zubiaurre gurean

19:44

Eduardo Zubiaurre Adegiko presidentea gurean izango dugu eguazten iluntzean *Magazinea* telebista saioan.

12:20 Magazinea
13:20 Berbetan
13:50 Beranduegi.tv
14:09 Kantari
14:44 Berriak
15:14 Gipuzkoa kultura
15:44 Onein
16:12 Erreportajea: Kirolak
16:42 Berriak
17:12 Bizitegia
17:39 Erreportajea: Txotx
18:06 Harmailatik
18:49 Berriak
19:14 Kantari
19:44 Magazinea
20:44 Erreportajea: Iturengo inauteriak
21:26 Magazinea
22:26 Berbaz
23:26 Magazinea
00:16 Altxor Txokoa

EGUENA, 16

Arrasateko azokako plana

19:46

Bagara Herrigintzak azoka biziberritzeko lantzen diharduen egitasmoa ezagutu ahal izango dugu eguenean *Magazinea*–n.

12:30 Magazinea
13:30 Hamaika.bit
13:55 Kantari
14:20 Bizitegia
14:45 Berriak
15:15 Onein
15:42 Berbaz
16:42 Berriak
17:12 Kantari
17:42 Berbetan
18:09 Beranduegi.tv
18:26 Onein
18:46 Berriak
19:16 Kantari
19:46 Magazinea
20:46 Hamaika.bit
21:16 Magazinea
22:16 Gipuzkoa kultura
22:46 Erreportajea: Kirolak
23:16 Magazinea
00:28 28.Klip

EGUBAKOITZA, 17

'Mirrix katua' ipuin musikatua

22:18

Mirrix katua izeneko ipuin musikatua eskaini zuten joan den egubakoitzean Ganbarako taldeek. Orain, telebistan ikusgai.

12:30 Magazinea
13:30 Gipuzkoa kultura
13:55 Kantari
14:22 Onein
14:47 Berriak
15:14 28.Klip
15:38 Bizitegia
16:08 Leku txiki bat
16:38 Berriak
17:11 Esatea libre
18:21 Beranduegi.tv
18:41 Berriak
19:16 Kantari
19:48 Magazinea
20:48 Gipuzkoa kultura
21:18 Magazinea
22:18 Musikala: Mirrix katua
23:28 Magazinea

ARRASATE IRRATIA

Aratusteen gainean berba egingo dugu Arrasate Irratian

Aurtengo Aratusteak gain-gainean dauzkagu. Zapatuan, hilak 18, ospatuko dira Arrasaten, eta guk horren gaineko xehetasun guzti-guztiak kontatuko dizkizuegu. Non? Beti bezala, Arrasate Irratiko 107.7-ko uhinetan, *Igo autobusera!* irratsaioan, 10:30ean.

'Wilt: Panpina puzgarriaren hilketa' antzerkirako sarrerak

Domekan eskainiko dute *Wilt: Panpina puzgarriaren hilketa* antzerkia Arrasaten, 19:30ean. Bada, guk hara joateko sarrerak dauzkagu, eta zozketan parte hartzeko bi bide dituzue: deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Zorte on.

Torturaren Aurkako Eguna berbagai hartuta, elkarrizketa

Gaur, astelehena, da Torturaren Aurkako Eguna, eta Arrasate Irratian Lorea Bilbao Torturaren Aurkako Taldeko abokatuarekin jardungo dugu berriketan. Momentu honetan egoera nola dagoen jakingo dugu. Hori *Igo autobusera!* irratsaioan izango da, 10:30ean hasita.

TELE-ALBISTEAK

'Pasapalabra'-n diru kopuru izugarria irabazi du parte-hartzaile batek

Hil bukaeran ikusiko dugu 1.458.000 euro baino gehiagoko potoa nola irabazten duen Garridok

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Tele5 katean eskaintzen dute, iluntzean, *Pasapalabra* lehiaketa, eta laster ikusiko dugu nola banatzen duten kate horretan orain arte inoiz banatu den sari garrantzitsuena eta telebistan sekula banatu den bigarren sari nagusia, *Vertele* webgunean jakinarazi dutenez.

Joan den martitzenean grabatu zuten Christian Galvezek aurkezten duen programan Cesar Garrido lehiakideak nola eskuratzen duen egunotan 1.458.000 eurotan dagoen potoa. Urria ezkero jokoan egon da milioi bat euro baino gehiagoko potoa, eta, azkenik, otsailaren azkeneko astean (27an, 28an edo 29an) ikusi ahal izango dugu telebistan Garridok nola ez duen hutsik egiten bukaerako erroskoan eta orain arte potoan batzen joandako dirutza nola eskuratzen duen. Joan den martitzenean, hilak 7, grabatu zuten saioa, esan bezala, eta egun hartan pertsona ospetsu hauek izan ziren parte hartzen: Luis Merlo (*Aquí no hay quien viva*), Pablo Puyol (*UPA*), Carmen Alcayde (*Gran Hermano: el debate*) eta Lara Alvarez (Cuatroko kiroletako aurkezlea). Publikoan zeuden ikus-entzuleek esan dutenez, "emozio handiko uneak" bizi izan zituzten grabazioaren momentuan, *Vertele*-k jakinarazi duenez.

Christian Galvez aurkezlea eta partaideak, saioan bertan. | FORMULATV.COM

Cesar Garrido irabazlea

Cuencan bizi da eta 33 urte ditu. Dagoeneko 20.000 euro irabazi ditu saioan aurkariei irabazten eta hilaren bukaeran ikusiko dugu nola irabazten duen 1.458.000 baino gehiagoko potoa.

Cesar Garrido lehiakideak eskuratuko du potoa lehiaketan

ZORION AGURRAK

OÑATI
Izar Gil Albizu
Otsailaren 19an, 3 urte. Zorionak! Muxu handi bat familia guztiaren partetik bihotz-bihotzez, eta bereziki, hainbeste maite zaituen zure anaia Ikerren izenean.

BERGARA
Noa Laiseka Leturia, Garazi eta Libe Ugarte Leturia
Otsailaren 18an, 3 urte. Gure lehengusina hirukixek 3 urte bete dittuzte! Zorionak, potxolak, eta segi holako alegre beti. Naroa, Jon, Ximun, Hur, amatxo, aitatxo, tia, tio eta familixa danan partetik.

DEBAGOIENA
Pakita Cebrino
Otsailaren 18an, Urtebetetzea. Otsailaren 18an, "50+1" urte. Ai, Paki, gazte-gazte zaude eta zenbat urte bizkar gainean... Jarraitu orain arte bezain alai eta guapa. 61ekoak.

ESKORIATZA
Bogdan Cabeza Davila
Otsailaren 16an, 6 urte. Zorionak familiaren partetik eta ondo pasatu zure urtebetetze egunean.

ARETXABALETA
Doltza Lizarriturri Etxenausia
Otsailaren 16an, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako, sorgintxo! Amamak indako txokolate eta pastel goxo-goxua jan eta edanez ospatukou danok zure hirugarren urtebetetze eguna. Patxo potolo-potolo bat familixako danon partetik baina bereziki zure ahizpa Araitzen partetik.

BERGARA
Malen Pineda Martin
Otsailaren 16an, 2 urte Zorionak, laztana! Muxu handi bat aitatxo eta amatxoren partetik. Ondo pasatu zure egunean.

OÑATI
Maider Murillo Astigarraga
Otsailaren 16an, 14 urte. Zorionak, guapa! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik!

BERGARA
Manex Olabarria Arrizabalaga
Otsailaren 16an 2 urte betetzen ditu gure etxeko piratak. Zorionak eta patxo potolo bat guztion partetik.

OÑATI
Ritxi Perez
Otsailaren 15ean, 37 urte. Zorionak, aitatxo! Muxu potolo bat familia guztiaren partetik eta batez ere ni, etxeko erregina Paule, eta amatxoren partetik. Ondo pasatu eguna!

ANTZUOLA
Unax Errasti Urteaga
Otsailaren 15ean, 7 urte. Zorionak familia guztiaren partetik. Ondo pasatu, polittoi!

BERGARA
Garikotz Lopez de Munain
Otsailaren 15ean, urtebetetzea. Ez neuan zurekin ahaztuta. Ia noiz lagatzen dotzuen behingoz G-puntuan parte hartzen pake pixkat emoteko bestioi... Zorionak, artixta! jeje!

ELGETA
Arantza Valdivieso
Otsailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat Aner eta zure familikoen partetik. Ondo-ondo pasatu eguna.

ARETXABALETA
Jare Berezibar Epelde
Otsailaren 14an, 3 urte. Zorionak, Jare! Muxu handi-handi bat familixakuen partetik. Ondo pasatu eta ondo zaindu Iratz zure ahizpa txikia.

BERGARA
Edurne Gorosabel
Otsailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak eta ondo-ondo ospatu zure eguna! Rueda botilarik ez da faltako, ezta? Muxu handi bat danon partetik, mokolita salerosa!

OÑATI
Aimar Etxebeste Bolinaga
Otsailaren 13an, 8 urte. Gero eta jatorragoa zara, mutiko! Xe xauk? Zorionak eta patxo ugari familixako danon partetik!

ARRASATE
Olatz Maidagan Pagaldai
Otsailaren 13an, 7 urte. Zorionak, Olatzi! Muxu handi bat patinatzaile taldearen partetik.

ARETXABALETA
Alaitz Iturbe Murgiondo
Otsailaren 13an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztion partetik. Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna.

BERGARA
Miren Iraeta Marauri
Otsailaren 13an, 24 urte. Zorionak, kirolari! Zelan pasetan dan denboria! Gure sentimendua nahi diñau deklarau, maiteminduta gauden hau ezin don ukau. Hire xamurtasunaz hik gaitxun konkistau muxu bat, zorixonak eta ondo pasau! Harriki!

ZUMARRAGA
Aitor Garzia-Gango Idigoras
Otsailaren 12an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna zure ama eta aitaren partetik.

ARRASATE
Juana Perez de Arrilucea
Otsailaren 12an, 38 urte. Zorionak, tia Juana! Ederto pasatu eguna Maeztun, kiloka muxu potolo eta belarri tirakada pila-pila patata tortilla, etxekoen eta bereziki zure loba Beñat eta Marenen partetik.

ARETXABALETA
Naroa Urtaza Urzelai
Otsailaren 11n, 8 urte. Zorionak, *guapa*! Zer moduz pasatu duzu zure zortzigarren urte eguna? Txapel Txin eguna eta dana batera, ze suerte ona! Patxo handi bat Iker eta familia guztien partetik.

ARRASATE
Asier Diosdado
Otsailaren 11n, 30 urte. Zorionak, Txupa! Lasai egon, nahiz eta 30 urte bete.... beti bazain gazte eta guapo zauz! Zapatuan ospatukou! Zure lagunak.

ARRASATE
Ekain Kortabarria Gonzalez eta Elene Kortabarria Aranzabal
Ekainek otsailaren 11n eta Elenek 14an, urtebete. Zorionak pitxin, jadanik urte bat gure artean! Muxu handi bat etxekoen partetik!

BERGARA
Ane Elkoroberezibar Rivas
Otsailaren 11n, 5 urte. Zorionak gure printsesari, etxeko guztien eta batez ere Ederren partetik. Eta txintxo portatu.

ARETXABALETA
Mari Clara Axpe Unanue
Otsailaren 10ean, 77 urte. Zorionak, amandria! Oso ondo pasatu eguna eta prestatu merendola, joango gara-eta ospatzera! Muxu handi bat familia osoaren baina batez ere, Oxel, Hodei, Beñat eta Lurren partetik!

OÑATI
Oihana Diaz Urrestarazu
Otsailaren 10ean, 32 urte. Zorionak, Oihan! Egun on-ona pasauko dozula-kuan lagun eta familixiaz, eta alabatxo polittt horrekin disfrutatu. 32 tirakada eta patxotzar, *guapa*! Zure familixa handixa.

ARETXABALETA
Manex Urdineta
Otsailaren 10ean, 3 urte. Zorionak Berlinetik! Ondo-ondo pasatu zure egunien!

ARRASATE
Ane Enbeita Ezpeleta eta Alaitz Barrutia Ezpeleta
Anek otsailaren 10ean, 6 urte eta Alaitzek 17an, 11 urte. Mila zorion, otsaileko bi loreentzako familiako denen partetik.

ARRASATE
Jurgi Unamuno Garcia
Otsailaren 9an, urtebete. Zorionak! Ondo pasatu zure urtebetetzean etxeko guztien partetik, bereziki Irati, Julene, Unax eta Allison.

OÑATI
Julen Aranburu Gomendio
Otsailaren 8an, 8 urte. Zorionak, Julen! Besarkada eta muxu handi bat etxekoen partetik. Ondo pasatu genuen mendiko bueltan, ezta? Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Lander, aitatxo eta amatxo.

ARRASATE
Mikel Agirre Uribarri
Otsailaren 8an, 10 urte. Urte askotarako etxekoen eta lagunen partetik!

OÑATI
Paula Zaloña
Otsailaren 8an, 72 urte. Zorionak, amama Paula! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu pila bat etxekoen partetik baina bereziki Iban, Nahia eta Danelen partetik.

BERGARA
Aitor Larrea
Otsailaren 7an, 36 urte. Zorionak, aitatxo! Muxu potolo bat familia guztiaren partetik eta batez ere, Nora, Aner, Unax eta amatxoren partetik. Ondo pasatu eguna. Asko maite zaitugu!

ARRASATE
Nerea Losa Herrera
Otsailaren 7an, 8 urte. Zorionak eta patxo handi bat bereziki Aitor eta Alazneren partetik. Oso ondo pasatu zure egunean.

ARETXABALETA
Ainara Zugasti Santamaria
Otsailaren 4an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure egunean eta muxu handi-handi bat etxekoen eta batez ere, Maren, Uxue eta Egoitzen partetik.

JAIOTAKOAK

Intza Esnaola Osinaga

Oñati 4.200 kilo. Otsailaren 7a. Gurasoak: Aitziber eta Mikel. Anaiak, Auritz eta Lier. Argazkian, Intza amarekin.

Iratz Berezibar Epelde

Aretxabaleta 3,040 kilo. Otsailaren 5a. Gurasoak: Amaia Epelde eta Dabid Berezibar. Argazkian, Iratz sehaskan.

Izaro Zabalo Del Fresno

Arrasate. 2,590 kilo. Otsailaren 2a. Gurasoak: Iñigo eta Izaskun. Argazkian, umea lotan.

Ibai Robledo Cordero

Arrasate 3.860 kilo. Otsailaren 8a. Gurasoak: Sonia eta Bixente. Argazkian, Ibai amarekin.

Izar Aranguren Arzelus

Antzuola 3.970 kilo. Otsailaren 10a. Gurasoak: Eider eta Ion. Anaia, Lier. Argazkian, Izar sehaskan lo.

Joritz Isasi Rodrigo

Arrasate 3.300 kilo. Otsailaren 9a. Gurasoak: Nora eta Oscar. Argazkian, Joritz aitaita Nataliorekin.

Maialen Obregon Fernandez

Arrasate 3.410 kilo. Otsailaren 7a. Gurasoak: Inmaculada eta Alberto. Argazkian, Maialen ama eta izeba M. del Carmenekin.

Eki Gartzia Aiastui

Oñati 3.400 kilo. Otsailaren 9a. Gurasoak: Miriam eta Jose Miguel. Argazkian, Eki ama eta aitarekin.

Maren Aperribay Lazpiur

Bergara 3.400 kilo. Otsailaren 9a. Gurasoak: Itsaso eta Unai. Argazkian, Maren ama eta izeba Nerearekin.

BABESLEA

tipi tapa
Oinetakoak
Arropa
Jostailu hezigarriak
Otalora Lizentziaduna 25
ARRASATE
Tel.: 943 79 17 47
tipitapa@hotmail.es
Jarraitu gaitzazu Facebooken:

AI, ENE!

Errealitatez betetako jostailua

Barku piratak, estazio espazialak, zoologikoak... eta orain, langabetuak INEMeko iladan zain? Izango dituzte nahikoa panpina?
www.sarda.es

AHOBERO

"Gizen ez nagoela esango banu, ONCEra eraman beharko nindukete".

CARITINA GOYANES | ENPRESARIA

"Nor da Caritina?" galdetuko duzue. Laburtuz, esan dezagun prentsa arrosako pertsonaietako bat dela. Itxura aldetik ez da dugu horrelako famatu asko ikusten: emakume puska, argaltasunaren antitesia. Eta konplexu gabea. Behingoan, ahoberoa, txalotzekoa.
www.diariovasco.com

EGURALDIA

Max. 4º
Min. -1º

Astelehenean giroak epeltzera egingo duen arren euria eta elur kontuak bueltatuko dira.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA

goiena

2012-02-13

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Uxue Alberdi Lanbideagatik galdetuta, elgoibartarrak idazlea, bertsolaria eta kazetaria dela erantzungo dizu, eta gero bere amamaren esaera bat erantsi: *Ofizio asko, pobre seguru.* | TXOMIN MADINA

"Hitza da errealitatera sartzeko eta handik ateratzeko bidea"

1. Bertsolaritza barruan daramazula irakurri dizugu. Noiz ohartu zinen horretaz?
Txikitatik naiz bertsozalea, liluratuta geratzen nintzen *Hitzetik hortzera*-ri begira. Unibertsitate garaian ikasi nuen bertsotan, Bilbon, eta barruan geratu zitzaizkidan biak: bertsolaritza eta Bilbo.

2. Bertsoa kantatu, bertsoa idatzi, bertsoa entzun; zer nahiago?
Hirurekin gozatzen dut, unearen arabera. Entzutea beharrezkoa da kantatzen ikasteko, eta idaztea kantatutakoak hobetzeko.

3. Bertsotarako, badago alderik aurrean gizonezkoa edo emakumezkoa izan?
Generoak egiten dugun guztian eragiten digu; are gehiago egiten duguna, bertsolaritza, tradizionalki gizonen eremu izan bada. Egun, badira emakume bertsolariak, baina zein da bizi duten errealitatea? Galdera asko daude argitzeko.

4. Badago bertsolarietan belaunaldien arteko jauzirik, hausturarik?
Hausturarik ez, hori da bertsolaritzak duen bertute handienetakoa, handiena ez bada. Lehen eskutik jaso dugu aurrekoen lekukoa.

JON POZO

5. Uxue idazleak eta Uxue bertsolariak badute antzik?
Biak dira zorrotzak beren buruekin, saiatuak eta apasionatuak egiten dutenean. Uste dut badutela transgresio eta samurtasunerako joera, hitzekiko maitasun handia eta dakitenengandik ikasteko grina.

6. Uxue kazetariak nola deskribatuko luke Uxue idazlearen lana?
Idazle hasiberria dela esango luke, bere bidean gutxinaka hazten doana. Hiru urteko krisi kreatibo baten ostean, ipuin-bilduma bat idazten ari da orain, aspaldian ez bezala gozatuz *(off the record)*.

7. Kazetari moduan bereziki gogoratzen duzun elkarrizketaturik?
Elkarrizketatu ditudan emakume feminista guztiak ditut gogoan, asko ikasi dut haiengandik, eta maitasun berezia diet.

8. Argi dagoena da Uxue guztiak hitzaren inguruan mugitzen direla.
Liluratu egiten nau hitzak, hizkuntzak. Harkaitz Canoren *Twist* eleberriko narratzaileak dio hizkuntza ez menperatzetik hasten direla gaitz guztiak, eta arrazoi du. Hitza da niretzat emozioetara eta errealitatera sartzeko eta handik ateratzeko bidea.

9. Ordutegiak alde batera utzita, zertan aldatu zaitu amatasunak?
Barruranzko bidaia bat izan da, itzela. Naizena eta benetan inporta zaidana jarri dizkit begien aurrean: familiaren eta lagunen maitasuna eta sormena.

10. Txikia handitu bitartean ezingo duzu zure zaletasunetako bat, bidaiatzea, burutu...
Bidaiatzea ihesbidea izan da urte askoan niretzat. Nire buruarekin hobeto sentitu bitartean ez dut horretarako beharrik. Dena den, haurrarekin ere bidaia daiteke!

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Horrelakorik baneuka, uste dut hautsi egingo nukeela. Badakizu zein zaila den boterea kudeatzea?"

BIHARAMUNA

MARIA AGIRRE

Alarmapean eta kontraesanean

Beldurtuta bizi naiz azkenaldian. Izuaren gizarteak harrapatuta, uzkurtuta. Irratia dago berbetan, eguraldiaz ari dira. Gaur alarma horia, bihar, laranja. Negua, jada, ez da gorria. Goiena-net ireki eta Pello Zabalaren hitzak: "beldurtzeko moduko eguraldia egingo du bihar". Ez nuen haren ahotik horrelakorik espero. Ostra, Pello ere beldurtu du eguraldiak. Hotza barruraino sartu zait. Kipula bat eginda banoa kalera.

Gaiz aldatzea hobe. Egunkaria hartu. Lehengusina arriskutsuaren berririk aspaldian, ez. Orain, erreforma jarri digute ahotan. Horrek bai ekarriko digula ahoko mina. Ea nork duen dentistara joateko dirua.

Panorama galanta. Eskerrak aratusteak ate-joka ditugula. Joan naiz txinora eta erosi dut hau eta beste. Lagunak diñost ea zelan joan naizen txinora, hor ezetz, herrikoei erosteko. Joan naiz etxera eta azkenaldian erositako guztia made in china dela ikusi dut. Berak oparitutakoa ere bai. Eta nire lagunaren anaia kooperatibista Txinara doa lanera. Alarmapean eta kontraesanean bizi ote naiz?

IparProject
www.iparproject.com
info@iparproject.com

Barne diseinua - Gremioen koordinazioa
Erreforma eta ekipamendu integrala
Altzariak eta merkatuko lehen markak

BERGARA
Telleria 23 - D5 pabilioia. Labegaraieta industrialdea
Tel.: 943 76 98 30 / Faxa: 943 76 52 44

AZPEITIA
Landeta auzoa. Atxubiaga 5 - Behea
Tel:: 943 15 03 33 / Faxa: 943 15 73 16